

03

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

KGK

Euskadiko gazteak 2008

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Euskadiko gazteak 2008

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Gabinete de Prospección Sociológica

KULTURA SAILA
*Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA
*Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a, 2008ko abendua

Ale-kopurua: 2.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazioa: Bakarne Zuazua Astarloa

Idazketa: Miren Bilbao Gaztañaga

Itzulpena: IVAP

Bildumaren diseinua: Canaldirecto • www.canal-directo.com

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Varona, S.A. Salamanca

ISBN: 978-84-457-2876-5

LG: VI 670-2008

Aurkibidea

AURKEZPENA	11
SARRERA	13
1. LAN-MUNDUA	15
1.1. Sarrera	17
1.2. Gazteriaren lan-egoera	19
1.3. Lan-merkatuan sartzea eta lanerako orientabidea	25
1.4. Lan-baldintzak	28
1.4.1. Egonkortasuna	29
1.4.2. Lanaldia	40
1.4.3. Azken lanaren ezaugarriak	42
1.4.4. Gazteriaren lan-baldintzak	52
1.5. Lan idealaren ezaugarriak	55
1.6. Autoenpleguarekiko jarrerak	61
1.7. Lan-mugikortasunerako prestutasuna	64
1.8. Diskriminazio-sentimendua lana eskuratzeko orduan	67
1.9. Ondorioak	71
2. FAMILIA	73
2.1. Sarrera	75
2.2. Familia-egoera	77
2.2.1. Egoera zibila	77
2.2.2. Seme-alabak	82
2.3. Emantzipazioa	84
2.3.1. Emantzipazio-adina	86

2.3.2. Emantzipatzeko gogoia	87
2.3.3. Emantzipatzeko zailtasunak	90
2.3.4. Independentzia ekonomikoa	94
2.3.5. Etxeko lanen banaketa	103
2.4. Familiarekiko satisfazio-maila	106
2.5. Gazteriaren familia-egoeraren deskribapena	109
2.6. Ondorioak	111
3. AISIA ETA DENBORA LIBREA	113
3.1. Sarrera	115
3.2. Aisiarako denbora edukitzea	116
3.3. Aisialdiko jarduerak	119
3.4. Asoziazionismoa	130
3.5. Internet: esperientzia eta erabilera	138
3.6. Ondorioak	146
4. EGOERAREN BALORAZIOA	149
4.1. Sarrera	151
4.2. Egoera pertsonala	153
4.2.1. Egoera pertsonalaren balorazioa	153
4.2.2. Kezka pertsonalak	158
4.3. EAEko gazteriaren egoera	163
4.3.1. Gazteriaren egoeraren balorazioa	163
4.3.2. Erakundeak gazteriaren alorrean egiten ari diren lanaren balorazioa	165
4.4. Euskadiren egoera	167
4.4.1. Euskadiren egoeraren balorazioa	167
4.4.2. Gaez ibiltzeko beldurra	169
4.4.3. EAEko hezkuntza-sistemaren balorazioa	171
4.5. Ondorioak	176

5. JARRERA POLITIKOAK	179
5.1. Sarrera	181
5.2. Politikarekiko interesa	181
5.3. Politika zerekin lotzen den	184
5.4. Politikan gehiago parte hartzeko nahia	186
5.5. Jarrera-hartze ideologikoa	188
5.5.1. Ezker-eskuin ardatza	188
5.5.2. Euskal herritar-espainiar ardatza	189
5.5.3. Europar sentimendua	191
5.5.4. Gertueneko alderdi politikoa	193
5.6. Ondorioak	196
6. ERLIJIOZALETASUNA	197
6.1. Sarrera	199
6.2. Autodefinizio erlijiosoa	200
6.3. Erlijio-praktika	203
6.4. Erlijioei buruzko iritzia	205
6.5. Jainkoarengan sinestea	207
6.6. Ondorioak	210
7. GIZARTE-BALIOAK ETA JOKAERAK	211
7.1. Sarrera	213
7.2. Zenbait egoeren aurreko jarrera	213
7.3. Osasunerako kaltegarriak diren ohituen hedapena gazterian	225
7.4. Ohitura eta jokabide pertsonalak	227
7.4.1. Garraiobideen erabilera	228
7.4.2. Osasunerako kaltegarriak diren edo gizalegezkoak ez diren jokabideak izatea	232

7.5. Auzokideekiko tolerantzia	234
7.6. Tolerantzia ideologikoa	237
7.7. Immigrazioarekiko jarrerak	238
7.7.1. Atzerritarren kopuruari buruzko iritzia	238
7.7.2. Etorkinen jatorriari buruzko pertzepzioa	240
7.7.3. Immigrazioarekiko jarrera	242
7.8. Ondorioak	245
8. EUSKARA	247
8.1. Sarrera	249
8.2. Euskararen ezagutza	251
8.3. Euskararen erabilera	256
8.4. Euskararen sustapenaren balorazioa	267
8.5. Ondorioak	270
9. SEXUALITATEA	271
9.1. Sarrera	273
9.2. Sexualitatearen garrantzia	273
9.3. Sexualitatea zerekin identifikatzen duten	276
9.4. Sexualitateari buruzko komunikazioa familian, lagunartean eta irakasleekin	278
9.5. Ondorioak	282
10. ONDORIOAK	283
10.1. Lan-mundua	285
10.2. Familia	286
10.3. Aisia eta denbora librea	286
10.4. Egoeraren balorazioa	287
10.5. Politika	288
10.6. Erliziozaletasuna	288
10.7. Gizarte-balioak eta jokaerak	288

10.8. Euskara	289
10.9. Sexualitatea	290
11. METODOLOGIA	291
11.1. Lagina	293
11.2. Landa-lana	294
11.3. Emaizen azterketa	295
BIBLIOGRAFIA	301
ERANSKINA	307
AURKIBIDEAK	317
Taulen aurkibidea	319
Grafikoen aurkibidea	328

Aurkezpena

Gazteen Euskal Behatokiak aldian-aldian ikerketa soziologiko bat —euskal gizartea Euskadiko gazteek beren egoera eta beren ingurukoa bizi, sentitu eta hausnartzeko modua gertutik ezagutzeko bidea emango duen ikerketa bat— aurkezteko duen konpromisoa bete-
tzera dator *Euskadiko gazteak 2008* argitalpena.

Azterketaren premisa gazteen errealitatea dimentsio anitzek —besteak beste, dimen-
sio sozial, ekonomiko, afektibo eta politikoek— osatzen dutela da, eta horiek ezagutzea be-
har-beharrezkoa dela gazteek bizi duten egoera bere osotasunean erakutsi nahi badugu.

Kolektibo sozial baten deskribapenari ekiterakoan, orokortzeko arriskua dago eta, gaz-
teen kasuan, zabaltzen den irudi publikoa sarri, sarriegi egoten da indarkeriarekin edo dro-
gen kontsumoarekin loturik. Horrek gazteen irudi desitxuratua ematen du, jokaera horiek
biztanle gazteen zati murriz bati eragiten baitiote.

Izan ere, gazte nortasuna modu askotara bizi daiteke belaunaldi berean egonik ere:
«gazte izateko» eta «gazte sentitzeko» modu ugari dago, eta horietako bakoitza askotariko
jokaera eta balioei ere lotuko zaie.

Alabaina, gazteek egoera objektiboak ere bizi dituzte, eta gaur egun gazte guztiei eragi-
ten diete hein batean edo bestean, nagusiki, hezkuntza-aldia luzatzea, lanaren prekaritatea,
etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, aisia modu berriak eta presentzia sozial eta politiko urria.

Oraingoan aurkeztuko dugun liburuak Euskadiko gazteek gai horiei guztiei buruz di-
tuzten iritzi eta jarreraren azterketan jarri du arreta.

Gaur egun bizi ditugun aldaketa sozial, ekonomiko eta kulturelek ere izan dute eraginik
gazte izatearen kontzeptuan. Bizitzako aroen esanahia jende guztiarentzat aldatzen ari dela dio-
te. Izan ere, gero eta zabalduago dago gaztaroa luzatzen ari dela dioen ideia: alegia, jendea arina-
go sartzen ari dela gaztaroan eta beranduago irteten, helduaroa beranduago iristen ari baita.

Alderdi sozialetik aztertuta, eraldaketa hauen ondorioak positiboak nahiz negatiboak
izan daitezke; edonola ere, agertoki berriak sortarazten dituzte, hain zuzen ere ezagutu behar
diren agertokiak, politika publikoek orainaren premia eta logikei erantzun diezaieten.

Helburu hori lortu nahiaren emaitza da liburu hau. Gure gazteek bizi duten gizartea eta
errealitatea apur bat hobeto ezagutzen lagunduko duela espero dugu.

Miren Azkarate Villar

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA

Sarrera

Liburu hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak gazteriar buruzko gaien ikerketari eman dion bultzadaren emaitza da, kontuan izanik haren eginkizunetako bat dela «gazteriaren egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzea eta zabaltzea eta arlo horretan interesgarri iriztitako ikerketak eta azterlanak egitea»¹.

Izan ere, azken urteotan erakunde publikoek arreta handia eskaini diote gazteriarri. Hain zuzen, *Euskadiko gazteak 2008* hau izenburu beraz argitaratu den ikerketa-sail baten hirugarrena da. Azterlanok Gazteria Zuzendaritzak eta, zehazkiago, Gazteen Euskal Behatokiak sustatu ditu, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean.

Saila 2000. urtean abiatu zen eta lau urtez behin ale berri bat argitaratzen da; beraz, 2004an beste liburu bat atera zen, eta hirugarren ekarpena 2008koa da. Ikerlan hauen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteen iritziak eta jarrerak aztertzen dira hainbat auziren inguruan, hala nola familia, lan-egoera, aisialdia eta denbora libre, euskara, sexualitatea, egoera pertsonalari zein orokorrari buruz egiten duten balorazioa, haien jarrera politikoak, erlijiozaleasuna eta gizarte-jarrerak eta -balioak.

Gazteen iritzia biltzeko erabili den metodoa inkesta izan da, 15 eta 29 urte arteko EAEko gazteen lagin adierazgarri bati egina.

Pertsona gaztea 15 eta 29 urte artekoa dela ezarri da beste ikerketa batzuetan baliatu diren kategoriekin bateratze aldera; hala egin ohi du Espainiako Gobernuaren mende dagoen CISek (Centro de Investigaciones Sociológicas) INJUVERako (Instituto de la Juventud) taxutzen dituen inkestetan, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Gazteen Euskal Behatokiak EAEko gazteei buruz egiten dituen estatistika ofizialetan ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren II. Gazte Planean (2002 eta 2005 artean indarrean egon dena) jasotzen denez, «gazteriaz ari garenean, nerabegarotik helduarora bitartean dagoen kolektiboaz ari gara, oro har. Europako Batasuneko erakunde araberak, 15 eta 29 urte arteko pertsonak dira gazteak»².

¹ Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza: *Egitekoak* [linean], <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19217/eu/contenidos/guias_organo/1535/eu_4563/eu_17043.html>. [Kontsulta: 2008ko urtarrilaren 9a.]

² Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza: *II. Gazte Plana 2002-2005* [linean], Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002, <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19217/eu/contenidos/informacion/4155/eu_5560/eu_19588.html>. [Kontsulta: 2008ko urtarrilaren 10a.]

2007ko Biztanleen Udal Erroldaren arabera, gaur egun 15 eta 29 urte arteko gazteak EAEko bizilagunen %17,1 dira. Urtebete lehenago, 2006an, %17,8 ziren. Hamar urte lehenago, 1996an, portzentaje hori EAEko biztanleria osoaren %23,9koa zen, eta horrek gazteen portzentajearen beherakada kezkarria islatzen du. Gainera, EAEko gazteen portzentaje hori Estatukoa baino apalxeagoa da, azken horretan biztanleria osoaren %19,7ra heltzen baita (2007ko Udal Errolda)³.

Gazteen beherakada horrekin batera, aintzat hartu beharreko beste fenomeno bat gertatu da: gazte atzerritarren portzentajea hazi egin da. Berrito ere biztanleen Udal Erroldara joz, 2007an EAEn bizi ziren 15 eta 29 urteko gazteen %9 immigranteak ziren⁴.

Euskadiko gazterian gertatzen ari den bilakaera horrek aldaketak ekar ditzake gazteen bizitzeko moduetan, ikuspegietan, jarreretan eta iritzietan. Horregatik, ikerketa sail moduan planteatzeak gazteek urte horietan ageri dituzten jokabide eta jarreraren bilakaera aztertzeke aukera ematen du, galdera batzuk errepikatu egiten direlako.

Era berean, eta ahal den neurrian, EAEn bildutako datuak Espainiar Estatuan edo Europar Batasunean bildutakoekin alderatzen dira (beti ere azterlan honetan bildutakoekin alderagarriak diren datu berriak badaude). Beste zenbaitetan, alderaketa Eustat (Euskal Estatistika Erakundea) edo INE (Espainiako Estatistika Institutua) bezalako iturri ofizialek EAEn buruz landutako estatistika ofizialekin egiten da.

Horrekin guztiarekin, gazteriaren egoeraren analisisa egin nahi da gazteen ikuspegitik abiatuta eta, ahal den neurrian, ikuspegi hori ikerketa aberastuko duten kanpoko datuekin osatuz.

³ Espainiako Estatistika Institutua (INE): *INEbase* [linean], <<http://www.ine.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 7a.]

⁴ Gazteen Euskal Behatokia: *Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoak* [linean], <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/eu/contenidos/informacion/estadistikak_eae/eu_6778/estadistikak_eae.html>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 7a.]

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

1.
Lan-mundua



1

Lan-mundua

1.1. SARRERA

Lanarena da gazteengan eragin handiena duen auzietako bat. Bizitzako aldi horretan ikasketak alde batera edo bestera bideratzen dira, ondoren lan-mundura sartu ahal izateko. Ikasketak amaituta, gazteak gutxi gorabehera haien prestakuntza eta aukeretara egokituko den lan baten bila hasten dira, autonomia ekonomikoa lortzeko eta, horrenbestez, beren bizitzaren jabe izanda helduarorako urratsa egiteko; lan-mugikortasuna ere aldi horretan da handiena, gazteak orduan ahalegintzen baitira beraiek jasotako prestakuntzara, beren interes, itxaropen eta abarretara hobekien egokitu den lana eskuratzen.

Ez da ordea prozesu samurra, gazteak izaki lan-munduan dauden arazoak gehien pairatzen dituztenak: langabezia-tasa handiagoak, ezegonkortasun handiagoa eta abar. Adibidez, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) datuen arabera, 2007an %3,3koa zen EAeko 16 urtetik gorako biztanleriaren langabezia-tasa, baina 25 urtetik beherako gazteen artean %7,6koa zen tasa hori (ikus 1. taula).

1. taula

LANGABEZIA-TASA 2007AN

Biztanlerian oro har (16 urte eta hortik gora)	3,3
25 urtetik beherako gazteengan	7,6

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.

Nolanahi ere, arazo hori leundu egin da azken urteotan. Izan ere, langabeziak gazteei helduagoei baino gehiago erasaten dien arren, gazteriaren langabezia-tasa (25 urtetik

beherakoen) nabarmen jaitsi da, 2001eko %25,5etik 2007ko %7,6ra. Haatik, 2008aren hasieran gazteen langabezia-tasak apur bat gora egin du (%8,8)⁵.

Beste aldaketa garrantzitsu bat emakumeak lan-merkatuan sartzea izan da, eta batik batik emakume gazteak. 2007ko azken hilean, 25 urtetik beherako 100 langabetik 57 gizonezkoak ziren eta 43 emakumezkoak; beraz, emakume langabeak gizonezko langabeak baino gutxiago ziren⁶.

Alabaina, gazteak lan-merkatuan aurreko urteetan baino gehiago sartzeak ez du ezinbestean baldintza egokiak dituztenik bermatzen. Manu Robles-Arangiz Fundazioak *Egoeraren azterketa 109* aldizkarian argitara emandako Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) datuen arabera, 2007ko azken hiruhilekoan EAEn eta Nafarroan behin-behinekotasun tasa %28,2koa izan zen 16 urte edo gehiagoko soldatapeko biztanleria osoari dagokionez, baina 25 urtetik beherako soldatapekoen artean %68ra heldu zen (ikus 2. taula).

2. taula

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA 2007KO AZKEN HIRUHILEKOAN

Soldatapeko biztanlerian oro har (16 urte eta hortik gora)	28,2
25 urtetik beherako soldatapeko gazteengan	68,0

Iturria: INE eta Manu Robles-Arangiz Fundazioa.

Horrek zuzenean eragiten du langile gazteek beren lanarekiko duten satisfazio-mailan. 1996an jada, *Gazteen argazkiak*⁷ sailaren 1. ikerlanean bildutako datuetan ageri zen lanarekiko satisfazio-maila txikiagoa zela gazteetan pertsona helduagoetan baino; 15 eta 29 urte arteko gazteen %65ek bakarrik adierazten zuten lanak gogobetetzen zituztela, eta adinez nagusiagoetan portzentajea %76ra heltzen zen.

Hori guztia dela-eta, atal honetan gai horretan sakonduko dugu, hainbat alderdi aztertuz: EAEko gazteen lan-egoera, enpleguarekin duten harremana, lan-merkaturako sarbidea, laneko satisfazio-maila, mugikortasunerako prestutasuna, autoenplegua, lan idealaren ezaugarriak eta abar.

⁵ Eustat, Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta [linean], <<http://www.eustat.es>>. [Kontsulta: 2008ko maiatzaren 5a.]

⁶ Eustat, *Datu-bankua* [linean], <<http://www.eustat.es>> eta INEM, *Argitalpenak* [linean]: *Estatistikak*. <<http://www.inem.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 7a].

⁷ *Gazteen argazkiak* urtero argitaratzen diren ikerketen bilduma bat da, eta bertan 15 eta 29 urte arteko EAEko gazteek gaurkotasuneko hainbat gairen inguruan dituzten iritziak eta jarrerak biltzen dira. Txosten-sail hau Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak lantzen du, Gazteria Zuzendaritzarekin eta, zehazkiago, Gazteen Euskal Behatokiarekin elkarlanean.

1.2. GAZTERIAREN LAN-EGOERA

Inkestan parte hartu duten gazteen erdiek (%51) diote lanean ari direla: %41ek lanean bakarrik eta beste %10ek lana eta ikasketak uztartuz. Bestalde, %8 langabezian daude, %39k ikasten dihardute soilik, eta apenas %2k etxeko lanak soilik egiten.

Ikasle gazteen portzentajea pixka bat jaitsi da 2004. urtearekiko, eta langabeena igo egin da (ikus 3. taula).

3. taula

GAZTERIAREN LAN-EGOERAREN BILAKAERA (2000-2008)

LAN-EGOERA	2000	2004	2008
Ikasten	43	43	39
Ikasten eta lanean	8	14	10
Ikasten (ikasten + ikasten eta lanean)	51	57	49
Lanean	41	38	41
Lanean (lanean + ikasten eta lanean)	49	52	51
Langabezian	7	4	8
Etxeko lanetan	1	1	2
Beste egoera batean	0	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Espainiako gazteriaren egoera antzekoa da; alderik nabarmenena da EAEn gazte gutxiago dagoela langabezian eta ikasle gehiago, baina gazte landunen portzentajea antzekoa da (ikus 4. taula).

4. taula

GAZTERIAREN LAN-EGOERAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESPAINIAR ESTATUAN

LAN-EGOERA	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2006)
Ikasten	39	34
Ikasten eta lanean	10	11
Ikasten (ikasten + ikasten eta lanean)	49	45
Lanean	41	39
Lanean (lanean + ikasten eta lanean)	51	50
Langabezian	8	14
Beste egoera batean (etxeko lanak...)	3	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.469

Iturria: INJUVE (2006): *Cifras jóvenes - Sondeo de opinión*, EJ106 azterlana, «Juventud y empleo».

Alde horiek azaltzeko orduan, datu estatistiko ofizialek adierazten dute EAEn handiagoa dela beren prestakuntza akademikoa goi-ikasketekin luzatzen duten gazteen portzentajea. Hala, Eustaten datuen arabera —Gazteen Euskal Behatokiak jasoak—, 2001ean 15 eta 29 urte arteko gazteen %36k goi-mailako ikasketak edo erdi-goi mailakoak zituzten. Data horixetan, INEk bildu eta INJUVE⁸ aurkeztutako datuen arabera, titulazio bera zuten 16 eta 29 urte arteko espainiar gazteak %24 ziren⁹.

Inkestaren datuetara itzuliz, egiaztatu dugu gazteak lan-merkatura beranduago sartzen direla EAEn Estatuan baino, hain zuzen ere gurean ikasten soilik ari direnen portzentajea handiagoa delako 15 eta 24 urte arteko gazteetan (ikus 5. taula).

⁸ Gazteen Euskal Behatokia: *Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoak* [linean], <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/eu/contenidos/informacion/estadistikak_eae/eu_6778/estadistikak_eae.html>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 8a.]

⁹ Injuve: *Informe juventud en España 2000* [linean], Madril: Injuve, 2001, <<http://www.injuve.mtas.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 8a.]

5. taula

GAZTERIAREN LAN-EGOERAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESPAINIAR ESTATUAN, ADINAREN ARABERA

JARDUN NAGUSIA ETA ADIN-TALDEAK	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2006)
Ikasten	39	34
15-19 urte	87	74
20-24 urte	33	28
25-29 urte	6	7
Lanean eta ikasten	10	11
15-19 urte	6	8
20-24 urte	16	13
25-29 urte	7	11
Lanean	41	39
15-19 urte	5	9
20-24 urte	41	39
25-29 urte	71	62
Langabezian	8	14
15-19 urte	2	8
20-24 urte	8	18
25-29 urte	12	15
Beste egoera batean	3	3
15-19 urte	1	1
20-24 urte	2	3
25-29 urte	3	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.469

Iturria: INJUVE (2006): *Cifras jóvenes - Sondeo de opinión*, EJ106 azterlana «Juventud y empleo».

EAEri buruzko inkestaren datuetara etorriz, baieztatu liteke adina funtsezko aldagaia dela gazteriaren lan-egoera aztertzeko orduan. Izan ere, adinak gora egin ahala igo egiten da, halaber,

lanean ari diren gazteen portzentajea. Gauza bera gertatzen da langabeen kopuruarekin ere. Alderantziz, adinak gora egin ahala behera egiten du ikasleen kopuruak. 20 eta 24 urte artekoa trantsizio-aldia da berez, eta adin-tarte horretan kokatzen da lana eta ikasketak uztartzen dituzten gazteen portzentajerik handiena.

Klase sozialak ere alde nabarmenak markatzen ditu: zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da ikasten duten gazteen portzentajea eta txikiagoa lan egiten dutenena, hau da, klase sozial altuko gazteek ikasketak gehiago luzatzen dituzte. Langabeen portzentajeak ere txikiagoak dira klase sozialean gora egin ahala.

Bestalde, sexuaren arabera ez da alde handirik nabari, ezpada emakume batzuk —gutxi— etxeko lanetan soilik jarduten direla, eta gizonetan egoera hori ez dela gertatzen (ikus 6. taula).

6. taula

GAZTERIAREN LAN-EGOERAREN BILAKAERA SEXUAREN, ADINAREN ETA
KLASE SOZIALAREN ARABERA

LAN-EGOERA	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Ikasten	39	40	38	87	33	6	25	40	52
Ikasten eta lanean	10	8	12	6	16	7	7	11	11
Ikasten (ikasten + ikasten eta lanean)	49	48	50	93	49	13	32	51	63
Lanean	41	43	39	5	41	71	53	40	32
Lanean (lanean + ikasten eta lanean)	51	51	51	11	57	78	60	51	43
Langabezian	8	8	7	2	8	12	10	7	4
Etxeko lanetan	2	0	3	1	1	3	4	1	0
Beste egoera batean	1	1	1	0	1	0	0	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	192	1.180	110

Ikasketa-mailak ere eragina du gazteen lan-egoeran. Lanbide Heziketa ikasi dutenen artean, gazte-proporzio handiagoa dago lanean goi-mailako ikasketak dituztenen artean baino; azken horietan, ordea, portzentaje handiago bat soilik ikasten ari da. Nolanahi ere, ikasle gehienek lehen edo bigarren mailako ikasketak bukatu ondoren ikasketak luzatzen dituzte goragoko maila bat lortu arte.

Bestalde, atzerritik datozen gazteetan gehiago dira soilik lanean ari direnak, espainiar Estatuko beste lekuren batean jaiotakoen artean gehiago dira lanean ari direnak edo lana eta ikasketak uztartzen dituztenak, eta EAEn, berriz, erkidegotik kanpo jaiotako gazteen artean baino ikasleen portzentaje handiagoa dago (ikus 7. taula).

7. taula

GAZTERIAREN LAN-EGOERAREN BILAKAERA IKASKETA-MAILAREN
ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

LAN-EGOERA	GUZTIRA	IKASKETA-MAILA				JAIOLEKUA		
		LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Ikasten	39	52	11	56	25	41	24	30
Ikasten eta lanean	10	4	8	14	16	10	16	5
Ikasten (ikasten + ikasten eta lanean)	49	56	19	60	41	51	40	35
Lanean	41	31	67	24	51	39	46	54
Lanean (lanean + ikasten eta lanean)	51	35	75	38	67	49	62	59
Langabezian	8	9	11	5	5	8	10	5
Etxeko lanetan	2	3	1	1	1	1	4	6
Beste egoera batean	1	0	1	0	1	1	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	505	315	371	298	1.288	83	128

Gaur egun lanean ari direla dioten gazteen %51 horretaz gain, beste %21ek adierazi dute aurretiaz lanen bat izan dutela; horrenbestez, esan daiteke Euskadiko hamar gaztetik zazpi lan-esperientziaren bat badutela.

Portzentaje hori INJUVEk espainiar Estatuan 2006an¹⁰ bildutakoarekin bat dator: inkesta horretan, 15 eta 29 urte arteko gazte espainiarrek adierazi zuten ordaindutako lan bat zutela edo izana zutela.

Oro har, lan-esperientzia dutenen portzentajeak gora egiten du adinak gora egin ahala (25 urtetik gorakoetan portzentajea ia %100era heltzen da), eta handiagoa da lanbide heziketa edo goi-mailako ikasketak egin dituztenen, beren burua klase baxukotzat jotzen dutenen eta EAEtik kanpo jaio direnen artean (ikus 8. taula).

8. taula

GAZTERIAREN LAN-ESPERIENTZIA (EGUNGOA EDOTA IRAGANEKOA) ADINAREN,
KLASE SOZIALAREN, IKASKETA-MAILAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

GAZTERIAREN LAN-ESPERIENTZIA (EGUNGOA EDOTA IRAGANEKOA)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		15-19	20-24	25-29	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Egun lanean dago	51	11	57	78	60	50	43
Iraganean lan egin du	21	17	25	19	19	21	20
Ez du inoiz lan egin	28	72	18	3	21	28	37
Ed/Ee	0	1	0	0	0	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	192	1.180	110

(.../...)

¹⁰ Injuve: *Boletín Cifras jóvenes - Sondeo de opinión* [linean], EJ106 azterlana «Juventud y Empleo», Madril: Injuve, 2006, <<http://www.injuve.mtas.es/injuve/contenidos.item.action?id=381603492&menuId=1112484564>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 7a.]

(.../...)

	IKASKETA-MAILA				JAIOLEKUA		
	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Egun lanean dago	35	75	38	67	49	62	59
Iraganean lan egin du	20	18	26	18	21	20	18
Ez du inoiz lan egin	45	6	34	14	29	18	23
Ed/Ee	0	1	2	1	1	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	505	315	371	298	1.288	83	128

Baina, zer gertatzen da langabezia daudenekin eta etxeko lanetara emandako gazteekin? Langabezia daudela adierazi dutenen %89k aurrez lan egin dutela esan dute, eta beraz %11 bakarrik leudeke lehenengo lanaren bila.

Etxeko lanetan dihardutenen artean ere bi herenek (%66) aurrez lan egin izana adierazi dute.


Bi kasutan, profila lehen mailako ikasketak dituen eta bere burua klase sozial baxukotzat duen 25 eta 29 urte arteko gazte batena da. Ezaugarri horiei emakumea eta, neurri txikiagoan, atzerritarra izatea gehituz gero, etxeko lanetan dihardutenen profileraz dezente hurbilduko gara.

1.3. LAN-MERKATUAN SARTZEA ETA LANERAKO ORIENTABIDEA

Lanean dauden edo egon diren gazteei (%72), alegia lan-esperientzia dutenei, beren lehen enplegua nola lortu zuten galdetuta, emaitzek adierazten dute bide nagusiak lana beraiek zuzenean bilatzea (%41) eta familiarteko, lagun edo ezagunen bitartekaritza (%35) direla. %8k beka edo ikasketa-praktika baten ondorioz lortu zuten lehen lana, %7k aldi baterako laneko enpresa (ABLE) baten bitartez, eta dezente gutxiagok lan-poltsen bidez (%3) edo enplegu zerbitzu publikoen bidez (%2k INEM Espainiako Enplegu Institutuaren —INEM— bidez eta %1ek LANGAIren bidez) —ikus 1. grafikoa—.

1. grafikoa

GAZTEEK LEHENENGO LANA LORTZEKO MODUA (%)



Neskek mutilek baino neurri handiagoan lortu zuten lehen enplegua zuzenean beraiek bilatuta, eta mutilek neurri handiagoan familiarteko, lagun edo ezagunen baten bidez.

Arabian handiagoa da, gainerako lurraldeekin alderatuta, lehenengo lana ABLE baten bidez lortu dutenen portzentajea. Gipuzkoan, aldiz, handiagoa da lehenengo lana familiartekoen edo beste ezagun batzuen bidez lortu dutenen portzentajea.

Lehen mailako ikasketak dituztenek ere neurri handiagoan lortu dute aurreneko lan hori familiarteko eta lagun bidez. Lanbide Heziketako zein goi-mailako ikasketak dituzten artean, lehenengo enplegua nagusiki zuzenean bilatuta lortu duten arren, beste multzo batzuetan baino gehiago dira beken edo ikasketa-praktiken bitartez lortu dutenak.

Atzerrian jaio diren gazteak dira lehenengo enplegua neurri handiagoan familiarteko, lagun edo ezagunen bidez lortu dutenak (ikus 9. taula).

9. taula

LEHENENGO LANA LORTZEKO MODUA SEXUAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN,
IKASKETA-MAILAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«NOLA LORTU ZENUEN ZURE LEHENENGO LANA?»							
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	SEXUA		LURRALDEA		
			GIZONA	EMAKUMEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Zuzenean, neronek bilatuta	30	41	38	45	44	44	36
Familiarteko, lagun edo ezagun baten bidez	25	35	39	32	27	33	43
Beka baten edo ikasketa-praktiken ondorioz	6	8	8	9	10	7	10
ABLE baten bidez	5	7	8	5	11	6	6
Lan-poltsa baten bidez	2	3	2	5	2	5	2
INEMen bidez	2	2	2	2	4	2	2
LANGAIren bidez	1	1	2	1	1	2	1
Ed/Ee	1	1	1	2	0	1	2
Gainerakoak (ez dute lanik eta ez dute inoiz izan)	28	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536	281	421	372

(.../...)

(…/…)

	IKASKETA-MAILA				JAIOLEKUA		
	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Zuzenean, neronek bilatuta	36	42	43	46	42	40	41
Familiarteko, lagun edo ezagun baten bidez	47	29	38	27	34	33	49
Beka baten edo ikasketa-praktiken ondorioz	2	13	5	12	9	6	0
ABLE baten bidez	7	6	6	8	7	4	1
Lan-poltsa baten bidez	3	5	2	4	3	7	1
INEMen bidez	3	2	4	1	2	5	1
LANGAIren bidez	1	1	2	1	1	2	3
Ed/Ee	1	1	1	2	1	4	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	271	298	238	260	908	66	99

2004tik 2008ra ez da lana lortzeko moduetan aldaketa handirik nabaritu.

1.4. LAN-BALDINTZAK

Lan-merkatuan sartzea bezain auzi garrantzitsua da merkatu horrek zein baldintza eskaintzen dituen. *Gazteen argazkiak* sailaren 11. zenbakian (2007koa) argitara emandako datuen arabera, gazteen arazo pertsonal nagusia (%44k aipatua) langabezia eta lan-ezegonkortasuna da.

Horregatik, atal honetan gazteek lanpostuaren egonkortasunari, kontratu-motari, haren iraupenari, duten lanaldi-motari nahiz lanaren ezaugarriei buruzko galderei emandako erantzunak bilduko ditugu.

Horretarako, inkesta egiteko unean jardunean egon ez arren gaur egun lanean ari diren edo inoiz lan egin duten gazteak aintzat hartuko ditugu. Beraz, gazteen %72 hori izango dugu jomuga.

1.4.1. Egonkortasuna

Laneko egonkortasuna aztertzeko orduan, hiru alderdiri erreparatuko diogu: bizialdian zehar egindako lan ordainduen kopurua, azken lanaren iraupena eta kontratu-mota gaur egungo lanean nahiz izandako azken lanean.

1.4.1.1. Lan ordainduen kopurua

Lanen iraupena alde batera utzita, gazte euskaldunek batez beste 3,4 enplegu izan dituzte gaur egun duten lana eta aurrekoak kontuan hartuta (batez besteko hori altuagoa ere izan liteke; izan ere, kalkulu horretarako egindako galderan gazteei eskatu zaie esan dezatela zenbat lan ordaindu izan duten urtebetetik gorako iraupena izan dutenak, zenbat urtebete eta sei hilabete bitarte iraun dutenak eta zenbat sei hilabetetik behera iraun dutenak, baina mota bakoitzeko bost lan bakarrik zenbatu dira gehienez, eta zenbait gaztek aitortu dute iraupen ezberdineko bost enplegu baino gehiago izan dituztela; beraz, benetako batez bestekoa altuxeagoa izan liteke).

Informazio hori Euskadiko gazteria osora (lan egin duena eta ez duena) estrapolatuz gero, gazte euskaldun batek 2,4 enplegu izan ditu batez beste bere bizialdian.

Multzo ezberdinen lan-kopuruari begira, sexuaren arabera ez da alde nabarmenik antzeman, bai ordea adinaren arabera: adinak gora egin ahala, gora egiten du, halaber, gazteek lan-munduan izan duten enplegu-kopuruak ere. Gainera, gaur egun langabezia dauden baina aurrez lan egin duten gazteak dira beren bizitzan lan ordaindu gehien izan dutela adierazi dutenak (ikus 10. taula).

Kontratuaren iraupenari dagokionez, azpimarratzekoa da gaur egun lanean ari diren edo inoiz lan egin duten gazteen herenek (%35) adieraztea inoiz ez dutela izan urtebete baino gehiago iraun duen lan ordaindurik. Duela 50 urte, adibidez, horrelako zerbait pentsaezina zen; orduan enpresa baten eskutik lan-merkatuan sartzean, sarritan ibilbide profesional osoa enpresa horretan egingo zuen langileak. Gaur egun, ezegonkortasunaz gain beste faktore batzuk ere tartekatzen dira; esaterako, ikasketak luzatzean zenbait gaztek une edo aldi jakin batean (oporraldiak eta abar) aldi baterako lanak bilatzen dituzte dirua lortzeko, eta beste batzuek profesionalki hobetu nahi dute ez enpresa beraren baitan, baizik eta beste enpresa batzuetan, eta horregatik lanean egon arren beste enpresa batzuetan lan hobeak bilatzen dituzte (ikus 11. taula).

10. taula

LAN ORDAINDUEN BATEZ BESTEKOA SEXUAREN, ADINAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«ORDAINDUTAKO ZENBAT LAN IZAN DITUZU ZURE BIZITZAN?»								
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA			SEXUA			
					GIZONA		EMAKUMEA	
Batez bestekoa	2.4	3.4			3.4		3.3	
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074			538		536	
(.../...)							(.../...)	
	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
	15-19	20-24	25-29	IKASTEIA	LANA	IKASTEIA ETA LANA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK*
Batez bestekoa	1.9	2.9	4.1	2.4	3.6	3.1	4.2	3.5
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	178	620	155	96	17

* Jardun nagusia etxeko lanak egitea dutenen datuak tentuz hartu behar dira, oso pertsona gutxi direlako.

Nolanahi ere, 2004tik hona egoera aldatu egin da, orduan %43 baitziren inoiz lana eduki arren urtebete baino gehiago iraun zuen lan ordaindurik inoiz ez zutela izan adierazi zuten gazteak.

Joera hori nabarmenagoa da emakumeetan, eta bereziki 15 eta 19 urte arteko gazteetan; azken horiena, dena den, logikoa da, bizialdi laburragoa izatean urtebete baino gehiagoko lana edukitzeko ere denbora gutxiago izan baitute. Hein batean adinari loturik, urtebete baino gehiago iraun duen lanen bat eduki izana gutxien adierazi dutenak lehen eta bigarren mailako ikasketak dituzten gazteak izan dira (ikus 12. taula).

Alderantziz, lan-esperientziarik izan duten hamar gaztetik seik (%61) adierazi dute sei hilabetetik beherako lanen bat eduki dutela, eta %18k tankera horretako hiru lan edo gehiago.

11. taula
LAN ORDAINDUEN KOPURUA

«ORDAINDUTAKO ZENBAT LAN IZAN DITUZU ZURE BIZITZAN...		
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA
...urtebete baino gehiago iraun dutenak?»		
Bat ere ez	25	35
Bat	27	38
Bi	11	15
Hiru edo gehiago	9	12
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-
...sei hilabete eta urtebete artean iraun dutenak?»		
Bat ere ez	34	48
Bat	20	28
Bi	10	14
Hiru edo gehiago	7	10
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-
...sei hilabete baino gutxiago iraun dutenak?»		
Bat ere ez	28	39
Bat	21	29
Bi	10	14
Hiru edo gehiago	13	18
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074

Noizbehinkako lan horiek (bat, bi, hiru edo gehiago) eduki dituztela adierazi dutenen kopurua handiagoa da adinak behera egin ahala, eta handixeagoa ere bada bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak bukatu dituztenen artean.

12. taula

LAN ORDAINDUEN KOPURUA SEXUAREN, ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«ORDAINDUTAKO ZENBAT LAN IZAN DITUZU ZURE BIZITZAN...»				
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
...urtebete baino gehiago iraun dutenak?»				
Bat ere ez	25	35	32	37
Bat	27	38	39	37
Bi	11	15	16	15
Hiru edo gehiago	9	12	13	11
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
...sei hilabete eta urtebete artean iraun dutenak?»				
Bat ere ez	34	48	46	49
Bat	20	28	30	26
Bi	10	14	14	15
Hiru edo gehiago	7	10	10	11
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
...sei hilabete baino gutxiago iraun dutenak?»				
Bat ere ez	28	39	37	41
Bat	21	29	31	28
Bi	10	14	15	13
Hiru edo gehiago	13	18	18	18
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536

(../...)

(…/…)


	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
	15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
...urtebete baino gehiago iraun dutenak?»							
Bat ere ez	77	46	14	40	26	41	33
Bat	19	38	42	33	42	33	43
Bi	1	10	24	11	18	16	16
Hiru edo gehiago	3	5	21	16	14	10	8
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
...sei hilabete eta urtebete artean iraun dutenak?»							
Bat ere ez	72	50	40	50	42	53	46
Bat	24	29	28	26	32	26	26
Bi	3	13	18	12	14	14	17
Hiru edo gehiago	1	8	15	12	12	7	11
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
...sei hilabete baino gutxiago iraun dutenak?»							
Bat ere ez	22	36	45	43	41	32	38
Bat	49	31	23	29	31	35	23
Bi	18	14	12	14	11	16	15
Hiru edo gehiago	10	18	19	14	17	17	24
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	271	298	238	260

1.4.1.2. Azken lanaren iraupena

Bestalde, azken lanaren iraupenari erreparatuz, lanean ari diren edo inoiz lan egin duten gazteen erdiek adierazi dute azken lanak urtebete baino gutxiago iraun zuela, herenek urtebete eta hiru urte artean, eta soilik %16k adierazi dute azken lana hiru urte baino gehiago irauten ari zaiela edo iraun zuela (ikus 2. grafikoa).

2. grafikoa

AZKEN LANAREN IRAUPENA (%)



Azken lana hiru urte baino gehiago irauten ari zaiela edo iraun zuela dioten artean, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino. Adinak gora egin ahala, gehiago dira beren azken lanean hiru urte baino gehiago daramatela edo eman dutela diotenak, eta portzentaje horrek batez besteko orokorra (%16) bikoizten du (%30) 24 urte baino gehiago izanda lan-esperientzia dutenen artean.

Burututako ikasketen arabera, badirudi Lanbide Heziketa egin duten gazteak direla kontratu luzeenak lortzen dituztenak (ikus 13. taula).

13. taula

AZKEN LANAREN IRAUPENA SEXUAREN, ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«ZENBAT DENBORA DARAMAZU ORAINGO LANEAN (EDO ZENBAT DENBORA EGIN ZENUEN ZURE AZKEN LANEAN)?»				
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
Urtebete baino gutxiago	35	50	46	53
Urtebete eta hiru urte bitartean	23	32	31	32
Hiru urte baino gehiago	12	16	20	13
Ed/Ee	2	2	3	2
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536

(…/…)

(…/…)

	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
	15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOA	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Urtebete baino gutxiago	78	59	34	48	42	57	53
Urtebete eta hiru urte bitartean	17	32	34	34	36	25	31
Hiru urte baino gehiago	1	6	30	14	21	16	13
Ed/Ee	4	3	2	4	1	3	2
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	271	298	238	260

Kontratuen iraupenak izan duen bilakaerari dagokionez, 2004tik 2008ra jaitsi egin da lan-esperientzia duten eta azken lanaren iraupena urtebete baino gutxiagokoa izan dutenen gazteen portzentajea, eta hiru urtetik gorako iraupeneko kontratua dutenen edo zutenen portzentajea bere horretan mantentzen da. Nolanahi ere, 2004 eta 2008 urteetan lan-mugikortasuna 2000. urtean baino handiagoa da; izan ere, duela zortzi urte azken enpleguan hiru urte baino gehiago zeramatenak %24 ziren (ikus 14. taula).

14. taula

AZKEN LANAREN IRAUPENAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZENBAT DENBORA DARAMAZU ORAINGO LANEAN (EDO ZENBAT DENBORA EGIN ZENUEN ZURE AZKEN LANEAN)?»			
	2000	2004	2008
Urtebete baino gutxiago	40	55	50
Urtebete eta hiru urte bitartean	36	27	32
Hiru urte baino gehiago	24	16	16
Ed/Ee	0	2	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	728	1.004	1.074

n = lan-esperientzia duten gazteak: lanean daude edo aurrez inoiz lan egindakoak dira.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

1.4.1.3. Kontratu-mota azken lanean

Gazteek egun duten edo —orain lanean ari ez direnentzat— azkena izan duten lanaren kontratu-baldintzei dagokienez, lan-esperientzia duten gazteen erdiek (%51) adierazi dute lan horretan aldi baterako kontratua dutela edo zutela, herenek (%32) kontratu mugagabea eta %9k kontraturik gabe lan egiten dute edo zuten. %7 autonomoak dira edo ziren.

Kontratu mugagabea duten gazteak gutxienak dira, eta 2000n, 2004an eta 2008an portzentajea apenas aldatu da (lan-esperientzia dutenen %35, %31 eta %32, hurrenez hurren) —ikus 3. grafikoa—.


Gizonezkoek emakumezkoek baino mugagabeko kontratu gehiago dituzte (azken lanean). Emakumeen artean, beren azken lanean kontraturik gabe lan egiten ari direnen edo lan egin zutenen portzentajea gizonezkoena halako bi da.

Adinean gora egin ahala gora egiten du, halaber, mugagabeko kontratuekin lan egiten ari diren edo lan egin izan duten gazteen portzentajeak, eta baita, neurri txikiagoan bada ere, autonomoen kopuruak ere; aldiz, kontraturik gabe lan egiten dutenen portzentajea izugarri jaisten da (15 eta 19 urte arteko gazteen ia herenak kontraturik gabe lan egiten ari dira edo lan egin dute azken lanean).

Kontratu mugagabeaz gehien lan egiten duten (edo azken lanean egin zuten) gazteak Lanbide Heziketa ikasitakoak dira (ikus 15. taula).

3. grafikoa

KONTRATU-MOTA AZKEN LANEAN (%)



15. taula

KONTRATU-MOTA AZKEN LANEAN SEXUAREN, ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«NOLAKO LAN-BALDINTZAK DITUZU EDO ZENITUEN?»				
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
Kontratu mugagabea	23	32	35	30
Aldi baterako kontratua	36	51	50	51
Autonomoa zara/zinen, zeure kontura lan egiten duzu/zenuen	5	7	8	5
Kontraturik gabe	6	9	6	12
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536

(.../...)

(…/…)

	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
	15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Kontratu mugagabea	9	25	45	26	43	26	32
Aldi baterako kontratua	57	60	40	49	45	56	54
Autonomoa zara/zinen, zeure kontura lan egiten duzu/zenuen	0	4	11	9	6	5	6
Kontraturik gabe	31	9	4	14	5	11	6
Ed/Ee	4	2	1	2	1	1	2
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	271	298	238	260

Baina analisirik interesgarriena gazteen egungo lan-egoerak eskaintzen du:

- Gaur egun lanean –soilik lanean– ari direnen artean, ia kontratu mugagabea dutenak (%44) bezainbeste dira aldi baterako kontratua dutenak (%41). Gainera, gazte horien %10ek autonomoak direla eta gainerako %4k kontraturik gabe lan egiten dutela adierazi dute.
- Gaur egun lana eta ikasketak uztartzen ari direnen artean, laurdenek (%23) diote kontraturik gabe ari direla lanean.
- Eta gaur egun lanean ari ez direnen baina aurretik lan egin dutenen artean, nabarmentzekoa da %13k Kontratu mugagabea zutela azken lanean. Bestalde, horietako gehienek aldi baterako kontratua zuten, gainerako taldeek baino proportzio handiagoan gainera (ikus 16. taula).

Gaur egun soilik lanean ari diren soldatapeko gazteei erreparatzen badiegu (hau da, lana eta ikasketak uztartzen dituztenak albo utzita), eta horien datuak gaur egun soldatapekoak

ere diren 29 urtetik gorakoekin datuekin alderatzen baditugu, kontratu mugagabeen kopuruari dagokionez bien artean dagoen aldearen handiaz ohartuko gara¹¹ (ikus 4. grafikoa).

16. taula

KONTRATU-MOTA AZKEN LANEAN GAUR EGUNGO LAN-EGOERAREN ARABERA


«NOLAKO LAN-BALDINTZAK DITUZU EDO ZENITUEN?»					
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	LAN-EGOERA		
			LANEAN	IKASTEN ETA LANEAN	EZ DAGO LANEAN BAINA LAN EGIN DU
Kontratu mugagabea	23	32	44	22	13
Aldi baterako kontratua	36	51	41	52	69
Autonomoa zara/zinen, zeure kontura lan egiten duzu/zenuen	5	7	10	2	2
Kontraturik gabe	6	9	4	23	12
Ed/Ee	1	1	0	1	4
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	620	155	299

¹¹ Hala ere, adierazi beharra dago 29 urtetik gorako soldatapekoei buruzko datuak aztertzean ez direla famliako negozioetan lanean ari diren pertsonen datuak barne hartu; gazteriari buruzko datuetan, berriz, baliteke horrelako langilerik egotea. Dena den, horrek ez luke azalduko gazteen eta helduagoen artean mugagabeko kontratuei dagokienez dagoen alde itzela (Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza: *Sindikalgintzari buruzko iritzia* [linean], 2008-01, <http://www.euskadi.net/r33-2695/es/contenidos/informe_estudio/o_07sv35_sindi/es_07sv35si/adjuntos/07sv35sindi.pdf>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 18a.]

4. grafikoa

SOLDATAPEKO GAZTEEN GAUR EGUNGO KONTRATU-MOTA 30 URTE ETA GEHIAGOKO EAE-KO BIZTANLERIAREKIN ALDERATUTA (%)

«NOLAKO LAN-BALDINTZAK DITUZU?»



n = orain soldatapekoa den biztanleria.

1.4.2. Lanaldia

Gaur egun lanean ari diren edo aurrez —beren azken lanean— lan egin duten hamar gaztetik ia zazpi lanaldi osoan aritu dira.

Hamarretik hiru, berriz, lanaldi laburrean ari dira edo aritu izan dira.

Emakumeek gizonak baino dezente gehiago lan egiten dute edo zuten lanaldi laburrean (lanaldi-mota horretan jarduten duten emakumezko gazteen portzentajeak gizonazko gazteena bikoizten du).

Lanaldi laburra ugariagoa da gazteen artean (15 eta 19 urte arteko gazteen ia erdiak —zehazki %58— lanaldi laburrean ari dira edo aritu izan dira beren azken lanean), eta adinak gora egin ahala urrituz doa.

Ikasketak eta lana uztartzen dituztenak dira lanaldi laburrean gehien jarduten direnak (%68, zehazki). Aldiz, soilik lanean ari diren gehien-gehienek (%82) lanaldi osoa dute (ikus 17. taula).

17. taula

LANALDIA AZKEN LANEAN SEXUAREN, ADINAREN ETA LAN-EGOERAREN ARABERA

«LAN HAU LANALDI OSOKOA ALA LABURREKOA DA (EDO ZEN)?»				
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
Lanaldi osokoa	49	69	79	59
Lanaldi laburrekoa	22	30	20	41
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536

(…/…)

(…/…)

	ADIN-TALDEAK			LAN-EGOERA		
	15-19	20-24	25-29	LANEAN	IKASTEN ETA LANEAN	EZ DAGO LANEAN BAINA LAN EGIN DU
Lanaldi osokoa	41	63	81	82	31	62
Lanaldi laburrekoa	58	35	19	18	68	36
Ed/Ee	1	2	0	0	1	2
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	620	155	299

2004. urtearekin alderatuta, beren azken lanean lanaldi osoz ari direnen edo zirenen portzentajea apur bat igo da. Hazkunde hori apenas nabari da gizonezkoetan, bai ordea emakumezkoetan (ikus 18. taula).

18. taula

LANALDI-MOTAREN BILAKAERA AZKEN LANEAN SEXUAREN ARABERA (2004-2008)

«LAN HAU LANALDI OSOKOA ALA LABURREKOA DA (EDO ZEN)?»						
	2004			2008		
	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
Lanaldi osokoa	65	78	53	69	79	59
Lanaldi laburrekoa	33	21	45	30	20	41
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1
Portzentajea guztira	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.004	504	500	1.074	538	536

n = lan-esperientzia duten gazteak: lanean daude edo aurrez inoiz lan egindakoak dira.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

1.4.3. Azken lanaren ezaugarriak

Gazteek diotenez, beren egungo lana (edo azkenekoa, gaur egun lanean ari ez diren baina aurrez lan egin dutenen kasuan) ondoen definitzen duten ezaugarriak hauek dira: interesgarria, errepikakorra, kualifikatua, egonkorra eta arrisku txiki edo gabekoa.

Beren egungo lanak edo egindako azkenak proposatutako ezaugarrietako bakoitza neurri handi edo dezentekoan islatzen duela uste dutenen datuak gehituz, jarraian doan analisisa egingo da taldeka:

- Gizonezko gazteek emakumezko gazteek baino neurri handiagoan adierazten dute beren lana arriskutsua dela, eta baita egonkorra dela eta ongi ordaindua dagoela.
- Adinak gora egin ahala, gora egiten du, era berean, beren lanak (oraingoak edo aurrekoak) interesgarriak, kualifikatuak, egonkorak, etorkizundunak, beren prestakuntzari lotuak nahiz estresagarri eta arriskutsuak direla edo zirela diotenen portzentajeak, eta behera lan errepikakorrak direla edo zirela diotenena.
- Lanbide Heziketa edo goi-mailako ikasketak egin dituztenak dira beren egungo lanak interesgarriak, kualifikatuak, beren prestakuntzari lotuak eta etorkizundunak direla gehien adierazten dutenak. Gainera, Lanbide Heziketa ikasi duten gazteak dira beren lanak egonkorak direla gehien adierazten dutenak. Aldiz, soilik lehen ikasketak

burutu dituztenak dira beren azken lanak errepikakorrak eta arriskutsuak izateaz gehien kexatzen direnak (nolanahi ere, arriskutsuak direla diotenak gutxienak dira) —ikus 19. taula—.

19. taula

AZKEN LANAREN IRAUPENA SEXUAREN, ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«NOLAKOA DA ZURE GAUR EGUNGO LANA (EDO EGIN ZENUEN AZKENA) ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ? ZURE IRITZIZ, LANA DA/ZEN OSO, NAHIKOA, PIXKA BAT EDO BATERE EZ...				
	GAZTEAK GUZTIRA	LAN ESPERIENTZIADUN GAZTEAK GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
...interesgarria?»				
Oso + Nahikoa	48	67	65	70
Pixka bat + Batere ez	23	32	34	29
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
...errepikakorra?»				
Oso + Nahikoa	45	63	61	65
Pixka bat + Batere ez	26	36	38	35
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
...kualifikatua?»				
Oso + Nahikoa	42	59	60	58
Pixka bat + Batere ez	28	40	39	41
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
...egonkorra?»				
Oso + Nahikoa	41	57	60	55
Pixka bat + Batere ez	29	40	38	43
Ed/Ee	2	3	2	3
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-

(.../...)

(…/…)

…etorkizunduna?»				
Oso + Nahikoa	37	52	54	50
Pixka bat + Batere ez	32	44	44	45
Ed/Ee	3	4	2	5
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
…ongi ordaindua?»				
Oso + Nahikoa	33	46	50	42
Pixka bat + Batere ez	38	53	48	57
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
…estresagarria?»				
Oso + Nahikoa	31	43	39	46
Pixka bat + Batere ez	40	57	60	54
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
…zure prestakuntzari lotua?»				
Oso + Nahikoa	29	41	41	41
Pixka bat + Batere ez	41	58	57	58
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
…arriskutsua?»				
Oso + Nahikoa	15	20	31	10
Pixka bat + Batere ez	56	78	68	89
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	28	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.074	538	536

(…/…)

(…/…)

	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
	15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
…interesgarria?»							
Oso + Nahikoa	58	63	74	56	75	59	79
Pixka bat + Batere ez	42	36	26	43	25	40	20
Ed/Ee	0	1	1	1	0	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
…errepikakorra?»							
Oso + Nahikoa	73	66	58	73	62	65	51
Pixka bat + Batere ez	26	33	42	25	37	34	49
Ed/Ee	1	1	0	1	1	1	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
…kualifikatua?»							
Oso + Nahikoa	35	56	68	48	69	45	73
Pixka bat + Batere ez	62	43	31	50	31	52	26
Ed/Ee	3	1	1	2	1	2	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
…egonkorra?»							
Oso + Nahikoa	41	53	65	51	71	50	55
Pixka bat + Batere ez	55	45	32	46	27	48	41
Ed/Ee	4	2	3	2	2	2	4
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
…etorkizunduna?»							
Oso + Nahikoa	29	47	62	44	65	36	62
Pixka bat + Batere ez	67	49	35	54	33	61	31
Ed/Ee	3	4	3	2	2	4	7
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-

(…/…)

(…/…)

...ongi ordaindua?»							
Oso + Nahikoa	49	42	49	45	45	45	49
Pixka bat + Batere ez	47	57	50	53	55	53	50
Ed/Ee	4	1	1	2	0	3	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
...estresagarria?»							
Oso + Nahikoa	36	41	46	45	38	44	43
Pixka bat + Batere ez	64	58	53	53	62	55	56
Ed/Ee	0	1	1	1	0	2	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
...zure prestakuntzari lotua?»							
Oso + Nahikoa	18	37	51	24	56	25	59
Pixka bat + Batere ez	81	61	48	74	44	73	40
Ed/Ee	1	1	1	2	0	2	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
...arriskutsua?»							
Oso + Nahikoa	14	20	22	31	22	16	11
Pixka bat + Batere ez	84	79	77	66	78	82	88
Ed/Ee	2	1	1	2	0	2	1
Gainerakoak (lan-esperientziarik gabeak)	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	111	478	485	271	298	238	260

2004. urtearekin alderatuta, pixka bat igo da, lanean ari diren edo aurrez lan egin duten gazteen artean, beren lana interesgarria, egonkorra, estresagarria eta arriskutsua dela dioten portzentajea, eta ongi ordaindutako lanak direla diotenena, berriz, jaitsi egin da. Gainerako ezaugarriei (kualifikatua, errepikakorra, etorkizunduna edo prestakuntzari lotua) begira ez da alderik antzeman (ikus 20. taula).

20. taula

AZKEN LANARI ATXIKITAKO EZAUGARRIEN BILAKAERA (2004-2008)

«NOLAKOA DA ZURE GAUR EGUNGO LANA (EDO EGIN ZENUEN AZKENA) ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ ZURE IRITZIZ, LANA DA/ZEN OSO, NAHIKOA, PIXKA BAT EDO BATERE EZ...	2004	2008
...interesgarria?»		
Oso + Nahikoa	60	67
Pixka bat + Batere ez	38	32
Ed/Ee	2	1
...errepikakorra?»		
Oso + Nahikoa	61	63
Pixka bat + Batere ez	37	36
Ed/Ee	2	1
...kualifikatua?»		
Oso + Nahikoa	58	59
Pixka bat + Batere ez	40	40
Ed/Ee	2	1
...egonkorra?»		
Oso + Nahikoa	54	57
Pixka bat + Batere ez	44	40
Ed/Ee	2	3
...etorkizunduna?»		
Oso + Nahikoa	52	52
Pixka bat + Batere ez	45	44
Ed/Ee	3	4
...ongi ordaindua?»		
Oso + Nahikoa	51	46
Pixka bat + Batere ez	47	53
Ed/Ee	2	1

(../..)

(…/…)

…estresagarria?»		
Oso + Nahikoa	37	43
Pixka bat + Batere ez	62	57
Ed/Ee	2	1
…zure prestakuntzari lotua?»		
Oso + Nahikoa	41	41
Pixka bat + Batere ez	56	58
Ed/Ee	2	1
…arriskutsua?»		
Oso + Nahikoa	15	20
Pixka bat + Batere ez	84	78
Ed/Ee	2	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.004	1.074

n = lan-esperientzia duten gazteak: lanean daude edo aurrez inoiz lan egindakoak dira.


Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

Edonola ere, eta orain lanean ari direnei bakarrik erreparatuz, egungo lanarekiko satisfazioa ez da orokorra: gaur egun lanean ari diren gazteen %45ek uste dute bila zebiltzan lana daukatela, eta %48k, aldiz, ahal izanez gero lanez aldatuko liratekeela adierazi dute (ikus 5. grafikoa).

Gaur egungo lanarekiko satisfaziorik handiena ageri dutenak 25 eta 29 urte arteko gazteak eta Lanbide Heziketa edo goi-mailako ikasketak egin dituztenak dira. Soilik lanean ari direnek ere lana eta ikasketak uztartzen dituztenek baino satisfazio handiagoa ageri dute. Azkenik, EAEn jaiotakoak Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotakoak baino gusturago daude beren lanarekin, eta azken horiek atzerrian jaiotakoak baino gusturago (ikus 21. taula).

5. grafikoa

GAUR EGUNGO LANAREKIKO SATISFAZIOA (%)



21. taula

GAUR EGUNGO LANAREKIKO SATISFAZIOA SEXUAREN, ADINAREN, IKASKETA-MAILAREN, LAN-EGOERAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«GAUR EGUN DUZUN LANA, BILA ZENBILTZANA DELA ESANGO ZENUKE, EDO AHAL BAZENU LANEZ ALDATUKO ZINATEKE?»				
	GAZTEAK GUZTIRA	ORAIN LANEAN DAUDENAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
Bila zenbiltzan lana daukazu	23	45	45	46
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	25	48	49	47
Ed/Ee	3	7	6	7
Gainerakoak (orain ez daude lanean)	49	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	775	391	384

(.../...)

(../...)

	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
	15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Bila zenbiltzan lana daukazu	41	37	52	37	51	31	57
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	49	55	42	58	43	64	35
Ed/Ee	10	8	6	5	6	5	9
Gainerakoak (orain ez daude lanean)	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	44	338	393	176	245	144	205

(../...)

(../...)

	LAN-EGOERA			JAIOLEKUA	
	LANEAN	IKASTEN ETA LANEAN	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Bila zenbiltzan lana daukazu	48	33	47	40	29
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	46	58	45	57	68
Ed/Ee	6	9	7	3	3
Gainerakoak (orain ez daude lanean)	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	620	155	650	48	76

Laneko satisfazioa lan-baldintzekin estuki loturik dago. Orain lanean ari direnen artean, beren egungo lanarekin satisfaziorik handiena agertzen dutenak bertan hiru urte baino gehiago daramatenak dira (akaso horrexegatik daramate hainbeste denbora lan horretan); izan ere, lanpostuan antzintasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da aitortutako satisfazioa.

Autonomo eta enpresariak, eta horien atzetik kontratu mugagabea dutenak, gusturago ageri dira beren lanarekin aldi baterako kontratua dutenak eta kontraturik gabe lan egiten dutenak baino. Azkenik, lanaldi osoan diharduten gazteak gusturago daude lanaldi laburrean dihardutenak baino (ikus 22. taula).

22. taula

GAUR EGUN LANAREKIKO SATISFAZIOA LAN-BALDINTZEN ARABERA
(ANTZINATASUNA, KONTRATU-MOTA ETA LANALDI-MOTA)

«GAUR EGUN DUZUN LANA, BILA ZENBILTZANA DELA ESANGO ZENUKE, EDO AHAL BAZENU LANEZ ALDATUKO ZINATEKE?»					
	GAZTEAK GUZTIRA	ORAIN LANEAN DAUDENAK GUZTIRA	ANTZINATASUNA ORAINGO LANEAN		
			URTEBETE BAINO GUTXIAGO	1 ETA 3 URTE ARTEAN	3 URTE BAINO GEHIAGO
Bila zenbiltzan lana daukazu	23	45	39	43	61
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	25	48	53	49	36
Ed/Ee	3	7	8	8	3
Gainerakoak (orain ez dago lanean)	49	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	775	326	284	161

(.../...)

(.../...)

	KONTRATU-MOTA				LANALDI-MOTA	
	MUGAGABEA	ALDI BATERAKOA	AUTONOMOA	KONTRATURIK GABE	OSOA	LABURRA
Bila zenbiltzan lana daukazu	53	37	72	25	51	30
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	41	57	25	65	43	62
Ed/Ee	7	6	4	10	6	8
Gainerakoak (orain ez dago lanean)	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	313	338	66	55	559	213

2004. urtearekin alderatuta, kopuruetan alde handirik ez da eman, baina emakumeen artean gaur egun duten lanarekiko satisfazioa hazi da (ikus 23. taula).

23. taula

GAUR EGUNGO LANAREKIKO SATISFAZIOAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA (2004-2008)

«GAUR EGUN DUZUN LANA, BILA ZENBILTZANA DELA ESANGO ZENUKE, EDO AHAL BAZENU LANEZ ALDATUKO ZINATEKE?»	2004			2008		
	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
	Bila zenbiltzan lana daukazu	44	46	41	46	45
Ahal bazenu lanez aldatuko zinateke	50	48	53	49	50	48
Ed/Ee	6	7	6	5	5	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	703	355	348	775	391	384

n = gaur egun lanean ari diren gazteak.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

1.4.4. Gazteriaren lan-baldintzak

Aurreko informazioa laburbiltzeko eta talde bereziak agertuko dituen gazteriaren nolabaiteko lan-kategoria bat ezartzeko, azpiatal honetan Korrespondentzia Bitarren Faktore Analisi bat egin da, datu agregatuen fitxategi batetik abiatuta¹². Horretarako, lan-baldintzei buruzko atal orokor honetan erabilitako aldagaiak baliatu dira (kontratu-mota, lanaldi-mota eta gaur egungo lanaren edo azkena egindako lanaren ezaugarriak), eta baita aldagai soziodemografikoak ere, hala nola sexua, adina, jaiolekua, klase soziala edo hilabeteko diru-eskuragarritasuna.

¹² Faktore-analisia aldagaien artean hautemandako aldeak azaltzeko asmoz hainbat aldagai faktore-kopuru txikiago batean multzokatzen dituen teknika estatistikoa da.


Behin analisia eginda, ikusi da lehen faktoreak bariantzaren %65a azaltzen duela, eta gainerako faktoreak ez direla analisirako esanguratsuak. Faktore horretan zehar linealki irudikatutako aldagai ezberdinen pisuak «lan-baldintzak» dei litezke, eta faktorea baldintza oso onen eta eskasen arteko continuum batean mugitzen da.

Analisiaren arabera, lan-mota ezberdinak dituzten gazteen bi multzo bereiz daitezke:

- Grafikoaren goiko aldean, lan-baldintza «oso onen esparruan alegia, gazte autonomoak, profesional liberalak edo enpresariak nahiz kontratu mugagabedun soldatapekoak ditugu; horiek lanaldi osoan dihardute, 900 eurotik gorako hilabeteko diru-eskuragarritasuna dute, eta lan egonkorak, kualifikatuak, prestakuntzari lotuak eta etorkizundunak. Multzo horretan 25 eta 29 urte arteko gazteak eta EAEn jaiotakoak daude.
- Grafikoaren beheko aldean, alegia baldintza «eskasen esparruan, 300 eurotik beherako hilabeteko diru-eskuragarritasuna duten gazteak —60 eurokoa izatera ere hel daiteke—, kontraturik gabe lan egiten dutenak eta lan errepikakor eta estresagarriak dituztenak daude. Multzo horretan gazteenak (15-19 urte) eta ondoren 20 eta 24 urte artekoak nahiz atzerrian jaiotakoak daude (ikus 6. grafikoa).

6. grafikoa

GAZTERIAREN LAN-BALDINTZAK



1.5. LAN IDEALAREN EZAUGARRIAK

Behin gazteriak egiten duen lanaren ezaugarriak aztertuta, gazteen ustez lan idealak izan beharko lituzkeen ezaugarriak zeintzuk diren azalduko dugu.

Horretarako, gazteei ezaugarrien zerrenda bat aurkeztu zaie, eta garrantzitsuenak jotzen dituztenak aukera ditzatela eskatu.

Lehenik eta behin, gazteek soldata nabarmentzen dute (%59k aipatua). Hain zuzen ere, multzo guztiek gehien aipatu duten ezaugarria da, goi-mailako ikasketak dituztenen multzoak izan ezik (azken horiek lanean giro ona egotea lehenetsi dute).

Lan ideala ongi ordaindutakoa den kontzeptu hori errotuago dago gizonengan emakumeengan baino. Gazteenek (15-19 urte), lehen mailako ikasketak egin dituztenek, jardun nagusia etxeko lanak dituztenek eta beren burua klase sozial baxukotzat dutenek ere gehien aipatzen duten ezaugarria da.

Gazteek lan idealaren bereizgarri gisa gehien aipatu dituzten hurrengo ezaugarriak lan-egonkortasuna eta laneko giro ona dira, biak ala biak gazteen %42k aipatuak.

Egonkortasuna bereziki estimatzen dute langabezia daudenek, klase baxukoek eta EAetik kanpo jaio direnek. 19 urtetik gorakoek ere gazteagoek baino maizago aipatzen dute.

Laneko giro ona gehiago hobesten dute 20 urte edo gehiago dituztenek, Lanbide Heziketa edo goi-mailako ikasketak egin dituztenek, beren burua klase sozial ertain edo altukotzat dutenek eta EAEn jaio direnek.

Soldataren, egonkortasunaren eta laneko giro onaren ondoren, gazteentzat itxura batean hain garrantzitsuak ez diren beste ezaugarri batzuk ageri dira, hala nola aisiaz gozatu ahal izateko ordutegi eta egutegi ona (%28k aipatua), ibilbide profesional emankorra garatzeko aukera (%12), nork bere ideiak garatu ahal izateko autonomia eta aukerak izatea (%10), lanpostua etxetik hurbil egotea (%3) edo egin beharrekoa zehatz-mehatz adierazten dizuten lana izatea (%1).

Klase altu eta ertaineko gazteak dira laneko ordutegi eta egutegi ona izateari garrantzi handiena ematen diotenak. Goi-mailako ikasketak dituztenek eta atzerrian jaiotakoek gainerakoek baino gehiago aipatzen dute ibilbide profesionala garatu ahal izatearen garrantzia. Goi-mailako ikasketak dituztenak dira, halaber, lanean beren ideiak garatu ahal izateko autonomia edukitzeari garrantzi handiena ematen diotenak. Azkenik, lana hurbil egoteari eta egin beharrekoa zehatz-mehatz adierazteari garrantzi handiena ematen diotenak jardun nagusia etxeko lanak dituztenak dira. Atzerrian jaiotakoek ere azken ezaugarri hori batez bestekoaren gainetik aipatzen dute (ikus 24. taula).

24. taula

LAN IDEALAREN EZAUGARRIAK SEXUAREN, ADINAREN, KLASE SOZIALAREN,
IKASKETA-MAILAREN, JARDUN NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZURE IRITZIZ, LAN IDEALAK ZEIN EZAUGARRI IZAN BEHARKO LITUZKE?»*						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Soldata ona	59	64	54	64	58	56
Lan-egonkortasuna	42	41	44	33	45	48
Laneko giro ona	42	41	43	37	45	43
Aisiaz gozatzeko ordutegi eta egutegi ona	28	28	28	30	27	28
Ibilbide profesionala garatu edo mailaz igo ahal izatea	12	11	13	14	11	12
Autonomia, neure ideiak garatzeko aukera	10	9	12	11	9	10
Etiket hurbil egotea	3	4	2	4	2	2
Egin beharrekoa esango didaten lan bat	1	1	1	2	1	1
Beste ezaugarri batzuk	1	1	1	2	1	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(.../...)

(…/…)

	KLASE SOZIALA			IKASKETA-MAILA			
	BAXUA	ERTAINA	ALTUA	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Soldata ona	68	57	58	67	58	60	45
Lan-egonkortasuna	53	41	37	40	43	44	45
Laneko giro ona	32	44	45	36	48	40	48
Aisiaz gozatzeko ordutegi eta egutegi ona	17	30	28	27	28	30	29
Ibilbide profesionala garatu edo mailaz igo ahal izatea	11	12	15	12	8	13	16
Autonomia, neure ideiak garatzeko aukera	12	10	13	8	8	10	16
Etiket hurbil egotea	2	3	0	3	4	3	1
Egin beharrekoa esango didaten lan bat	1	1	1	3	1	0	0
Beste ezaugarri batzuk	2	1	0	3	0	0	0
Ed/Ee	0	0	1	0	0	0	0
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	192	1.180	110	505	315	371	298

(…/…)

(…/…)

	JARDUN NAGUSIA				
	IKASTEIA	LAN EGITEA	IKASTEIA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIA	ETXEKO LANAK
Soldata ona	61	56	59	60	71
Lan-egonkortasuna	38	46	38	53	46
Laneko giro ona	41	43	43	41	30
Aisiaz gozatzeko ordutegi eta egutegi ona	27	30	30	21	25
Ibilbide profesionala garatu edo mailaz igo ahal izatea	14	11	13	11	5
Autonomia, neure ideiak garatzeko aukera	11	10	12	8	0
Etiket hurbil egotea	3	2	3	3	8
Egin beharrekoa esango didaten lan bat	2	1	1	2	10
Beste ezaugarri batzuk	2	0	0	1	2
Ed/Ee	0	0	0	0	0
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	582	620	155	108	25

(…/…)

(.../...)

	JAIOLEKUA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Soldata ona	58	61	63
Lan-egonkortasuna	41	51	56
Laneko giro ona	45	32	24
Aisiaz gozatzeko ordutegi eta egutegi ona	29	25	21
Ibilbide profesionala garatu edo mailaz igo ahal izatea	12	11	19
Autonomia, neure ideiak garatzeko aukera	10	9	9
Etiket hurbil egotea	3	4	0
Egin beharrekoa esango didaten lan bat	1	2	5
Beste ezaugarri batzuk	1	4	2
Ed/Ee	0	0	0
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128

* Portzentajeen baturak ez du %100 egiten, gazte bakoitzak gehienez ere bi erantzun eman baitzitzakeen.

Bestalde, datu hauek duela hamar urte bilduetakoekin alderatzen baditugu, ohartuko gara gaur egungo gazteriak lehen baino garrantzi handiagoa ematen diola soldatari, eta txikiagoa egonkortasunari edo laneko giroari (ikus 7. grafikoa).

7. grafikoa

LAN IDEALAREN EZAUGARRIEN BILAKAERA (1997-2008) (%)

«ZEIN EZAUGARRI IZAN BEHARKO LITUZKE LAN IDEALAK?»*



* Portzentajeen baturak ez du %100 egiten, gazte bakoitzak gehienez ere bi erantzun eman baitzitezkeen.

Iturria: *Gazteen argazkiak 2* (1997).

Lehentasunen aldaketa hori azaltzeko hipotesi bat une batean eta bestean bizitako egoera izan daiteke; horrenbestez, garai jakin batean larritasunez bizitako gabeziak edo arazoak izango dira beharrezkotzat jotzen direnak. Arrazoibide horri jarraituz, esan daiteke gaur egungo

langabezia-tasa duela hamar urtekoa baino baxuagoa dela, eta beraz, lana egonkorra ez izan arren, pentsa liteke beste lan bat lortzea ez dela hain zaila izango. Bestalde, gaur egun prezioak etengabe igotzen ari dira eta bizitza gero eta garestiago dago (batik bat 2002an euroan sartzeaz geroztik), eta horregatik jendeak hautematen du soldata bera jaitsi ez bada ere erosteko ahalmenak behera egin duela. Horrek azal lezake zergatik gazteek 2008an 1997an baino garrantzi handiagoa ematen dioten soldadari eta txikiagoa egonkortasunari.

1997ko urte horrekiko pixka bat jaitsi egin da, baita ere, beren ideiak garatzeko autonomiaren premia aipatzen dutenen portzentajea, eta zertxobait igo laneko ordutegia eta egutegia aipatzen dutenena.

1.6. AUTOENPLEGUAREKIKO JARRERAK

Gazteei autoenpleguaren aukerari buruz galdetuta, gehienek (%62) diote ez dutela horretan pentsatu ere egin, %9k diote horretan inoiz pentsatu ez badute ere etorkizunean beharrezko aukera izan daitekeela; bestalde, %13k adierazi dute horretan pentsatu duela baina ideia baztertu egin dutela, %10ek aukera benetan aztertzen ari direla, eta %4k gaur egun jada autonomoak, profesional liberalak edo enpresariak direla¹³.


Lau urtetik hona, autonomoak direnen edo aukera hori benetan aztertzen ari direnen portzentajea igo egin da, oso gutxi bada ere, eta aukera horretan pentsatu ez dutenen portzentajea jaitsi egin da (ikus 8. grafikoa).

¹³ Datu hauek azken laneko kontratu-mota adieraztean jasotakoekin alderatzen baditugu, ohartuko gara orduan %5 zirela autonomo gisa definitzen ziren gazteak. Izan ere, aipatu galdera azken kontratuari buruzkoa zen, une horretan lanean egon ala ez; galdera honetan, ostera, erantzuna oraingo egoerari buruzkoa da, eta beraz, logikoa denez, autonomoen portzentajeak, berdina ez bada, txikiagoa behar du izan.

8. grafikoa

AUTOENPLEGURAKO PRESTUTASUNAREN BILAKAERA (2004-2008) (%)

«INOIZ PENTSATU DUZU ZUK ZEUK ZURE LANPOSTUA SORTZEA, LANGILE AUTONOMO, PROFESIONAL LIBERAL EDO ENPRESARI TXIKI BIHURTZEA?»



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

Lanean ari diren gazteei erreparatuz gero, soilik lanean ari direnen artean %9 dira autonomo, profesional liberal edo enpresari¹⁴, eta lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean, berriz, autonomoen portzentajea %2koa da.

Bestalde, langabezian daudenen %17k eta jardun nagusia etxeko lanak dituztenen %15ek autonomo izateko aukeran pentsatu dute baina baztertu egin dute. Jardun nagusia etxeko lanak dituztenen %16 autonomo izateko aukera benetan aztertzen ari dira.

¹⁴ Gaur egun soilik lanean ari diren gazteen artean, %9k adierazi dute autonomoak direla. Azken laneko kontratu-motari buruzko 1.4.1.3 atalean, gaur egun soilik lanean ari diren gazteen %10ek adierazi zuten autonomoak zirela. Bi datuen artean puntu bateko aldea badago, oraingoan zenbait autonomok galderari erantzun ez diotelako edo beren egoera birplanteatzen ari direla adierazi dutelako da.

Adinak gora egin ahala igo egiten da, era berean, autoenpleguaren aukeran pentsatu duten gazteen kopurua: batzuk jada autonomoak dira, beste batzuk aukera hori benetan aztertzen ari dira, eta beste batzuek ideia aztertu ondoren baztertu egin dute (ikus 25. taula).

25. taula

AUTOENPLEGURAKO PRESTUTASUNA ADINAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

	«INOIZ PENSATU DUZU ZUK ZEUK ZURE LANPOSTUA SORTZEA, LANGILE AUTONOMO, PROFESIONAL LIBERAL EDO ENPRESARI TXIKI BIHURTZEA?»									
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA					
		15- 19	20- 24	25- 29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIA	ETXEKO LANAK	
Ez duzu inoiz pentsatu	62	74	60	54	70	54	62	61	70	
Ez duzu inoiz pentsatu baina etorkizunean beharrezkoa izan daiteke	9	9	12	7	11	8	14	10	0	
Benetan pentsatzen ari zara	10	8	9	13	9	11	9	10	16	
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	13	6	15	17	8	17	13	17	15	
Jada autonomoa, profesional liberala edo enpresaria zara	4	0	2	8	0	9	2	0	0	
Ed/Ee	1	2	2	0	2	1	1	2	0	
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	582	620	155	108	25	

Lanbide Heziketa egin duten gazteen herenek (%33) aukera horretan pentsatu dute: %5 autonomo edo enpresari dira, %19k pentsatu baina baztertu egin dute, eta beste %9 benetan horri buruz hausnartzen ari dira.

Bestalde, langile autonomo gehien klase sozial baxuko gazteen artean (bere burua klase sozial baxu edo ertain-baxu gisa definitu dute) aurki daitezke. Aipatu multzo horretan gainerakoetan baino gehiago dira, halaber, autoenpleguaren aukerari buruz benetan hausnartu dutenak.

Beren burua klase sozial altukotzat (altua edo ertain-altua) dutenen artean gainerakoetan baino gehiago dira horretan pentsatu baina baztertu dutenak, eta baita oraindik pentsatu ez arren etorkizunean beharrezkoa izan daitekeela adierazi dutenak (ikus 26. taula).

26. taula

AUTOENPLEGURAKO PRESTUTASUNA IKASKETA-MAILAREN ETA KLASERAREN ARABERA

«INOIZ PENSATU DUZU ZUK ZEUK ZURE LANPOSTUA SORTZEA, LANGILE AUTONOMO, PROFESIONAL LIBERAL EDO ENPRESARI TXIKI BIHURTZEA?»									
	GUZTIRA	KLASE SOZIALA			IKASKETA-MAILA				
		BAXUA	ERTAINA	ALTUA	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK	
Ez duzu inoiz pentsatu	62	55	64	55	63	60	61	64	
Ez duzu inoiz pentsatu baina etorkizunean beharrezkoa izan daiteke	9	8	9	17	9	6	11	12	
Benetan pentsatzen ari zara	10	14	10	8	12	9	10	9	
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	13	14	12	17	11	19	13	10	
Jada autonomoa, profesional liberala edo enpresaria zara	4	7	3	2	4	5	2	4	
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0	3	1	
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	192	1.180	110	505	315	371	298	

1.7. LAN-MUGIKORTASUNERAKO PRESTUTASUNA

Ekonomiaren globalizazioa eta langileen mugikortasuna gero eta fenomeno zabalagoak direlarik, lana dela-eta bizilekua aldatzeko duten prestatutasunari buruz galdetu diegu gazteei.

Gazteen %14k bakarrik baztertzen dute erabat lana dela-eta bizilekua aldatzea. %13k adierazi dute ez daudela ziur, hori inguruabarren eta baldintzen arabera izango litzatekeelako. Baina gehiengo garbia (%70) prest legoke lana dela-eta bizilekua aldatzeko, neurri berean ez bada

ere: %21 munduko edozein lekutara joateko prest legoke, %7 lana Europar Batasunaren barruan egonez gero bakarrik mugituko litzateke, %11 espainiar Estatuaren barruan, %18 Euskadiren barruan eta %13 gertuko herri batean.

Gazte gehienak lana dela-eta bizilekua aldatzeko prest ageri badira ere, badirudi prestutasun hori aurreko urteetan baino handiagoa dela gertuko udalerrietara lekualdatzeko orduan (ikus 27. taula).

27. taula

LAN-MUGIKORTASUNERAKO PRESTUTASUNAREN BILAKAERA (2000-2008)

«BIZILEKUA ALDATUKO ZENUKE INTERESATZEN ZAIZUN LAN BAT ESKAINIKO BALIZUTE?»			
	2000	2004	2008
Bai, ziur, munduko edozein lekutara	23	22	21
Bai, Europar Batasuneko edozein lekutara	7	5	7
Bai, espainiar Estatuaren barruan izanez gero	17	15	11
Bai, Euskadi barruan izanez gero	20	19	18
Bai, inguruko herriren batera bada	8	7	13
Ez zaude ziur (noiz nola)	13	17	13
Inola ere ez	11	13	14
Ed/Ee	2	2	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Multzoen arteko aldeei erreparatuz, nabari da mutilek neskek baino prestutasun handiagoa ageri dutela bizilekua munduko edozein lekutara aldatzeko; nesken artean, gehiago dira mugikortasun hori Euskadi barrura mugatuko luketenak.

Lan interesgarri baten truke mugitzeko prestutasun handiena dutenak (jomuga guztiak barne hartuz, hau da, munduko edozein lekutik gertukoenero herrira) langabeak eta lana eta ikasketak uztartzen dituztenak dira (%79 eta %80, hurrenez hurren). Zentzu horretan,

deigarria da ikasten eta lanean ari direnen herenak prest daudela munduko edozein lekutara mugitzeko.

Aldiz, soilik lanean ari direnak eta jardun nagusia etxeko lanak dituztenak dira bizilekua aldatzeari erreparorik handienak jartzen dizkietenak.

Jaiolekuak ere eragin nabarmena du bizilekuz aldatzeko prestutasunean: atzerrian jaiotako direnak dira munduko edozein lekutara edota Europar Batasuneko edozein lekutara aldatzeko prest daudela gehien adierazi dutenak. Espainiar Estatuan jaiotakoak dira bizilekua Estatuko beste edozein lekutara aldatzeko prestutasun handiena dutenak. EAEn jaiotakoak, berriz, mugikortasuna Euskadira edota gertuko herrietara mugatzearen aldekoenak dira (ikus 28. taula).

28. taula

LAN-MUGIKORTASUNERAKO PRESTUTASUNA SEXUAREN, JARDUN NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

	«BIZILEKUA ALDATUKO ZENUKE INTERESATZEN ZAIZUN LAN BAT ESKAINIKO BALIZUTE?»							
	GUZTIRA	SEXUA		JARDUN NAGUSIA				
		GIZONA	EMAKUMEA	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIA	ETXEKO LANAK
Bai, ziur, munduko edozein lekutara	21	24	19	23	17	33	22	19
Bai, Europar Batasuneko edozein lekutara	7	7	7	10	6	8	3	5
Bai, espainiar Estatuaren barruan izanez gero	11	10	12	9	12	12	22	2
Bai, Euskadi barruan izanez gero	18	15	20	16	18	20	18	19
Bai, inguruko herriren batera bada	13	13	14	14	14	7	14	19
Ez zaude ziur (noiz nola)	13	13	13	13	14	7	10	13
Inola ere ez	14	15	13	11	18	13	10	20
Ed/Ee	2	3	1	4	1	1	0	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	582	620	155	108	25

(.../...)

(.../...)

	JAIOLEKUA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Bai, ziur, munduko edozein lekutara	20	20	34
Bai, Europar Batasuneko edozein lekutara	7	6	12
Bai, espainiar Estatuaren barruan izanez gero	11	17	13
Bai, Euskadi barruan izanez gero	18	16	16
Bai, inguruko herriren batera bada	14	10	10
Ez zaude ziur (noiz nola)	14	10	6
Inola ere ez	15	17	8
Ed/Ee	2	3	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128

1.8. DISKRIMINAZIO-SENTIMENDUA LANA ESKURATZEKO ORDUAN

Honakoan, neskei eta mutilei aparte galdetu zaie nork duen, gizonak ala emakumeak, lanpostu bat lortzeko aukera gehien, adinean, prestakuntzan eta esperientzian egoera bertsuan egonik.

Erantzunen arabera, mutil gehienek (%64) nahiz neska gehienek (%60) uste dute mutil edo neska izate hutsak ez duela lanpostu bat eskuratzeko orduan inolako eraginik.

Lanpostu bat lortzeko orduan sexuak eraginik baduela uste dutenen artean, bai mutilen bai nesken artean gehiago dira gizonak emakumeak baino aukera gehiago dituela iritzi diotenak.

Esan liteke, beraz, lana eskuratzeko orduan sexuagatiko diskriminazioarena gutxienez sentimendua dela gazterian, eta diskriminazioa egotekotan gizonaren aldekoa dela (ikus 29. taula).

29. taula

SEXUAGATIKO DISKRIMINAZIO-SENTIMENDUA LANA ESKURATZEKO ORDUAN, SEXUAREN ARABERA

«ZURE IRITZIZ, NORK DU BERE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI BEGIRA EGOKIA DEN LANPOSTU BAT LORTZEKO AUKERA GEHIAGO, ADINEAN, PRESTAKUNTZAN ETA ESPERIENTZIAN EGOERA BERTSUAN EGONIK?»			
	GUZTIRA	SEXUA	
		GIZONA	EMAKUMEA
Mutilak aukera gehiago ditu	23	23	23
Neskak aukera gehiago ditu	8	6	9
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	62	64	60
Ed/Ee	7	7	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750

Gizon eta emakumeen datuak aparte aztertuta, ikus daiteke multzo guztietan gehiengoak direla sexuak lan bat eskuratzeko orduan eraginik ez duela uste dutenak. Gainera, multzo guztietan gehiago dira gizonak lana lortzeko aukera gehiago dituela uste dutenak emakumeak gehiago dituela uste dutenak baino, salbuespen batekin: atzerrian jaiotako emakumeen artean pixka bat gehiago dira beraiek gizonek baino aukera gehiago dituztela uste dutenak. Horren azpian egon litekeen arrazoia da emakume atzeritar askok haurrak eta edadeko pertsonak zaintzen dituztela, eta zeregin horiek tradizionalki emakumeek egin dituztela (ikus 30. taula).

30. taula

SEXUAGATIKO DISKRIMINAZIO-SENTIMENDUA LANA ESKURATZEKO ORDUAN, EMAKUMEEN ARTEAN, ADINAREN, JARDUN NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZURE IRITZIZ, NORK DU BERE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI BEGIRA EGOKIA DEN LANPOSTU BAT LORTZEKO AUKERA GEHIAGO, ADINEAN, PRESTAKUNTZAN ETA ESPERIENTZIAN EGOERA BERTSUAN EGONIK?»									
	EMAKUMEAK GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
		15- 19	20- 24	25- 29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTE ETA LAN EGITEA	LANGABEZIA	ETXEKO LANAK
Mutilak aukera gehiago ditu	23	24	21	26	26	21	27	22	16
Neskak aukera gehiago ditu	9	8	10	9	8	12	10	5	4
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	60	60	62	58	60	60	58	69	62
Ed/Ee	7	8	7	7	70	7	5	3	19
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	750	209	291	250	283	290	94	53	24

(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Mutilak aukera gehiago ditu	24	32	9
Neskak aukera gehiago ditu	9	11	13
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	60	53	65
Ed/Ee	7	3	13
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	634	47	68

Langabezian dauden mutilen artean, bi aukerak, alegia abantaila mutilek dutela edo neskek dutela, nahikoa berdinduta daude, gehixeago badira ere mutilek aukera gehiago dituztela uste dutenak (ikus 31. taula).

31. taula

SEXUAGATIKO DISKRIMINAZIO-SENTIMENDUA LANA ESKURATZEKO ORDUAN, GIZONEN ARTEAN, ADINAREN, JARDUN NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZURE IRITZIZ, NORK DU BERE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI BEGIRA EGOKIA DEN LANPOSTU BAT LORTZEKO AUKERA GEHIAGO, ADINEAN, PRESTAKUNTZAN ETA ESPERIENTZIAN EGOERA BERTSUAN EGONIK?»								
	GIZONAK GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA			
		15- 19	20- 24	25- 29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIA
Mutilak aukera gehiago ditu	23	19	24	26	18	31	18	17
Neskak aukera gehiago ditu	6	6	5	7	4	6	5	13
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	64	64	65	61	68	57	71	66
Ed/Ee	7	11	6	6	10	6	6	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	750	211	289	250	299	330	61	55

(.../...)

(.../...)

	JAIOLEKUA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Mutilak aukera gehiago ditu	22	42	24
Neskak aukera gehiago ditu	6	4	8
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	65	51	54
Ed/Ee	7	3	14
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	654	36	60

Azpitarratzeko beste alderdi batzuen artean, aipagarria da lan egiten duten mutilen iritziz gizonak aukera handiagoak dituztela, eta adinean aurrera egin ahala irudipen hori areagotu egiten dela. Bestalde, berdintasuna (eta, beraz, diskriminaziorik eza) neurri handienez hautematen duen multzoa EAEn jaiotako gizonetakoena da.

Oro har, gai honen inguruan iritzien arteko alde handiagoa nabari da gizonetakoetan emakumetakoetan baino.

1.9. ONDORIOAK

EAEko gazteen erdiak lanean ari dira, hamarretik batek lana eta ikasketak uztartzen baditu ere. Gainera, bost gaztetik bat ez da gaur egun lanean ari baina aurrez aritu da; beraz, ondoriozta daiteke hamar gaztetik zazpi lan-esperientzia badutela.

Lan-esperientzia hori duten gazte gehien-gehienek adierazi dute lehen lana beraien zuzenean bilatu dutela edota familiarreko, lagun edo ezagunen bidez lortu dutela. Gazteek gutxien erabilitako baliabidea enpleguko zerbitzu publikoena da.

Lan-esperientzia duten gazteek adierazi dute batez beste hiruzpalau enplegu izan dituztela, eta gazte horien herenek inoiz ez dute urtebetetik gorako lanik izan. Hain zuzen, lan-esperientzia duten gazteon erdiek urtebete baino gutxiago daramate edo zeramaten beren azken lanean.

Lan-esperientzia (oraingoa edo iraganekoa) duten gazteekin jarraituz, apenas herenek zuten beren azken lanean Kontratu mugagabea (hain zuzen ere, gaur egun lanean ari ez diren gazteen %13k kontratu mugagabe bat sinatu zuten beren azken lanean), erdiek aldi baterako kontratua dute edo zuten, eta gainerakoak autonomoak, profesional liberalak edo enpresariak dira edota kontraturik gabe lan egiten dute (azken egoera hori ohikoagoa da emakumeetan gizonetan baino eta lana eta ikasketak uztartzen dituzten gazteen artean). Oro har, mugagabeko kontratu gehiago daude gizonetako artean, 25 eta 29 urte artekoetan (adinak gora egin ahala areagotu egiten dira) eta Lanbide Heziketa egin dutenen artean.

Gaur egun soilik lanean ari diren soldatapeko gazteei erreparatuz, eta horien datuak soldatapekoak ere izaki 30 urtetik gora dituzten EAEko biztanleenekin alderatuta, multzo batek eta besteak sinatutako mugagabeko kontratuen kopuruan alde handia nabari da.

Gazte gehienak lanaldi osoan ari dira edo ziren. Lanaldi laburra ohikoagoa da emakumetakoetan, gazteenen (15-19 urte) eta lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean.

Beren egungo lana edo azkena egindakoa (lanean ari ez direnen kasuan) kalifikatzeko orduan, gazteek nagusiki adierazi dute interesgarria, errepikakorra, kualifikatua, egonkorra eta arrisku txikikoa dela.

Gazteriaren lan-baldintzei buruzko faktore-analisi baten arabera, bi baldintza-multzo nagusi hauteman dira: a) eskasak, hau da kontraturik gabeko enpleguak, lan errepikakor eta estresagarriak, eta horietan aritzen dira diru-eskuragarritasun eskasa dutenak, gazteenak, eta atzerritarrak; eta b) baldintza oso onak, hau da lan kualifikatuak, egonkorrak, etorkizundunak eta norberaren prestakuntzari lotuak, eta horietan aritzen dira 25 eta 29 urte arteko gazteak, EAEn jaiotakoak, kontratu mugagabea dutenak edo autonomoak eta hilean 900 eurotik gorako diru-eskuragarritasuna dutenak.

Edonola ere, EAEko gazteriaren lan-egoera ez da onegia, eta horren adierazgarri da gaur egun lanean ari diren gazteen erdiak ahal izanez gero lanez aldatuko liratekeela.

Oro har, gazteek lan batean garrantzitsuen jotzen dituzten ezaugarriak soldata ona, egonkortasuna eta laneko giro ona dira.

Hamar gaztetik zazpi bizilekua aldatzeko prest legoke lanpostu interesgarri baten truke; areago, baldintza horrekin bostetik bat munduko edozein lekutara joateko prest legoke.

Autoenpleguaren aukera ez da lan-mugikortasunarena bezain hobetsia. Gazteen %4 bakarrik dira autonomoak, profesional liberalak edo enpresariak; dena den, %10ek aukera hori benetan aztertu dute beren laneko etorkizunari begira.

Azkenik, bai neskek bai mutilek uste dute adinean, prestakuntzan eta esperientzian berdintasun-egoeran egonez gero gizon edo emakume izateak ez duela inolako eraginik lana lortzeko orduan. Sexuak eraginik baduela uste dutenen artean, dezente gehiago dira mutilek neskek baino aukera gehiago dituztela uste dutenak.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

2.
Familia



2

Familia

2.1. SARRERA

Familia pertsonen funtsezko oinarri bat da, bai aurreko belaunaldiekin (aita, ama, aiton-amonak) osatzen dena bai bikotekidearekin edota ondorengoekin (seme-alabak, bilobak...) osatutakoa, bestelako harremanez gain. Hain zuzen ere, *Gazteen argazkiak 1*¹⁵ ikerlanean adierazten den moduan, familia gazteriaren bizitzako arlo garrantzitsuena da (3,8ko garrantzia du, 1etik 4rako eskala batean), lagunen eta ezagunen, lanaren, aisiaren eta abarren gaineratik.

Familiaren egituraketak, ordea, bilakaera nabarmena izan du azken urteotan, hainbestearino ezen belaunez belaun aldatuz doala esan baitaiteke. Duela 30 urteko gizartearekin alderatuta, adibidez, ezkontza-tasa dezente jaitsi da, ezkontzeko batez besteko adina igo da eta ezkondu gabeko bikoteak ugaritu dira. Behera egin dute, era berean, jaiotzasak eta seme-alaben kopuruak emakumeko, eta gora, berriz, ama izateko batez besteko adinak. Familia-egituraren aldaketa horren adierazgarri, ezkondu gabeko amen seme-alaben kopurua ere nabarmen hazi da (ikus 32. taula).

Aldi berean, apenas hamar urtetan pertsona bakarreko familien kopurua bikoiztu egin da (Eustaten datuen arabera, 1991n 73.648 ziren, eta 2001ean 151.855). Seme-alabarik gabeko familien kopuruak eta guraso bakarrekoenak ere gora egin dute. Honenbestez, familiak txikitu egin dira: 1991n batez besteko tamaina 3,3 kidekoa zen, eta 2001ean 2,8koa¹⁶.

Era berean, 12 urte bakarrik atzera eginez (1996-2006 aldia), ezkontza katolikoak jaitsi egin dira (6.629tik 4.541era) eta ezkontza zibilak igo (1996an 2.692 izan ziren, eta 2006an 4.485); 2006ko urte horretan, beraz, ia ezkontza erlijiosoak adina izan ziren ezkontza zibilak EAEn.

¹⁵ Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza Saila, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (1996): *Gazteen argazkiak-1* [linean], <http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos/retratos_e.apl>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

¹⁶ Eustat: *Datu-bankua* [linean], <<http://www.eustat.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

32. taula

FAMILIAREN BILAKAERA EAE-N (1975-2006)

	1975	2006
Ezkontza-tasa (1.000 biztanleko)	8,4	4,4
Lehen ezkontzarako batez besteko adina: gizonak	27,1	33,1
Lehen ezkontzarako batez besteko adina: emakumeak	24,6	30,9
Jaiotza-tasa (1.000 biztanleko)	19,1	9,5
Seme-alaben batez besteko kopurua emakumeko	2,7	1,2
Ama izateko batez besteko adina	28,8	32,3
Ama ezkongabeen seme-alaben portzentajea	1,4	24,7

Iturria: Eustat eta INE.

Gainera, 2006an, eta kode zibila aldatu ondoren —sexu bereko pertsonen arteko ezkontza ahalbidetuz— EAEn egindako ezkontzen %1,7 bikote homosexualen artekoa izan zen. Urte batzuk lehenago, horrelako zerbait erabat pentsaezina zen¹⁷.

Bestalde, gero eta senar-emazte gehiago banantzen dira. INEren datuen arabera, 2004an EAEn erregistratutako 100 ezkontzako 21 dibortzio izan ziren, eta 2005ean kopuru horrek 42ra egin zuen jauzi, Banantze eta Dibortzioari buruzko Prozedura Zibilaren Legea indarrean sartzean; lege horrek banantze asko dibortzio bihurtzea ekarri zuen, batez ere elkarren arteko adostasuna zegoenean.

Oro har, EAEn ezkontza-bereizketen (banantzeak, baliogabetzeak eta dibortzioak) tasa 1998ko 1,96tik 2006ko 2,69ra (1.000 biztanleko) pasa zen¹⁸.

Datu horiek EAEko biztanleria orokorrari buruzkoak dira; gazteriarri erreparatuz, datu hauek azpimarra litezke:

—Ezkontzeko batez besteko adinean eman den atzerapenak dezenteko eragina du ezkontzen diren gazteen portzentajea. 1996an, EAEn ezkondu ziren gizonezkoen %41 16 eta 29 urte artekoa zen, eta 2006an, berriz, portzentaje hori %23ra murriztua

¹⁷ Eustat: *Datu-bankua* [linean], <<http://www.eustat.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

¹⁸ INE: *INEbase* [linean], <<http://www.ine.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

zen. Emakumeei dagokienez, 1996an ezkondu ziren emakume guztietatik %63 16 eta 29 urte arteko gazteak ziren, eta 2006an, ezkonduko emakume guztietatik %39 bakarrik ziren 30 urtez azpikoak.

—Gazteen arteko ezkontzen beherakadari bereizketen gorakada gehitu behar zaio. Izan ere, soilik 2006. urtean 30 urtez azpiko gizonen 254 dibortzio eman ziren EAEn¹⁹.

—Horrez gain, Eustaten datuen arabera, 2005ean jaiotako umeen artean %5,5ek soilik zuten 30 urtetik beherako ama.

Azken urteotan gertatu diren aldaketak ikusirik, jarraian Euskadiko gazteriaren familia-egoera aztertzen saiatuko gara, aurreko urteekiko eta espainiar Estatu osoko gazteekiko egon litezkeen aldeak ere aztertuz.

2.2. FAMILIA-EGOERA

2.2.1. Egoera zibila


Euskadiko gazte gehien-gehienek (%86) ezkongabe eta bikotekiderik gabe bizi direla adierazi dute, eta %13k bikotekidearekin bizi direla (%6 ezkondu eta zertxobait gehiago, %7, ezkondu gabe). Dibortziatu, banandu edo alargundutako gazteen portzentajea %1etik beherakoa da.

Aurreko beste inkestetan jasotako datuekin alderatuta, gazte ezkongabeen portzentajeak behera egin duela hauteman da, eta 2000tik hona joera hori etengabea izan da. Hazkundera pertsona ezkonduetan nahiz ezkondu gabe bikotekidearekin bizi direnetan gertatu da, baina azken horietan handiagoa izan da; hala, 2008an gehiago dira ezkondu gabe bikotea osatu duten gazteak ezkondukoak baino (ikus 9. grafikoa).

¹⁹ INE: *INEbase* [linean], <<http://www.ine.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

9. grafikoa

GAZTEEN EGOERA ZIBILAREN BILAKAERA (2000-2008) (%)



Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Datuak adin-tarteka banakaturik, ikus daiteke 25 eta 29 urte arteko multzoa dela bereziki egoera zibilean aldaketarik handienak izan dituenak, ezkongabeak gutxituz eta ezkonduak nahiz bikotekidearekin bizi direnak areagotuz. Ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak ezkondukoak baino gehiago dira 20 eta 24 urte arteko gazteen artean; nolana ere, bi egoerok gutxiengoak dira (ikus 33. taula).

EAEko gazteen egoera Estatu osokoenarekin alderatuta, ikus daiteke EAEn ere beren bikotekidearekin (ezkondu ala ez) bizi direnen kopurua hazten ari den arren, Estatuan gehiago direla egoera horretan daudenak (ikus 10. grafikoa).

33. taula


GAZTEEN EGOERA ZIBILAREN BILAKAERA (2000-2008)

	2000	2004	2008
15-19 urte	n = 371	n = 412	n = 420
Ezkongabea	100	99	100
Ezkondua	0	0	0
Bikotekidearekin bizitzen	0	1	0
Banandua, dibortziatua, alarguna	0	0	0
20-24 urte	n = 510	n = 588	n = 580
Ezkongabea	98	96	92
Ezkondua	1	2	3
Bikotekidearekin bizitzen	1	2	5
Banandua, dibortziatua, alarguna	0	0	0
25-29 urte	n = 483	n = 500	n = 500
Ezkongabea	88	73	68
Ezkondua	8	13	16
Bikotekidearekin bizitzen	3	13	15
Banandua, dibortziatua, alarguna	1	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

10. grafikoa

GAZTERIAREN EGOERA ZIBILA EAE-N ETA ESPAINIAR ESTATUAN (%)



Iturria: CIS (2007): 2.675 azterlana, *Sondeo sobre la juventud española 2007 (primera oleada)*.

Gazte-multzo ezberdinei erreparatuta, ohartzen gara EAEn bikotekidearekin (ezkonduta ala ez) bizi diren nesken portzentajea mutilena baino handiagoa dela. Alde hori azaltzeko arrazoi nagusia litzateke emakume gazte asko adinez nagusiago diren bikotekideekin bizi direla (29 urtetik gorakoak ez dira azterlan honetan barne hartzen). Adinean gora egin ahala, gora egiten du beren bikotekidearekin (ezkonduta ala ez) bizi direnen kopuruak ere.

Gazte atzeritarren artean aurki daiteke ezkonduta (laurdenak) nahiz ezkondu gabe beren bikotekidearekin bizi direnen portzentajerik handiena. Deigarria da EAEn edo Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotako gazteen artean gehiago izatea ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak ezkonduta daudenak baino, eta atzerrian jaiotako gazteen artean, aldiz, ezkondutakoak gehiago izatea.

Azkenik, aipatu behar da seme-alabak dituztenen artean erdiak baino gehixeago (%56) ezkonduta daudela, laurdenak (%27) ezkondu gabe bikotekidearekin bizi direla, %15 ezkongabe eta bikotekiderik gabe bizi direla eta gainerako %1a banandua edo dibortziatua dagoela (ikus 34. taula).


34. taula

EAE-KO GAZTEEN EGOERA ZIBILA SEXUAREN, ADINAREN, JAIOLEKUAREN ETA SEME-ALABEN ARABERA

«ZEIN DA ZURE EGOERA?»											
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JAIOLEKUA			SEME-ALABARIK DUZU?	
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	BAI	EZ
Ezkongabea	86	89	83	99	92	68	90	81	58	15	92
Ezkondua	6	4	8	0	3	16	4	7	25	56	3
Bikotekidearekin bizitzen	7	6	8	0	5	15	6	12	16	27	5
Banandua, dibortziatua	0	0	0	0	0	0	0	0	1	1	0
Alarguna	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	1.288	83	128	103	1.397

2.2.2. Seme-alabak

Bestalde, gazteen %6k seme-alabak dituela adierazi du. Ohikoena seme edo alaba bat izatea da (%5), soilik %1ek ditu bi seme-alaba, eta %1ek baino gutxiagok hiru edo gehiago (ikus 11. grafikoa).



2004an gutxiago izan ziren —zehazki %4— seme-alabarik bazutela adierazi zuten gazteak. Eta 2000. urtean, are gutxiago, %3.

Datuak multzoka aztertuta, ohartzen gara dezente gehiago direla seme-alabak dituzten emakume gazteak gizon gazteak baino; adinak eragin handia du, eta zenbat eta adinez nagusiago izan orduan eta seme-alaba gehiago izaten dira, baina jaiolekuaren eragina are handiagoa da: atzerrian jaiotako gazteen %31k dituzte seme-alabak, eta EAEn jaiotakoen %5ek.

Alabaina, aldagairik erabakigarriena egoera zibila da: ezkondutako gazte gehienek (%62) seme-alabak dituzte, eta portzentaje hori %27ra jaisten da bikotekidearekin bizi direnen artean; ezkongabeen artean, portzentaje hori %1ekoa da. Datu horren arabera, badirudi gaur egun ere gazteek nahiago dutela bide tradizionaletik jotzea (ezkontzea) seme-alabak izateko orduan (ikus 35. taula).

35. taula

SEME-ALABAK DITUZTEN GAZTEAK SEXUAREN, ADINAREN,
JAIOLEKUAREN ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA

«ZENBAT SEME-ALABA DITUZU?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Bat ere ez	93	97	89	100	97	83
Seme-alaba 1	5	3	8	0	3	12
2 seme-alaba	1	0	2	0	1	4
3 seme-alaba edo gehiago	0	0	1	0	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA			EGOERA ZIBILA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKONGABEA	EZKONDUA	BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN
Bat ere ez	95	93	70	99	38	73
Seme-alaba 1	4	6	18	1	40	26
2 seme-alaba	1	0	10	0	15	1
3 seme-alaba edo gehiago	0	1	3	0	7	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	1.290	92	114

2.3. EMANTZIPAZIOA

EAEko gazte gehienak (%78) beren jatorrizko familiarekin bizi dira, hau da, aitarekin, amarekin, neba-arrebekin... Ia bostetik bat (%19) beren etxe propioan bizi dira, jatorrizko familiarengandik aparte. Eta gutxi dira astegunetan familiaratik aparteko etxebizitza batean edo unibertsitate-egoitza batean bizi arren asteburuetan eta oporraldietan familiarekin bizi direnak (%1) nahiz beste egoeraren batean daudenak (%1).

Etiketetik atera diren gazteen portzentajea (familiarenaz aparteko pisu edo etxe batean bizi direnena) igo egin da 2004tik hona: orduan %14 ziren, eta gaur egun %19 dira.

Aurreko aldagaiak aztertzean antzeman zitekeenez, jatorrizko familiarenaz bestelako etxeetan bizi diren nesken portzentajea mutilena baino handiagoa da, adinak gora egin ahala gehiago dira familiaratik aparte bizi direnak, eta atzerrian jaiotako gazteen artean EAEn jaiotakoenen aurkakoa gertatzen da; izan ere, atzeritik heldutakoetan gehiengoak dira (%57) familiarena ez den beste etxebizitza batean bizi direnak.

Baina zalantzarik gabe gehien eragiten duen faktorea egoera zibila da: ezkondua edo beren bikotekidearekin bizi diren hamar gaztetik bederatzi familiaratik aparte bizi dira (ezkongabeen artean %8 bizi dira etiketik kanpo); hala ere, bikotekidearekin bizi diren gazteen %8 familiaren etxean bizi dira (ikus 36. taula).

Aurkako irakurketa eginez, aparte bizi diren gazte gehienak (%64) bikotekidearekin (ezkondua ala ez) bizi badira ere, nabarmendu behar da herenak (%36) bikotekiderik gabe eta aparte bizi direla, familiaren etiketik ezkontideen etxera igarotzeko joera tradizionala urratuz (ikus 37. taula).

36. taula

EAE-KO GAZTEEN OHIKO ETXEBIZITZA SEXUAREN, ADINAREN, JAIOLEKUAREN
ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA

«HAUETAKO ZEIN EGOERA DA ZUREAREN ANTZEKOENA?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Familiarekin bizi zara (gurasoak, neba-arrebak...)	78	81	76	99	83	57
Zure familiaren etxea ez den beste batean bizi zara	19	16	22	0	14	40
Astegunetan unibertsitate-egoitza batean edo zure familiaren etxebizitza ez den beste batean bizi zara, eta asteburu eta oporraldietan familiarekin	1	1	1	1	2	1
Beste egoeraren bat	1	1	1	0	1	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA			EGOERA ZIBILA	
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKONGABEA	EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN
Familiarekin bizi zara (gurasoak, neba-arrebak...)	83	63	40	89	8
Zure familiaren etxea ez den beste batean bizi zara	14	33	57	8	90
Astegunetan unibertsitate-egoitza batean edo zure familiaren etxebizitza ez den beste batean bizi zara, eta asteburu eta oporraldietan familiarekin	1	5	0	1	0
Beste egoeraren bat	1	0	2	1	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	1.290	206

37. taula

EGOERA ZIBILA OHIKO ETXEBIZITZAREN ARABERA

«ZEIN DA ZURE EGOERA?»					
	GUZTIRA	OHIKO ETXEBIZITZA			
		NIRE FAMILIAREKIN BIZI NAIZ	NIRE FAMILIAREN ETXEA EZ DEN BESTE BATEAN BIZI NAIZ	ASTEGUNETAN BESTE ETXEBIZITZA BATEAN, ASTEBURU ETA OPORRETAN FAMILIAREKIN	BESTE EGOERAREN BAT
Ezkongabea	86	98	36	100	84
Ezkondua	6	1	30	0	9
Bikotekidearekin bizitzen	7	1	34	0	7
Banandua, dibortziatua, alarguna	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.178	287	18	17

2.3.1. Emantzipazio-adina

Etxetik atera direla diotenei soilik erreparatuz (hau da, jatorrizko familiarena ez den beste etxebizitza edo pisu batean bizi diren %19 horiei), ikusten dugu etxea utzi zutenean zuten adina batez beste 22.2 urtekoa dela.

2004tik hona, adin hori pixka bat jaitsi da, orduan batez bestekoa 22.9 urtekoa baitzen.

Oro har, etxea utzitako emakumeek gizonak baino lehentxeago utzi zuten etxea eta EAetik kanpo jaiotakoek halaber gure erkidegoan jaiotakoak baino lehenago (ikus 38. taula).

38. taula

EMANTZIPAZIO-ADINA SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZENBAT URTEREKIN JARRI ZINEN ZURE GURASO/TUTOREENGANDIK APARTE BIZITZEN?»						
(BATEZ BESTEKOAK)	GUZTIRA	SEXUA		JAIOLEKUA		
		GIZONA	EMAKUMEA	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Batez besteko adina	22.2	22.9	21.7	23.1	20.2	20.7
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	287	122	165	187	27	73

n = beren familiaren etxea ez den beste batean bizi direla adierazi duten gazteak.

2.3.2. Emantzipatzeko gogoia

Aurreko datuek iradokitzen dutenaz bestela, gazte gehienek (%63) adierazi dute aukeratu ahal izatekotan nahiago luketela beren familiaren etxea ez den beste batean bizitzea.

Benetako bizilekuaren (egiazko emantzipazioa) eta bizileku idealaren (emantzipatzeko gogoia) datuak gurutzatuz, egiaztatu da familiarekin bizi diren gazteen erdiek baino gehixeagok aparte bizi nahiko luketela (ikus 39. taula).

Beste aldagai batzuei erreparatuta, ohartzen gara emakumezko gazteek gizonezko gazteek baino emantzipatzeko gogo handixeagoa dutela, eta emantzipatzeko gogoia areagotu egiten dela adinak gora egin ahala.

Euskadiko gazteen emantzipatzeko gogoia jaitsi egin da 2004tik hona: orduan %70 ziren aparte bizi nahi zuten gazteak, eta 2008an portzentajea (oraindik gehiengoa den arren), %63ra jaitsi da (ikus 12. grafikoa).

39. taula

EMANTZIPATZEKO GOGOIA SEXUAREN, ADINAREN ETA OHIKO BIZILEKUAREN ARABERA

«AUKERATU AHAL BAZENU ETA ZURE ESKU BALEGO, NON BIZITZEA NAHIAGO ZENUKE?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Etxean familiarekin (gurasoak, neba-arrebak...)	30	32	27	48	30	14
Familiaren etxea ez den beste batean	63	61	65	39	64	82
Astegunetan unibertsitare-egoitza batean edo familiarekin etxebizitza ez den beste batean, eta asteburu eta oporraldietan familiarekin	5	3	6	10	3	1
Beste egoeraren bat	2	2	1	1	2	2
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(./...)

(./...)


	OHIKO ETXEBIZITZA*	
	NIRE FAMILIAREKIN BIZI NAIZ	NIRE FAMILIAREN ETXEA EZ DEN BESTE BATEAN BIZI NAIZ
Etxean familiarekin (gurasoak, neba-arrebak...)	37	2
Familiaren etxea ez den beste batean	56	94
Astegunetan unibertsitare-egoitza batean edo familiarekin etxebizitza ez den beste batean, eta asteburu eta oporraldietan familiarekin	2	0
Beste egoeraren bat	1	2
Ed/Ee	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.178	287

* Astegunetan familiatik aparte eta asteburu eta oporraldietan familiarekin bizi direnen datuen gurutzaketak nahiz beste egoera batean bizi direnenak ez dira aintzat hartuak izan oso gazte gutxi direlako egoera horretan daudenak (18 eta 17 gazte, hurrenez hurren).

12. grafikoa

GAZTEEN EMANTZIPATZEKO GOGOAREN BILAKAERA (2004-2008) (%)

«AUKERATU AHAL BAZENU ETA ZURE ESKU BALEGO, NON BIZITZEA NAHIAGO ZENUKE?»



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

Horren azalpen bat litzateke azken lau urteotan egiazko emantzipazioa hazi egin dela (%14tik %19ra), eta beraz aparte bizi ez diren baina bizi nahiko luketen gazteen kopurua murriztagoa dela (ikus 40. taula).

Horren azalpena izan liteke gazteak seguruago edo erosoago sentitzen direla familiarekin, eta horregatik ez luketela emantzipatu nahi. Edonola ere, hurrengo atalean emantzipatzeko zailtasunak aztertuko dira.

40. taula

EMANTZIPATZEKO GOGOAREN BILAKAERA EMANTZIPATURIK EZ DAUDENEN ARTEAN (2004-2008)

«AUKERATU AHAL BAZENU ETA ZURE ESKU BALEGO, NON BIZITZEA NAHIAGO ZENUKE?»		
	FAMILIAREKIN BIZI DIREN GAZTEAK	
	2004	2008
Etxean familiarekin (gurasoak, neba-arrebak...)	25	37
Familiaren etxea ez den beste batean	66	56
Astegunetan unibertsitate-egoitza batean edo familiaren etxebizitza ez den beste batean, eta asteburu eta oporraldietan familiarekin	6	5
Beste egoeraren bat	1	1
Ed/Ee	2	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.254	1.178

* Datu hauek ez ziren *Euskadiko gazteak 2004* argitalpenean agertzen, jatorrizko fitxategia oinarri hartuta kalkulatu dira.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.


2.3.3. Emantzipatzeko zailtasunak

Gazteen esanetan, etxetik ateratzeko duten zailtasun handiena etxebizitzaren prezio garestia da bai erosteko bai alokatzeko (faktore hau bost gaztetik lauk aipatu dute).

Horrez gain, bost gaztetik hiruk adierazi dute familiarekin bizitzea erosoagoa dela. Erdiek baino gehixeagok (%57) diru-iturri propioa edukitzeko arazoak dituzte orain edo izan dituzte. Eta gutxi dira (%9) familiak aurka egin diela adierazi dutenak (ikus 13. grafikoa).

13. grafikoa

EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK (%)



* Emantzipatzeko zailtasun bakoitza dutela adierazi duten gazteen portzentajea.

Zailtasun horiek guztiak nabarmenagoak dira oraindik familiarekin bizi direnen artean jada etxetik atera direnen artean baino.

Nolanahi ere, etxebizitzaren garestitzeak ekarritako zailtasunak gehiago aipatu dituzte 20 eta 29 urte artekoek eta beren burua klase sozial baxukotzat dutenek (hain zuzen, klase soziala jaitsi ahala igo egiten dira etxebizitza garesti izateagatikoa). Gai horren inguruan, EAEn bizi diren gazteen artean ez da lurraldeka alde handirik antzeman.

Diru-iturri propioa izateko zailtasunak gehiago nabarmendu dituzte 25 urtetik beherakoek eta, berriro, klase soziala jaitsi ahala aipamen horiek areagotu egiten dira. Langabezia daudenez ere gainerako gazteek baino gehiago azpimarratzen dute eragozpen hori.

Familiarekin bizitzearen erosotasuna gero eta aipatuagoa da adina jaitsi edota klase soziala igo ahala.

Azkenik, familia aurka egotea gehiago aipatzen dute 20 urte baino gutxiago dutenek, eta klase sozialaren zein sexuaren arabera ez da horri dagokionez alderik nabari (ikus 41. taula).

41. taula

EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK ADINAREN, KLASE SOZIALAREN ETA OHIKO ETXEBIZITZAREN ARABERA

«HAUETAKO ZEIN ZAILTASUN DUZU EDO IZAN DUZU ZURE KONTURA BIZITZERA JOATEKO?»*							
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		15-19	20-24	25-29	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Etxebizitza garestia izatea, erosteko zein alokatzeko	79	68	83	82	88	78	71
Familiarekin bizitzen erosoago zaude/zeunden	60	73	64	45	54	61	66
Diru-iturri propioa izateko zailtasunak	57	62	60	51	62	57	53
Familia aurka egotea	9	19	7	3	9	9	9
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	192	1.180	110

(../...)

(../...)

	OHIKO ETXEBIZITZA**	
	NIRE FAMILIAREKIN BIZI NAIZ	NIRE FAMILIAREN ETXEA EZ DEN BESTE BATEAN BIZI NAIZ
Etxebizitza garestia izatea, erosteko zein alokatzeko	80	75
Familiarekin bizitzen erosoago zaude/zeunden	68	29
Diru-iturri propioa izateko zailtasunak	59	49
Familia aurka egotea	10	5
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.178	287

* Emantzipatzeko zailtasun bakoitza dutela adierazi duten gazteen portzentajea.

** Astegunetan familiaratik aparte eta asteburu eta oporraldietan familiarekin bizi direnen datuen gurutzaketak nahiz beste egoera batean bizi direnenak ez dira aintzat hartuak izan oso gazte gutxi direlako egoera horretan daudenak (18 eta 17 gazte, hurrenez hurren).

Etxean jarraitu nahi dutenen zein atera nahi dutenen iritziei erreparatuz, ikus daiteke etxean jarraitu nahi dutenek gehien aipatzen duten faktorea erosotasuna dela, alegia erosoagoa dela horrela bizitzea, eta aparteko etxebizitza batean bizi nahi dutenen iritziz emantzipatzeko zailtasun nagusia etxebizitzaren prezioa da (ikus 42. taula).

42. taula

EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK EMANTZIPATZEKO GOGOAREN ARABERA

«HAUETAKO ZEIN ZAILTASUN DUZU EDO IZAN DUZU ZURE KONTURA BIZITZERA JOATEKO?»*			
	GUZTIRA	NON BIZITZEA NAHIAGO ZENUKE?*	
		ETXEAN FAMILIAREKIN	FAMILIAREN ETXEA EZ DEN BESTE BATEAN
Etxebizitza garestia izatea, erosteko zein alokatzeko	79	73	82
Familiarekin bizitzen erosoago zaude/zeunden	60	80	51
Diru-iturri propioa izateko zailtasunak	57	60	57
Familia aurka egotea	9	16	6
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	443	947


* Emantzipatzeko zailtasun bakoitza dutela adierazi duten gazteen portzentajea.

Datu horiek aurreko urteetan bildutakoekin alderatuz, ohartzen gara etxebizitza garestia izateari buruzko aipamenek behera egin dutela (aipatuena izan arren), eta baita diru-iturri propioa izateko zailtasunari buruzkoek ere; aldiz, nabarmen areagotu da familiarekin erosoago egoten dela diotenen kopurua (ikus 14. grafikoa).

14. grafikoa

GAZTEEN EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNEN BILAKAERA (2000-2008) (%)

«HAUETAKO ZEIN ZAILTASUN DUZU EDO IZAN DUZU ZURE KONTURA BIZITZERA JOATEKO?»*



* Emantzipatzeko zailtasun bakoitza dutela adierazi duten gazteen portzentajea.

** 2000. urtean, galdera honakoa zen: «Zein zailtasun izan duzu edo izango zenuke zeure kontura bizitzera joateko?»; erantzuteko emandako aukerak berdinak ziren.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

2.3.4. Independentzia ekonomikoa

Aurreko atalak agerian utzi duenez, emantzipazioaren auzian funtsezko alderdi bat da horretarako baliabide materialak edukitzea, bai etxebizitza ordaintzeko bai beharrezkoak diren gainerako gastuei aurre egiteko. Beraz, jarraian diru-sarrera propioen inguruko analisia egingo da, horiek hilabeteko errenta-ahalmenean duten islari eta gazteak diru-sarrerak izaten hasteko adinari erreparatuz.


2.3.4.1. Diru-sarreren jatorria

Gazteen %22k diote soil-soilik edo nagusiki beren diru-sarreretatik bizi direla. Kontuan izanik %8 erdi bana beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik bizi direla, esan genezake Euskadiko hamar gaztetik hiruk familiarekiko independentzia ekonomikoa dutela.

Gainerako gazteek beren eta besteren diru-sarrerak uztartu behar dituzte edo besteren dirutik bizi behar dute: %44k diote soil-soilik edo nagusiki familiaren diru-sarreretatik bizi direla, %2k soil-soilik edo nagusiki bikotekidearen diru-sarreretatik (horrenbestez, ia gazteen erdiak besteren diru-sarreretatik bizi dira), eta %23k beren dirutik eta familiarenetik, erdi eta erdi (ikus 15. grafikoa).

15. grafikoa

DIRU-SARREREN JATORRIA (%)



Adinak eragin nabarmena du:

- 15 eta 19 urte arteko gehien-gehienak (%88) soil-soilik edo nagusiki familiaren dirutik bizi dira.
- 20 eta 24 urte artekoen artean gehiago dira nagusiki familiaren diru-sarreretatik bizi direnak (%41), baina multzo handi bat bere diru-sarrera propioetatik eta familiaren sarreretatik bizi da (%30), eta beste multzo batek dio soil-soilik bere dirutik bizi dela (%21).
- 25 urtetik aurrera, soil-soilik beren dirutik bizi direnak gehienak dira, gehiengoan izan ez arren (%38), bigarren multzoa familiaren eta bere dirutik bizi direnek osatzen dute (%26), eta hirugarrena diru-iturri propioak eta bikotekidearenak uztartzen dituztenak (%18).

Jardun nagusiak ere eragin handia du diru-sarrereren jatorrian: familiaren dirutik bizi direla gehien adierazi dutenak ikasleak dira, familiaren dirutik eta norberarenetik erdi bana bizi direla gehien diotenak lana eta ikasketak uztartzen dituztenak, beren diru-sarreretatik gehien bizi direnak soilik lan egiten dutenak dira, bere eta bikotekidearen dirutik erdi bana bizi direla gehien diotenak lan egiten dutenak eta jardun nagusia etxeko lanak egitea dutenak dira, eta, azkenik, soilik bikotekidearen dirutik bizi direla gehien adierazi dutenak jardun nagusia etxeko lanak egitea dutenak dira.

Egoera zibilak ere alde handiak markatzen ditu: ezkongabeen artean, erdiek diote familiaren diru-sarrez bizi direla, eta gainerakoetan antzeko kopurua da diru-iturri propioak

eta familiarenak uztartzen dituzten nahiz soilik beren dirutik bizi diren gazteena; bestalde, ezkonduen edo bikotekidearekin bizi direnen artean, erdiek adierazi dute beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen diru-sarreretatik erdi bana bizi direla, eta laurdenek diote soilik beren dirutik bizi direla.

Azkenik, emantzipazioa funtsezko faktorea da gai honi dagokionez: familiarekin bizi direnen artean, multzo ugariak soilik edo nagusiki familiaren diru-sarreretatik bizi direnek eta, bigarrenik, beren dirutik eta familiarenetik bizi direnek osatzen dituzte; familiatik aparte bizi direnen artean, aldiz, bi multzo handienak —tamainaz antzekoak— soil-soilik edo nagusiki beren dirutik bizi direnek eta beren dirutik eta bikotekidearenetik erdi bana bizi direnek osatzen dituzte (ikus 43. taula).

43. taula

DIRU-SARREREN JATORRIA ADINAREN, JARDUN NAGUSIAREN, EGOERA ZIBILAREN ETA OHIKO ETXEBIZITZAREN ARABERA

«EGOERA HAUETATIK, ZEIN DA ZUREAREN ANTZEKOENA?»				
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK		
		15- 19	20- 24	25- 29
Soil-soilik edo nagusiki zure familiaren (gurasoak, neba-arrebak...) diru-sarreretatik bizi zara	44	88	41	10
Zeure eta zure familiaren diru-sarreretatik erdi bana bizi zara	23	8	30	26
Soil-soilik edo nagusiki zure diru-sarreretatik bizi zara	22	3	21	38
Zeure eta zure bikotekidearen diru-sarreretatik erdi bana bizi zara	8	0	5	18
Soil-soilik edo nagusiki zure bikotekidearen diru-sarreretatik bizi zara	2	0	2	6
Beste egoeraren bat	1	0	1	1
Ed/Ee	1	0	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500

(.../...)

(.../...)

	JARDUN NAGUSIA				
	IKASTEN	LANEAN	IKASTEN ETA LANEAN	LANGABEZIAN	ETXEKO LANETAN
Soil-soilik edo nagusiki zure familiaren (gurasoak, neba-arrebak...) diru-sarreretatik bizi zara	88	8	25	38	16
Zeure eta zure familiaren diru-sarreretatik erdi bana bizi zara	7	34	44	18	5
Soil-soilik edo nagusiki zure diru- sarreretatik bizi zara	3	41	21	20	10
Zeure eta zure bikotekidearen diru- sarreretatik erdi bana bizi zara	0	15	9	11	15
Soil-soilik edo nagusiki zure bikotekidearen diru-sarreretatik bizi zara	0	2	0	10	49
Beste egoeraren bat	1	1	0	2	5
Ed/Ee	1	1	1	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	582	620	155	108	25

(.../...)

(.../...)


	EGOERA ZIBILA		OHIKO ETXEBIZITZA*	
	EZKONGABEA	EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEAZ BIZITZEN	NIRE FAMILIAREKIN BIZI NAIZ	NIRE FAMILIAREN ETXEA EZ DEN BESTE BATEAN BIZI NAIZ
Soil-soilik edo nagusiki zure familiaren (gurasoak, neba-arrebak...) diru-sarreretatik bizi zara	50	2	54	3
Zeure eta zure familiaren diru-sarreretatik erdi bana bizi zara	26	3	28	3
Soil-soilik edo nagusiki zure diru-sarreretatik bizi zara	21	26	16	42
Zeure eta zure bikotekidearen diru-sarreretatik erdi bana bizi zara	1	53	1	40
Soil-soilik edo nagusiki zure bikotekidearen diru-sarreretatik bizi zara	0	15	0	11
Beste egoeraren bat	1	1	0	1
Ed/Ee	1	0	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.290	206	1.178	287

* Astegunetan familitatik aparte eta asteburu eta oporraldietan familiarekin bizi direnen datuen gurutzaketak nahiz beste egoera batean bizi direnenak ez dira aintzat hartuak izan oso gazte gutxi direlako egoera horretan daudenak (18 eta 17 gazte, hurrenez hurren).

2004tik hona, soilik edo nagusiki beren diru-sarreretatik bizi direla dioten gazteen portzentajea pixka bat igo da (ikus 16. grafikoa).

16. grafikoa

DIRU-SARREREN JATORRIAREN BILAKAERA (2004-2008) (%)



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

2.3.4.2. Emantzipazio ekonomikoaren adina

Nagusiki beren diru-sarreretatik, beren bikotekidearen diru-sarreretatik edo erdi bana beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik bizi direla dioten gazteei (%32) beren dirutik edo bikotekidearenetik bizitzen hasi ziren adinaz galdetuta, batez bestekoa 21.1 urtekoa da.

Batez besteko hori apalxeagoa da atzerrian jaiotako gazte emantzipatuen artean (20.7) EAEn jaiotakoen artean baino (21.4) —ikus 44. taula—.

44. taula

EMANTZIPAZIO EKONOMIKOAREN ADINA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZENBAT URTEREKIN HASI ZINEN NAGUSIKI ZEURE EDO ZURE BIKOTEKIDEAREN DIRU-SARRERETATIK BIZITZEN?»				
	GUZTIRA	JAIOLEKUA		
		EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Batez besteko adina	21.1	21.4	19.5	20.7
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	482	366	34	82

n = soilik edo nagusiki beren diru-sarreretatik edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla adierazi duten gazteak.

Emantzipatzeko adina jaitsi egin da 2004tik hona (orduan 22,9 urtekoa zen). Pentsa liteke jaitsiera horren azalpen logikoena gaur egun atzerrian jaiotako gazte gehiago egotea izan litekeela, baina hautemandako joera aurkakoa da: jaitsiera EAEko eta Espainiar Estatuko gazteen artean gertatu da, eta atzerrian jaiotako gazteen artean, berriz, emantzipazio ekonomikoaren adinak pixka bat gora egin du. Gogoratu behar da, nolana ere, ekonomikoki emantzipatuta dauden gazteez ari garela, eta ez gazteria osoaz (ikus 45. taula).

45. taula

GAZTEEN EMANTZIPAZIO EKONOMIKORAKO ADINAREN BILAKAERA, JAIOLEKUAREN ARABERA (2004-2008)


«ZENBAT URTEREKIN HASI ZINEN NAGUSIKI ZEURE EDO ZURE BIKOTEKIDEAREN DIRU-SARRERETATIK BIZITZEN?»					
	GUZTIRA	JAIOLEKUA			MAIZTASUN ABSOLUTUAK
		EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	
2004ko batez bestekoa	22.9	23.5	21.3	19.5	398
2008ko batez bestekoa	21.1	21.4	19.5	20.7	482

n = soilik edo nagusiki beren diru-sarreretatik edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla adierazi duten gazteak.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

2.3.4.3. Diru-sarrerak hilean

Gazteen ia erdiek (%48) hilean 300 euro baino gutxiago izaten dute eskuragarri (%17k 60 euro baino gutxiago eta %31k 60 eta 300 euro bitarte). %13k 300 eta 600 euro bitarte izaten dute hilean, %13k 600 eta 900 euro bitarte eta %22k 900 euro baino gehiago (ikus 17. grafikoa).



Adina eta jarduna dira diru-sarreraren mailan gehien eragiten duten aldagaiak:

15 eta 19 urte arteko gazteen artean gehien-gehienek (%92) hilean 300 euro baino gutxiago izaten dute eskuragarri, eta ia erdiek (%46) 60 euro baino gutxiago. 20 eta 24 urte arteko gazteetan, multzo nagusia hilean 60 euro baino gehiago baina 300 euro baino gutxiago izaten dutenek (%37) osatutakoa da, nahiz eta jada laurdunek (%22) adierazi duten hilean 900 euro baino gehiago izaten dutela eskuragarri. 25 eta 29 urte artekoetan, ia bi herenek (%64) diote hilean 600 euro baino gehiago izaten dutela eta %39 dira 900 euro baino gehiago izaten dutela diotenak.

Ikasle gehien-gehienek hilean 300 euro baino gutxiago izaten dute eskuragarri, lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean gehiengoa dira hilean 60 eta 600 euro bitarte izaten dutenak, soilik lanean ari direnen artean ia erdiek (%45) 900 euro baino gehiago izaten dute, eta portzentaje hori %10era murrizten da langabezia daudenen artean. Jardun nagusia etxeko lanak dituzten gazteen hileroko diru-sarreraren zenbatekoa askotarikoa da, eta deigarria da %13k ez dakitela edo ez dutela erantzun nahi adierazi izana.

Bestalde, aipatu behar da gizonezko gazteek hilean izaten duten diru-kopurua emakumezko gazteena baino gehixeago dela (ikus 46. taula).

46. taula

DIRU-SARRERAK HILEAN SEXUAREN, ADINAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILEAN?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
60 euro baino gutxiago	17	15	18	46	8	3
60 eta 300 euro bitarte	31	33	30	46	37	13
301 eta 600 euro bitarte	13	10	16	3	18	15
601 eta 900 euro bitarte	13	14	13	1	12	25
900 euro baino gehiago	22	24	19	2	22	39
Ed/Ee	4	4	4	3	3	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(.../...)

(.../...)

	JARDUN NAGUSIA				
	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
60 euro baino gutxiago	36	1	5	18	5
60 eta 300 euro bitarte	55	11	30	25	25
301 eta 600 euro bitarte	4	16	29	18	29
601 eta 900 euro bitarte	1	24	12	23	8
900 euro baino gehiago	1	45	18	10	21
Ed/Ee	3	4	5	5	13
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	582	620	155	108	25

Aurreko urteekin alderatuta, ohartzen gara gazteen diru-sarrerek gora egin dutela, eta gero eta gehiago dira —gehiago ez izan arren— hilean 900 euro baino gehiago izaten dutenak. Alabaina, azken urteotako KPIren hazkundea kontuan izanda, horrek ez du ezinbestean esan nahi gazteek oro har erosteko ahalmen handiagoa dutenik (ikus 47. taula).

47. taula

GAZTEEN HILEKO DIRU-SARREREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILEAN?»			
	2000	2004	2008
60 euro baino gutxiago	23	15	17
60 eta 300 euro bitarte	31	37	31
301 eta 600 euro bitarte	14	14	13
601 eta 900 euro bitarte	17	15	13
900 euro baino gehiago	9	15	22
Ed/Ee	6	4	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500


Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

2.3.5. Etxeko lanen banaketa

Bikotekidearekin (ezkonduta ala ez) bizi diren gazteei (%13) etxeko lanen banaketari buruz galdetu zaie. Erantzunen arabera, gehienetan (%54) bikoteko bi kideen artean egiten dituzte; gainerako kasuetan, ordea, dezente gehiago dira lan guztiak edo gehienak emakumezkoak egiten dituela diotenak (%37) gizonezkoak egiten dituela diotenak baino (%5). Lanok beste pertsonaren batek egiten dituela adierazi dutenak ez dira %1era heltzen (ikus 18. grafikoa).

18. grafikoa

ETXEKO LANEN BANAKETA EZKONDUTA EDO BIKOTEKIDEAREKIN
BIZI DIREN GAZTEEN ARTEAN (%)



Horri buruzko pertzepzioa, gainera, nahikoa ezberdina da nesken eta mutilen artean. Gizonezkoen ia bi herenek (%64) adierazi dute etxeko lanak erdi bana banatzen dituztela, eta emakumezkoen artean, berriz, hori adierazten dutenak adina dira lan horiek beraiek egiten dituztela diotenak (%48, bi kasuetan). Edonola ere, bai neskek bai mutilek aitortzen dute emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dutela.

Seme-alabak dituztenen artean aldeak handiagoak dira seme-alabak ez dituztenen artean baino. Horrek aditzera eman lezake seme-alabarik ez dagoen bitartean lana gehiago banatzen dela; haurrak datozen unean, ordea, betiko etxeko lanez gain (garbiketa, erosketak, sukaldea eta abar) haurrak zaindu behar direnean eta, beraz, ahalegin handiagoa egin behar denean, badirudi zamarik handiena emakumeak hartzen duela bere gain.

Bestalde, atzerrian jaiotako gazteen artean EAEn edo Espainiar Estatuan jaiotakoan artean baino gutxiago aipatzen da lanak berdintasunez banatzen direla eta emakumeek zama handiago dutela (ikus 48. taula).

Datu hauek 2004an bildutakoekin alderatuta, ikus daiteke lanak erdi bana egiten direla dioten kopuruak pixka bat gora egin duela, eta lan guztiak edo gehienak emakumeak egiten dituela diotenak behera (ikus 19. grafikoa).

48. taula

ETXEKO LANEN BANAKETA SEXUAREN, SEME-ALABEN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«PENTSA EZAZU ETXEAN EGIN BEHARREKO LANEZ, ESATERAKO EROSKETAK EGITEA, SUKALDEAN ARITZEA, GARBITZEA... LAN HORIEK ZENBATERAINO BANATZEN DITUZU ZURE BIKOTEKIDEAREKIN?»				
	GAZTEAK GUZTIRA	BIKOTEKIDEAZ BIZI DIRENAK GUZTIRA	SEXUA	
			GIZONA	EMAKUMEA
Mutilak egiten ditu etxeko lan guztiak edo ia guztiak	0	3	6	2
Mutilak egiten ditu etxeko lan gehienak	0	2	4	0
Neskak egiten ditu etxeko lan guztiak edo ia guztiak	2	14	4	21
Neskak egiten ditu etxeko lan gehienak	3	23	17	27
Etxeko lanak erdi bana egiten dituzue	7	54	64	48
Lan horiek beste pertsona batek egiten ditu	0	0	0	0
Ed/Ee	0	3	4	2
Gainerakoak (ez dira bikotekidearekin bizi)	87	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	206	79	127


(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA			SEME-ALABARIK BADUZU?	
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	BAI	EZ
Mutilak egiten ditu etxeko lan guztiak edo ia guztiak	3	6	3	2	4
Mutilak egiten ditu etxeko lan gehienak	5	6	0	0	3
Neskak egiten ditu etxeko lan guztiak edo ia guztiak	14	19	15	20	10
Neskak egiten ditu etxeko lan gehienak	22	10	29	30	18
Etxeko lanak erdi bana egiten dituzue	57	59	48	43	63
Lan horiek beste pertsona batek egiten ditu	0	0	0	0	0
Ed/Ee	3	0	5	5	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	134	17	55	86	120

19. grafikoa

ETXEKO LANEN BANAKETAREN BILAKAERA EZKONDUTA EDO BIKOTEKIDEAREKIN
BIZI DIREN GAZTEEN ARTEAN (2004-2008) (%)



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

2.4. FAMILIAREKIKO SATISFAZIO-MAILA

Gazteen erdiek baino gehixeagok (%53) adierazi dute familiako bizitzarekin oso gustura daudela, %40 nahikoa gustura daude eta %5 ez oso gustura.

Emakumeak gizonak baino pixka bat gusturago daude. Bikotekidearekin (ezkonduta ala ez) bizi direnek bikotekiderik gabe bizi direnek baino satisfazio-maila handiagoa ageri dute, eta seme-alabak dituztenek ere ez dituztenek baino gehiago. Azkenik, klase sozialak gora egin ahala igo egiten da, era berean, familiako egoerarekiko satisfazioa.

Atzerrian jaiotako gazteen artean, gustura ez dauden kopurua EAEn edo Espainiar Estatuan jaiotako gazteenen halako bi da. Familiako egoerari buruzko satisfazio-mailaren azpian dauden arazoietan sakondu ez bada ere, pentsa liteke familiatik (gurasoak, neba-arrebak eta baita ezkontide eta seme-alabak ere) urrun egoteak —atzerrian jaiotako gazte batzuen artean ematen den egoera, asko ez badira ere— beren egungo familiako egoerarekin hain gustura ez egotea azal lezakeela (ikus 49. taula).

49. taula

FAMILIAKO EGOERAREKIKO SATISFAZIO-MAILA SEXUAREN, EGOERA ZIBILAREN, SEME-ALABEN, KLASE SOZIALAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZENBATERAINO ZAUDE POZIK GAUR EGUN DUZUN FAMILIA-BIZITZAREKIN?»							
	GUZTIRA	SEXUA		EGOERA ZIBILA		SEME-ALABARIK DUZU?	
		GIZONA	EMAKUMEA	EZKONGABEA	EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN	BAI	EZ
Oso pozik	53	50	56	51	65	63	52
Nahiko pozik	40	43	37	42	30	32	41
Ez oso pozik	5	5	5	5	4	6	5
Batere pozik ez	0	1	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	1.290	206	103	1.397

(.../...)

(.../...)

	JAIOLEKUA			KLASE SOZIALA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Oso pozik	53	56	50	46	54	62
Nahiko pozik	41	39	37	42	41	34
Ez oso pozik	5	5	10	10	5	4
Batere pozik ez	0	0	1	1	0	0
Ed/Ee	1	0	2	2	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	192	1.180	110

Egungo familia-egoeraren arabera familia-bizitzarekiko satisfazio-mailaren analisi xeheago egin nahian, sexua, egoera zibila eta seme-alabak izatea edo ez izatea bezalako

aldagai ezberdinen konbinazioek duten eragina aztertu da. Horren ildotik, ohartu gara beren familia-bizitzarekin satisfazio-maila handiena duen multzoa ezkondata edo bikotekidearekin bizi diren eta seme-alabak dituzten gizonak osatutakoa dela. Aitzitik, deigarria da ezkondata edo bikotekidearekin bizi diren emakumeen artean apur bat gusturago ageri direla seme-alabak ez dituztenak, dituztenak baino²⁰ (ikus 50. taula).

50. taula

SEXUAREN, FAMILIAKO EGOERAREN ETA SEME-ALABAK IZATEAREN EDO EZ IZATEAREN ERAGIN KONBINATUA FAMILIAREKIKO SATISFAZIO-MAILAN

«ZENBATERAINO ZAUDE POZIK GAUR EGUN DUZUN FAMILIA-BIZITZAREKIN?»								
	GIZONA				EMAKUMEA			
	EZKONGABEA		EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEDUNA		EZKONGABEA		EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEDUNA	
	SEME-ALABEKIN	SEME-ALABARIK GABE	SEME-ALABEKIN	SEME-ALABARIK GABE	SEME-ALABEKIN	SEME-ALABARIK GABE	SEME-ALABEKIN	SEME-ALABARIK GABE
Oso pozik	42	48	78	70	70	55	57	65
Nahiko pozik	0	46	22	22	17	38	39	31
Ez oso pozik	58	5	0	6	14	5	4	3
Batere pozik ez	0	1	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	1	0	2	0	2	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	2	668	19	60	13	607	67	60

Bestalde, gaur egungo iritziak aurreko urteetan bildutakoekin alderatuta, gazteek beren familia-bizitzarekiko duten satisfazio-mailan ez da alde nabarmenik antzeman (ikus 51. taula).

²⁰ Dena den, datu hauek tentu handiz hartu behar dira, kategoria batzuetan inkestatuen kopurua oso txikia delako.

51. taula

FAMILIAREKIKO SATISFAZIO-MAILAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZENBATERAINO ZAUDE POZIK GAUR EGUN DUZUN FAMILIA-BIZITZAREKIN?»			
	2000	2004	2008
Oso	96	97	93
Pixka bat + Batere ez	4	2	5
Ed/Ee	0	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500


Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

2.5. GAZTERIAREN FAMILIA-EGOERAREN DESKRIBAPENA

Familiako bizitzaren eraketan elkarreragiten duten faktore guztien baterako ikuspegia osatze aldera, berriro ere Korrespondentzia Bitarren Faktore Analisiaren teknika estatistikoa erabili dugu. Horretarako, gazteen familia-baldintzei buruzko aldagaiak baliatu dira (non bizi diren, non bizi nahiko luketen, beren diru-iturriak eta familia-bizitzarekiko satisfazio-maila), eta baita oinarrizko aldagai soziodemografikoak ere, hala nola sexua, adina, jaiolekua, egoera zibila eta seme-alabak izatea ala ez (ikus 20. grafikoa).

20. grafikoa

GAZTERIAREN FAMILIA-EGOERAREN DESKRIBAPENA



Behin analisia eginda, ikusi da lehen faktoreak bariantzaren %87a azaltzen duela, eta beraz faktore hori bakarrik hartuko dugu kontuan. Aldagaien pisuak linealki irudikatu dira «familia-emantzipazioa» dei litekeen ardatz bertikal batean, eta faktorea alde batetik egiazko

eta nahi izandako emantzipazioaren eta, bestetik, emantzipaziorik eta emantzipatzeko gogorik ezaren arteko *continuum* batean mugitzen da.

Analisiaren arabera, oinarritzko bi multzo bereiz daitezke gazteen artean:

- Grafikoaren goiko aldean, egiazko eta nahitako emantzipazioaren esparruan alegia, ezkondata edo bikotekidearekin bizi diren gazteak daude, familiarik aparteko etxebizitza batean bizi direnak, beren diru-sarreretatik (bikotekide batenak edo bienak) bizi direnak eta aparte bizi nahi dutenak. Batik bat 24 urtetik gorako gazteak eta seme-alabak dituztenak dira.
- Grafikoaren beheko aldean, alegia emantzipaziorik ezaren esparruan —ez egiazkoa ez nahi izandakoa—, beren jatorrizko familiarekin eta haien dirutik bizi direnak eta haiekin bizi jarraitu nahi dutenak ditugu. Funtsean 20 urtetik beherako gazteak dira.

2.6. ONDORIOAK

EAEEn bizi diren gazte gehien-gehienak ezkongabeak dira eta familiarekin bizi dira. Hori da 15 eta 19 urte arteko ia gazte guztien egoera; adinean aurrera egin ahala, ezkontzak eta izatezko bikoteak areagotu egiten dira, eta baita jatorrizko familiarik aparteko beste bizileku batera aldatzen diren gazteen kopurua ere.

Gutxi dira seme-alabak dituztenak, baina edonola ere egoera hori gero eta sarriago gertatzen da adinean gora egin ahala, eta ohikoena seme edo alaba bakarra edo, gehien-gehienez, bi izatea da. Gaztaroan seme-alabak izatea dezente ohikoagoa da atzerrian jaiotakoen artean EAEEn jaiotakoen artean baino.

Gazte gehienak familiarekin bizi badira ere, gehiengoa dira aparte bizi nahiko luketenak. Horri dagokionez, familiaren etxean jarraitzeko gogotsuenak 20 urtetik beherakoak dira.

Gazteek etxetik ateratzeko duten zailtasun nagusia, haien esanetan, etxebizitzaren prezio garestia da, bai erosteko bai alokatzeko. Erdiek baino gehiagok diru-iturri propioa izateko zailtasuna aipatu dute eta familiaren etxean bizitzea erosoagoa dela aitortu.

Gazteen independentzia ekonomikoari dagokionez, herenek adierazi dute soilik edo nagusiki beren diru-sarreretatik, bikotekidearen diru-sarreretatik edo erdi bana beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik bizi direla, hau da, ekonomikoki familiarekiko burujabe mantentzen direla. Gehiago dira, hala ere, soilik edo nagusiki familiaren dirutik bizi direnak. 25 urtetik aurrera, ekonomikoki burujabeak direnak gehiengoa dira. Adin horretan

gehiengoa dira, halaber, hilean 600 euro baino gehiago izaten dutenak eskuragarri, eta 20 urtetik beherako gehien-gehienek, berriz, 300 euro baino gutxiago izaten dute.

Bestalde, gizon eta emakumeen egiazko berdintasuna ikertu da ezkondata edo bikotekidearekin bizi diren gazteek etxeko lanak nola banatzen dituzten aztertuz. Gazte horien erdiek baino gehixeagok diote etxeko lanak erdi bana egiten dituztela, baina gainerakoen artean lanen zamarik handiena emakumeek hartzen dute gaur egun ere. Nolanahi ere, lau urtetik hona zereginak erdi bana egiten dituzten gazteen portzentajea zertxobait igo da.

Orotara, EAEn bizi diren gazte gehien-gehienek adierazi dute beren egungo familia-bizitzarekin oso edo nahikoa gustura daudela.

Bestalde, atzerrian jaiotako gazteen familia barruko bizikidetzeta-moldeei erreparatuz —emantzipazio-maila handiagoa eta emantzipatzeko adin goiztiarragoa, ezkontzaren nagusitasuna izatezko bikoteen aldean eta seme-alaba gehiago— ondoriozta liteke familiako egituren eraketan jatorrizko herrialdearen ohiturek eta kulturak funtsezko eragina dutela; horrenbestez, EAEn jaiotako gazteen artean eta atzerrian jaiotakoen artean alde nabarmena antzeman daiteke.

KGk

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

3. Aisia eta denbora librea



3

Aisia eta denbora librea

3.1. SARRERA

Aisiaz ulertzen dugu derrigorrezkoak ez diren jardueretan ematen dugun denbora, alegia lana eta ikasketak egiteaz nahiz jatea, lo egitea edo bestelako oinarritzko premiak asetzeaz bestelako borondatezko jardueretan ematen duguna, bai atseden hartzeko bai denbora pasatzeko.

Beste hainbat gauza bezala, aisiak ere bilakaera nabarmena izan du azken urteotan; eskaintza handiagoa da eta, gainera, neurri batean aurrerakuntza teknologikoei zein Ongizatearen Estatuaren garapenari eta gizarte-programei esker, esan genezake aisia, aldatzeaz gain, demokratizatu ere egin dela. Gaur egun lehen baino aisiarako denbora gehiago dugu, jende gehiagok du denbora hori eta, aldi berean, aisialdia edo denbora librea baliatzeko eskaintza handiagoa dugu.


Hala ere, aisiaren bilakaera horretan bi aldaketa zehatz badira nabarmendu beharrekoak, akaso gazteengan biztanleriaren beste atal batzuegan baino gehiago eragiten dutenak:

- Aisiaz gozatzeko molde gehienak kontsumista bihurtu dira: dirua ordaintzen dugu bidaia bat egiteko, lagunekin zerbait hartzeko, film bat ikusteko, kontzertu edo museo batera joateko, telefonoz hitz egiteko, gimnasio batean kirola egiteko, bideojokoekin aritzeko... eta zenbait kasutan, batez ere gazteen artean, aisia saltoki-guneen moduko eremu kontsumistetara eraman da.
- Aisia, eguneroko bizitzako gainerako osagaiak bezala, teknologiko bihurtuz joan da. Aurrerakuntza teknologikoak hainbat arlotan —informatika eta ordenagailuak, bideojokoen kotsolak, musika-tresnak, telefono mugikorrak, kamera digitalak eta abar— izugarri hedatu dira, eta horrek aisiaz duela gutxi pentsaezinak ziren modu batzuetan goatzera eraman gaitu.

Kapitulu honetan, gazteek aisiarako zenbat denbora duten, denbora hori nola erabiltzen duten eta aisialdiko jarduera ohikoenak zeintzuk diren aztertzen ahaleginduko gara. Horrez gain, gazteen asoziazionismoari gainbegiratu emango diogu, eta Internetek gazterian duen eraginari bereziki erreparatuko.

3.2. AISIARAKO DENBORA EDUKITZEA

Gazteen ia erdiek (%46) adierazi dute batez beste lau ordu libre baino gehiago dituztela lanegunetan. %30ek diote lanegunetan hiru eta lau ordu bitarte dituztela libre egunean, %18k ordubete edo bi eta %5ek ordu libre bat baino gutxiago (ikus 21. grafikoa).



Egoera dezente aldatzen da gaztearen lanbidearen arabera: egunean denbora libre gehien dutenak langabeak dira, eta gutxien dutenak lana eta ikasketak uztartzen dituztenak nahiz jardun nagusia etxeko lanak dituztenak (ikus 52. taula).

Eskura izaten diren ordu libreetan funtsezko eragina duen beste alderdi bat seme-alabak izatea ala ez izatea da: seme-alabak dituztenek ez dituztenek baino denbora libre gutxiago dute.

Bestalde, nesken aldean mutilek denbora libre gehiago dutela adierazi dute. Eta bi aldagaiok —sexua eta seme-alabak— batuz gero, ohartzen gara denbora libre gutxien dutenak seme-alabak dituzten emakumeak direla (ikus 53. taula).

2008ko eta 2004ko datuen artean ez da alde alderik antzeman gazteek aisiarako duten denboran, baina urte horietan 2000n baino zertxobait gehiago dira egunean lau ordu baino gehiago dutela diotenak (ikus 54. taula).

52. taula

DENBORA LIBREA EDUKITZEA SEXUAREN, SEME-ALABEN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«LANEGUNETAN, ZENBAT DENBORA LIBRE IZATEN DUZU BATEZ BESTE?»					
	GUZTIRA	SEXUA		SEME-ALABARIK BADUZU?	
		GIZONA	EMAKUMEA	BAI	EZ
Ordubete baino gutxiago	5	5	5	15	4
Ordubete edo bi ordu	18	16	21	19	18
Hiru edo lau ordu	30	30	31	25	31
Lau ordu baino gehiago	46	49	42	40	46
Ed/Ee	1	1	1	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	103	1.397

(…/…)

(…/…)

	JARDUN NAGUSIA				
	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTE ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Ordubete baino gutxiago	5	5	2	6	16
Ordubete edo bi ordu	19	18	26	10	14
Hiru edo lau ordu	31	33	34	13	21
Lau ordu baino gehiago	44	44	36	69	49
Ed/Ee	1	1	2	1	0
Portzentajea guztira	100	100	100	100	100
Maiztasun absolutuak	582	620	155	108	25

53. taula

SEXUAK ETA SEME-ALABAK IZATEAK ALA EZ DENBORA LIBREA EDUKITZEAN DUTEN ERAGIN KONBINATUA

«LANEGUNETAN, ZENBAT DENBORA LIBRE IZATEN DUZU BATEZ BESTE?»					
	SEXUA				
	GUZTIRA	GIZONA		EMAKUMEA	
		SEME-ALABAK BAI	SEME-ALABARIK EZ	SEME-ALABAK BAI	SEME-ALABARIK EZ
Ordubete baino gutxiago	5	6	5	18	3
Ordubete edo bi ordu	18	7	16	22	21
Hiru edo lau ordu	30	27	30	24	32
Lau ordu baino gehiago	46	61	48	34	43
Ed/Ee	1	0	1	2	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	22	728	81	669

54. taula

DENBORA LIBREA EDUKITZEAREN BILAKAERA (2000-2008)

«LANEGUNETAN, ZENBAT DENBORA LIBRE IZATEN DUZU BATEZ BESTE?»			
	2000	2004	2008
Ordubete baino gutxiago	4	3	5
Ordubete edo bi ordu	22	20	18
Hiru edo lau ordu	34	29	30
Lau ordu baino gehiago	39	46	46
Ed/Ee	1	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

3.3. AISIALDIKO JARDUERAK

Gazteen artean, aisialdiko jarduera ohikoenak (lanegunetan zein jaiegunetan) lagunekin edo bikotekidearekin egotea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea eta musika entzutea dira. Horien atzetik doaz tabernetara edo kafetegietara joatea, kirola egitea, etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritzea Internet, messenger eta abar erabiliz, ezer egin gabe atsedean hartzea, familiarekin egotea, diskoteketara joatea, paseatzea edo kalean egotea eta irakurtzea (liburuak —baina ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak eta abar).

Egunak lanegun edo asteburu zein jaiegun izan, aldeak nabarmenak dira.

Lanegunetan, aisialdiko jarduera ohikoenak telebista, bideoa edo DVDa ikustea, lagunekin edota bikotekidearekin egotea eta musika entzutea dira. Jarraian doakie kirola egitea, ordenagailuarekin jardutea, familiarekin egotea, irakurtzea, atsedean hartzea, paseatzea edo kalean egotea, tabernetan ibiltzea, bideo-jokoen kontsolekin edo ordenagailuko jokoekin aritzea eta telefonoz hitz egitea edo mugikorrez mezuak bidaltzea.

Asteburu eta jaiegunetan, berriz, jarduerarik ohikoenak lagunekin edo bikotekidearekin egotea eta tabernetan ibiltzea dira (azken jarduera hori hamargarren lekuan dago lanegunetan). Zertxobait gutxiago aipatu dira diskoteketara joatea (lanegunetan apenas egiten dena), kirola egitea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea, atsedean hartzea, paseatzea edo kalean egotea, musika entzutea, familiarekin egotea edo ikuskizunetara joatea (lanegunetan apenas aipatzen den jarduera). Ordenagailuan denbora-pasa aritzea edo irakurtzea dezente gutxiago egiten dira asteburu eta jaiegunetan lanegunetan baino. Eta, gazteek gutxi aipatzen dituzten arren, mendira joatea eta kalean edatea asteburuetakoko berezko jarduerak dira, lanegunetan egiten ez direnak (ikus 55. taula).

55. taula
AISIALDIKO JARDUERAK

«LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?»*			
	ORO HAR GUZTIRA**	LANEGU- NETAN GUZTIRA	ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN GUZTIRA
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	71	45	59
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	55	49	21
Musika entzun	46	42	16
Tabernetara edo kafetegietara joan	37	10	33
Kirola egin	35	26	22
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, messenger, e-mailak...)	28	24	9
Atsedean hartu, ezer ez egin	28	13	19
Familiarekin egon	28	19	16
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	24	1	23
Paseatu, kalean egon	23	11	17
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	20	18	5
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	13	2	12
Bideo-jokoekin kontsolekin (Play Station, PSP, DS...) edo ordenagailuko jokoekin aritu.	12	10	4
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	11	9	4
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	10	4	7
Mendirara joan	9	3	9
Kalean edan	6	1	6
Kirol-ikuskizunetara joan	6	1	5
Kultura jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	4	3	2
Joko-aretoetara joan	2	0	2

(.../...)

(…/…)

Elkarteetako edo borondatezko lanak	2	1	1
Ziberrera joan	2	1	1
Bestelako zaletasun edo hobbyak	7	4	4
Ed/Ee	6	4	4
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.500	1.500

* Taulako portzentajeak interpretatzeko orduan, kontuan izan behar da portzentajeak ez direla jarduera bakoitza egiten duten gazteenak, baizik eta gazteei beren aisialdian gehien egiten dituzten hiru jardueri buruz galdetuta aipatzen dituztenenak. Baturaren emaitza ez da 100, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

** Oro har guztira kategorian, beren denbora librean dagokion jarduera egiten dutela adierazi duten gazteen portzentajea jaso da, alde batera utzita jarduera hori lanegunetan edo jaiegunetan egiten duten.

Aisialdi-motan gehien eragiten duten aldagaiak adina eta seme-alabak izatea ala ez izatea dira. Sexuak ere nolabaiteko eragina badu, baina ez aurreko aldagaiak adinakoa.

Jarduera horiek lanegunetan nahiz asteburu edo jaiegunetan egin, ondorio garbi bat da adinak behera egin ahala jarduera jakin batzuek gora egiten dutela: adiskideekin egotea, musika entzutea, kirola egitea, ordenagailuarekin denbora-pasa aritzea, bideo-jokoekin edo ordenagailuko jokoekin aritzea, diskoteketara joatea, telefonoz hitz egitea, mugikorra erabiltzea edo klean edatea. Aldiz, adinean gora egin ahala gehiago dira denbora librean familiarekin egotera, paseatzera edo klean egotera, dendetan ibiltzera edo mendira joatera ematen dutela diotenak. Gainera, 20 urtetik gora, gazteek lehenago baino gehiago irakurtzen dute eta ikuskizun gehiagotara joaten dira. Tabernetan gehien ibiltzen direnak, berriz, 20 eta 24 urte artekoak dira (ikus 56. taula).

56. taula

AISIALDIKO JARDUERAK ADINAREN ARABERA

«LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?»*				
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK		
		15-19	20-24	25-29
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	71	77	72	67
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	55	51	56	57

(…/…)

(.../...)

Musika entzun	46	61	45	35
Tabernetara edo kafetegietara joan	37	29	42	37
Kirola egin	35	41	33	33
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, messenger, e-mailak...)	28	36	27	21
Atsedean hartu, ezer ez egin	28	29	26	29
Familiarekin egon	28	19	25	37
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	24	33	25	14
Paseatu, kalean egon	23	21	21	28
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	20	13	24	21
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	13	7	15	15
Bideo-jokoen kontsolekin (Play Station, PSP, DS...) edo ordenagailuko jokoekin aritu	12	15	12	9
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	11	14	12	8
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	10	8	10	12
Mendira joan	9	5	10	13
Kalean edan	6	9	7	3
Kirol-ikuskizunetara joan	6	5	7	4
Kultur jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	4	5	5	3
Joko-aretoetara joan	2	3	1	2
Elkarteetako edo borondatezko lanak	2	2	3	1
Ziberrera joan	2	2	2	1
Bestelako zaletasun edo hobbyak	7	5	7	7
Ed/Ee	6	4	5	7
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500

* Datuetan, beren denbora librean dagokion jarduera egiten dutela adierazi duten gazteen portzentajea jaso da, alde batera utzita jarduera hori lanegunetan edo jaiegunetan egiten duten. Baturaren emaitza 100 baino gehiago da, kasu bakoitzean hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Datuetan areago sakonduz, une batez 15 eta 17 urte arteko nerabeen aisian sartu-irtena egingo dugu. Adin-tarte horretako gazteek beren denbora librean gehien egiten dituzten aisialdiko jarduerak (lanegunetan nahiz jaiegunetan) gainerako gazteek aipatutako berberak dira: lagunekin edo bikotekidearekin egotea, musika entzutea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea, kirola egitea eta etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritzea (denak ere 15 eta 17 urte arteko gazteen %40k baino gehiagok aipatuak). Horien atzetik doaz diskoteka edota dantza-aretoetara joatea, ezer egin gabe atseden hartzea, tabernetan ibiltzea, paseatu edo kalean egotea, familiarekin egotea, bideo-jokoen kontsolekin aritzea, irakurtzea eta telefonoz hitz egitea edo mugikorrez mezuak bidaltzea.

Gazteen aisiarekin jarraituz, 2005ean CIS ikerketa soziologikoen zentroak inkesta bat egin zuen, eta han biztanle-multzo guztiei galdetu zitzaizkien haien iritziz zein bi gauza egiten zituzten nerabeek beren denbora librean. Gehien aipatutako bost erantzutetatik lauk teknologiarekin zerikusia zuten. Hain zuzen ere, gehien eman zen erantzuna ordenagailua erabiltzea izan zen (adin-tarte horrek egiten dituen jardueren artean bosgarren lekuan dagoela egiaztatu den arren), eta hirugarrena bideo-jokoetan aritzea (gazteek berek hamaikagarren lekuan jartzen dute). Agerikoa da nerabeek denbora librean egiten dutenari buruzko pertzepzio orokorra eta benetan egiten dutena ez datozela guztiz bat (ikus 57. taula).

EAEko 15 eta 29 urte arteko gazte guztietara itzuliz, egiaztatu da seme-alabak izateak bereizketa garrantzitsua markatzen duela egiten diren aisialdiko jardueretan. Seme-alabak dituztenek gehien egiten dituzten hiru jarduerak, hurrenez hurren, familiarekin egotea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea eta paseatu edo kalean egotea dira. Gainera, seme-alabak izatean nabarmen jaisten da hainbat jarduera egiteko maiztasuna, hala nola lagunekin egotea, tabernetan ibiltzea, diskoteketara joatea, musika entzutea, kirola egitea, ordenagailuarekin edo bideo-jokoen kontsolekin aritzea, irakurtzea eta ezer egin gabe atseden hartzea; azkenik, behin seme-alabak edukita inor ez da kalean edatera joaten (ikus 58. taula).

57. taula

AISIALDIKO JARDUERAK NERABEEN ARTEAN (15-17 URTE)

JARDUERAK	«ZURE IRITZIZ, BATEZ ERE ZEIN GAUZA EGITEN DITUZTE NERABEEK DENBORA LIBREAN?»		«LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?»	
	BIZTANLERIA > = 18 URTE, ESPAINIAR ESTATUA 2005		15-17 URTEKO GAZTEAK, EAE 2008*	
	%	LEKUA AIPAMENEN ZERRENDAN	LEKUA AIPAMENEN ZERRENDAN	
Ordenagailua eta Internet erabili	41	1	5	
Telebista ikusi	38	2	3	
Bideo-jokoetan aritu	36	3	11	
Lagunekin egon	27	4	1	
Mugikorrez hitz egin, jolastu eta mezuak bidali	25	5	13	
Kirola egin	6	6	4	
Ezer ez	5	7	7	
Orotariko jokoetan aritu bakarka	4	8	-	
Musika entzun	4	9	2	
Etxeko lanak egin eta ikasi	3	10	-	
Irakurri	1	11	12	
Bestelako erantzunak	2	12	-	
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	2.977	-	232	

* EAEko gazteei beraiek gehien egiten dituzten jardueri buruz galdetu zaie. Aurkeztutako zerrenda aisialdiko denboran egindako jardueri buruzkoa da, alde batera utzita jarduerok lanegunetan edo jaiegunetan egiten diren. CISen galdesortan jasotako erantzun batzuk ez dira EAEen egindako inkestan barne hartu (esaterako, «etxeko lanak egin eta ikasi»).

Iturria: CIS 2.621 azterlana, *Actitudes y opiniones sobre la infancia* 2005eko urria. Datuak portzentajetan aurkeztu dira eta hamartarrak kenduta biribildu dira. Baturaren emaitza 100 baino gehiago da, bi erantzun eman baitzitezkeen.

58. taula

AISIALDIKO JARDUERAK SEME-ALABAK IZATEAREN EDO EZ IZATEAREN ARABERA

«LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?»*			
	GUZTIRA	SEME-ALABARIK BADUZU?	
		BAI	EZ
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	71	41	74
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	55	63	54
Musika entzun	46	38	47
Tabernetara edo kafetegietara joan	37	21	38
Kirola egin	35	16	37
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, messenger, e-mailak...)	28	14	29
Atsedean hartu, ezer ez egin	28	20	28
Familiarekin egon	28	75	24
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	24	4	25
Paseatu, kalem egon	23	50	21
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	20	10	21
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	13	10	13
Bideo-jokoen kontsolekin (Play Station, PSP, DS...) edo ordenagailuko jokoekin aritu	12	3	13
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	11	11	11
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	10	12	10
Mendira joan	9	7	10
Kalem edan	6	0	7
Kirol-ikuskizunetara joan	6	4	6
Kultur jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	4	3	4
Joko-aretoetara joan	2	1	2
Elkarteetako edo borondatezko lanak	2	1	2
Ziberrera joan	2	3	1

(...)

(../...)

Bestelako zaletasun edo hobbyak	7	8	6
Ed/Ee	6	8	5
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	103	1.397

* Datuetan, beren denbora librean dagokion jarduera egiten dutela adierazi duten gazteen portzentajea jaso da, alde batera utzita jarduera hori lanegunetan edo jaiegunetan egiten duten. Baturaren emaitza 100 baino gehiago da, kasu bakoitzean hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Hain nabarmenak ez diren arren, sexuak ere aldeak markatzen ditu denbora libreaz gozatzeko orduan: neskek mutilek baino denbora gehiago ematen dute telebista, bideoa edo DVDa ikusten, familiarekin egoten, paseatu edo kalean egoten, irakurtzen, telefonoz hitz egiten edo mugikorrez mezuak bidaltzen eta dendetara joaten. Mutilek, berriz, neskek baino denbora gehiago pasatzen dute kirola egiten eta kirol-ikuskizunetara joaten, eta baita ordenagailuan edo bideo-jokoen kontsolekin ere. Edonola ere, lagunekin egotea da, alde handiz, bai neskek bai mutilek gehien egiten duten jarduera (ikus 59. taula).

59. taula

AISSIALDIKO JARDUERAK SEXUAREN ARABERA

«LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?»*	GUZTIRA	SEXUA	
		GIZONA	EMAKUMEA
		Lagunekin edo bikotekidearekin egon	71
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	55	50	59
Musika entzun	46	47	45
Tabernetara edo kafetegietara joan	37	36	37
Kirola egin	35	46	24
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, messenger, e-mailak...)	28	30	26
Atsedean hartu, ezer ez egin	28	27	29
Familiarekin egon	28	20	35
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	24	26	22
Paseatu, kalean egon	23	20	27

(../...)

(.../...)

Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	20	15	25
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	13	11	14
Bideo-jokoen kontsolekin (Play Station, PSP, DS...) edo ordenagailuko jokoekin aritu	12	19	5
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	11	8	15
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	10	4	16
Mendira joan	9	11	8
Kalean edan	6	8	5
Kirol-ikuskizunetara joan	6	8	3
Kultur jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	4	3	5
Joko-aretoetara joan	2	3	1
Elkarteetako edo borondatezko lanak	2	2	2
Ziberrera joan	2	2	1
Bestelako zaletasun edo hobbyak	7	7	6
Ed/Ee	6	6	5
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750

* Datuetan, beren denbora librean dagokion jarduera egiten dutela adierazi duten gazteen portzentajea jaso da, alde batera utzita jarduera hori lanegunetan edo jaiegunetan egiten duten. Baturaren emaitza 100 baino gehiago da, kasu bakoitzean hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Gazteriaren aisian esku hartzen duten faktore guztiak batera aztertze aldera, Korrespondentzia Bitarren Faktore Analisi bat egin da, datu agregatuen fitxategi batetik abiatuta. Horretarako, aisialdiko jardueri buruzko aldagaiak beraz gain, beste aldagai soziodemografiko batzuk ere baliatu dira, hala nola sexua, adina, jaiolekua, jardun nagusia, ikasketa-maila, hileroko diru-sarrerak, bizilekua (norberarena edo familiarena), seme-alabak, lanegunetan izaten den denbora libre eta aurrez Internet erabili izana.

Behin analisisa eginda, ikusi da lehen faktoreak bariantzaren %47a azaltzen duela, eta bigarrenak %19a. Aldagaien pisuak (betiere esanguratsuak badira) faktore horiekin identifikatutako bi ardatzetan irudikatu dira bi dimentsioko plano batean; ardatz horizontala (lehen faktorearena, pisutsuagoa) seme-alabak eta familiako erantzukizunak izatearekin ala ez izatearekin identifikatzen da, eta ardatz bertikala (aurrekoak baino garrantzi txikiagoa duen bigarren faktorearena) diru eta ikasketa gehiago edo gutxiago izatearekin identifikatzen da.

Bi ardatzetan duten kokapenari erreparatuz, denbora librean egiten dituzten jardueri dagokienez argi eta garbi bereizita dauden bi gazte-multzo ikus daitezke, eta beste bi multzo, hauek lausoxeagoak, neurri batean aurrekoekin uztartzen direnak:

- Grafikoaren eskuinaldean, alegia seme-alabak eta familiako erantzukizunak izateari dagokiona, seme-alabak dituzten eta beren etxebizitza propioan (gurasoekin ez) bizi diren gazteak daude, eta horien jarduera nagusiak, hurrenez hurren, familiarekin egotea, paseatu edo kalean egotea eta telebista, bideoa eta DVDa ikustea dira. Multzo horretan pisu handia dute atzerrian jaiotako gazteek (gogora dezagun gaztaroan, hau da, 30 urte bete aurretik, haurrak izatea dezente ohikoagoa dela atzerrian jaiotakoen artean EAEn jaiotakoen artean baino) eta Internet sekula erabili ez duten haiek. Gazte hauen aisia familiarra, oso eskuragarria eta merkea da.
- Ardatzaren beste muturrean, grafikoaren ezker aldean, alegia seme-alabarik eta familiako erantzukizunik ez izateari dagokiona, 15 eta 19 urte bitarteko gazteak, ikasleak, familiaren etxean bizi direnak, seme-alabarik ez dutenak eta hilean 60 eurotik beherako diru-sarrerak izaten dituztenak ditugu, eta horien aisialdiko jarduera nagusiak, edo gutxienez beste multzoekiko ezberdinenak, ordenagailuan denbora-pasa aritzea, diskoteketara joatea eta kalean edatea dira. Multzo honetan sartzen dira, halaber —pisu txikiagoaz bada ere—, hilean 60 eta 300 euro arteko diru-sarrerak izaten dituzten gazteak nahiz aisialdiko jarduera nagusiak kirola egitea eta lagunekin edo bikotekidearekin egotea dituztenak. Gazteon aisia batik bat harreman sozialei lotua eta teknologikoa da.


Bigarren multzo honetan gazteenak daude, adin-tarte horri lotu ohi zaizkion ezaugarriez, baina aurrekoan adinaren pisua txikiagoa da, eta familiako egoera handiagoa adina gorabehera.

Bi horiez gain, nagusiki hilean izaten duten diru-kopuruaren eta egindako ikasketen arabera bereizten diren beste bi multzo antzeman dira:

- Grafikoaren goiko aldean, alegia dirua eta ikasketa-maila altua izateari dagokiona, hilean 900 euro baino gehiago izaten duten eta ikasketa ertainak zein goi-mailakoak dituzten gazteak ageri dira, eta horien aisialdiko jarduera bereizgarriak ikuskizunetara (zinema, antzerkia, kontzertuak eta abar) joatea, irakurtzea eta tabernetan ibiltzea dira. Lan egiten duten eta 24 urte baino gehiago dituzten gazteak dira honakoak. Multzo horren aisia gainerakoena baino kulturalagoa eta garestiagoa da. Aldi berean, aisia konbentzional eta helduagoa ere bada.
- Grafikoaren beheko muturrean, aldiz, hilean diru gutxi izaten duten eta oinarritzko ikasketak egin dituzten gazteak ditugu. Gazteok batik bat hilean 60 euro baino gutxiago

izaten dute, oinarrizko ikasketak egin dituzte eta astean zehar denbora libre gutxi dute (egunean ordubete baino gutxiago lanegunetan), eta horien aisialdiko jarduera nagusiak kalean edatea, musika entzutea eta telefonoz hitz egitea edo mugikorrez mezuak bidaltzea dira. Gehienak 15 eta 19 urte artekoak edota atzerrian jaiotakoak dira. Multzot honen aisia berritzaileago, merkeago eta gazteenen berezkoagoa da.

Egiazta daitekeenez, ahalmen ekonomiko urriko 15 eta 19 urte arteko gazteak bi multzotan ageri dira: seme-alabarik eta familiako erantzukizunik ez duten gazteen multzoan eta diru gutxi izaten duten eta oinarrizko ikasketak egin dituztenen multzoan. Bestalde, atzerrian jaiotako gazteak ere bi multzotan ikus daitezke, pisu nabarmenez gainera: seme-alabak eta familiako erantzukizunik dituztenen eta diru gutxi izaten duten eta oinarrizko ikasketak egin dituztenen multzoetan hain zuzen (ikus 22. grafikoa).



3.4. ASOZIAZIONISMOA

Euskadiko hamar gaztetik lauk adierazi dute elkarteren bateko kide direla, hura edozein motakoa delarik ere. Kopuru hori gutxi gorabehera bere horretan mantendu da azken urteotan: 1990ean EAeko gazteen %44k zioten elkarteren bateko kide zirela, 2000. urtean %42 ziren eta 2008an %41 (ikus 60. taula).

60. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEAREN BILAKAERA (1990-2008)

	1990	2000	2008
Elkarteren bateko kide diren gazteen portzentajea	44	42	41
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	2.282	1.364	1.500

Iturria: *Jóvenes Vascos 1990* eta *Euskadiko gazteak 2000*.

EAEn, asoziazionismo-maila Europako batez bestekoa (%22) baino dezente handiagoa da, eta soilik Danimarkako, Alemaniako, Suediako, Austriako eta Herbehereetako gazteek ageri dute Euskadikoek baino maila handiagoa (ikus 61. taula).

Oro har, elkarreteetako kide gehiago daude gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, Gipuzkoan gainerako lurraldeek baino, eta gazteen artean; adinak aurrera egin ahala, kideen kopuruak behera egiten du. Bestalde, kideen portzentajea handiagoa da EAEn jaiotako artean atzerrian jaiotako artean baino (ikus 62. taula).

61. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA EB-EKO GAZTERIAREKIN ALDERATUTA

	2007/2008
Danimarka	47
Alemania	46
Suedia	45
Austria	43
Herbehereak	42
EAE	41
Finlandia	38
Belgika	35
Luxenburgo	29
Irlanda	28
Malta	25
Frantzia	23
Europar Batasuna (27)	22
Erresuma Batua	21
Eslovenia	18
Estonia	17
Txekiar Errepublika	16
Zipre	15
Portugal	14
Italia	13
Hungaria	13
Espainia	12
Eslovakia	12
Grezia	11
Letonia	10
Lituania	10
Polonia	9
Errumania	7
Bulgaria	7

* EBri buruzko datuak 2007an Europako Batzordearen eskariz egindako *Young Europeans. A Survey Among Young People Aged Between 15-30 in the European Union, Flash Eurobarometer 202* ikerlanetik hartu dira. Kasu honetan 19.625 elkarrizketa egin zitzaizkien Europar Batasun osoko 15 eta 30 urte bitarteko gazteei, eta galdera zehatza honakoa zen: «Are you a member of an organisation?». Datuak hamartarrak kenduta biribildu dira.

62. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA SEXUAREN, ADINAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Elkarteren bateko kide diren gazteen portzentajea	41	49	34	50	41	34
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(.../...)

(.../...)

	LURRALDEA			JAIOLEKUA		
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Elkarteren bateko kide diren gazteen portzentajea	39	38	48	44	30	23
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	402	600	498	1.288	83	128

Elkarte-mota ezberdinei erreparatuz, ohartzen gara kide gehien biltzen dituztenak kirol-elkarteak direla, gazteen %22k diotenez; gainera, %29k adierazi dute gaur egun elkarte bateko kide izan ez arren, lehen kide izandakoak direla.

Gazte gehien biltzen dituzten hurrengo elkarte-motak txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak eta abar) eta elkarte kultural edo artistikoak dira (gazteen %7 eta %6, hurrenez hurren).

Gainera, gazteen %4k diote musika-talderen bateko kide direla, %3k mendi-elkarteren batekoak, beste %3k ikasle-talde batekoak eta beste hainbestek (%3) sindikatu batekoak. %2 eskauten moduko gazte-talde bateko kide dira, eta %11k diote aurrez tankera horretako elkarteren bateko kide izanak direla. %2 garapenerako laguntza-talderen bateko kide dira, eta beste hainbeste euskararen aldeko talde batekoak nahiz osasunarekin zerikusia duen talderen batekoak. Gaur egun ez dira %2ra heltzen, bestalde, talde ekologista bateko, giza eskubideen aldeko edota emakumezkoekin zein elbarritasunarekin lotura duen talde bateko kide diren gazteak nahiz talde erlijioso, politiko, immigranteen aldeko, profesional, bakezale edo antimilitaristetako kideak (ikus 63. taula).

63. taula

GAZTEEN ETA ELKARTE-MOTEN ARTEKO HARREMANAK

«ELKARTE-MOTA HAUEI BEGIRA, ESANGO ZENIDAKE HORIETAKO BATEKO KIDE ZAREN, GAUR EGUN EZ BAINA NOIZBAIT IZAN ZAREN, EDO SEKULA IZAN EZ ZAREN?»					
	KIDE DA	KIDE IZAN DA	INOIZ EZ DA KIDE IZAN	ED/EE	PORTZENTAJEA GUZTIRA
Kirol-elkarteak	22	29	48	0	100
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunartekak, konpartsak, blusak...)	7	8	85	1	100
Elkarte kultural edo artistikoak	6	13	80	0	100
Musika-bandak, musika-taldeak	4	11	84	0	100
Mendi-talde edo -elkarteak	3	10	86	1	100
Ikasle-elkarteak	3	7	90	1	100
Sindikatuak	3	1	95	1	100
Eskautak, gazte-klubak	2	11	86	1	100
Hirugarren munduaren garapenerako laguntza	2	4	92	1	100
Euskararen aldeko taldeak	2	3	95	1	100
Osasunarekin lotura dutenak	2	2	95	1	100
Ekologistak	1	3	95	1	100
Giza eskubideen aldekoak	1	3	95	1	100
Emakumezkoekin lotura dutenak	1	3	96	1	100
Elbarritasunekin lotura dutenak	1	2	96	1	100
Erlinjiosoak	1	2	96	1	100
Politikoak	1	1	97	1	100
Immigranteei laguntzeko elkarteak	1	1	97	1	100
Profesionalak	1	1	98	1	100
Bakezaleak edo antimilitaristak	0	3	95	1	100
Bestelakoak	2	1	94	4	100

64. taula

ELKARTE-MOTA EZBERDINETAKO KIDE IZATEAREN BILAKAERA (2000-2008)*

«ELKARTEETAKO KIDE IZATEA»			
	2000**	2004**	2008
Kirol-elkarteak	20	15	22
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	10	4	7
Elkarte kultural edo artistikoak	8	5	6
Musika-bandak, musika-taldeak	-	3	4
Mendi-talde edo -elkarteak	-	2	3
Ikasle-elkarteak	4	2	3
Sindikatuak	3	2	3
Eskautak, gazte-klubak	4	3	2
Hirugarren munduaren garapenerako laguntza	3	1	2
Euskararen aldeko taldeak	4	3	2
Osasunarekin zerikusia duten elkarteak	3	-	2
Ekologistak	3	1	1
Giza eskubideak	2	0	1
Emakumezkoekin lotura dutenak	1	0	1
Elbarritasunekin lotura dutenak	2	-	1
Erlijiosoak	-	2	1
Politikoak	3	2	1
Immigranteei laguntzeko elkarteak	1	-	1
Profesionalak	-	1	1
Bakezaleak edo antimilitaristak	-	1	0
Bestelakoak	-	1	2
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

* Datuak dagokion urtean elkarte mota bakoitzeko kide izan diren gazteen portzentajeak dira.

** 2000n eta 2004an ez ziren 2008an adina elkarte-mota barne hartu, eta beraz zenbait kasutan urte horiei buruzko daturik ez dugu.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Kirol-elkarteen nagusitasuna gazteen artean bere horretan mantendu da urteen joanean. Txokoek edo aisialdi-elkarteek (lagunarteak, konpartsak eta abar) eta elkarte kultural eta artistikoek, berriz, behera egin dute. Aurreko urteetan baino zertxobait gutxiago dira, halaber, gazte-klubetako, euskararen aldeko taldeetako edo talde politikoetako kide diren gazteak (ikus 64. taula).

Nolanahi ere, Euskadiko gazteen gaur egungo asoziazionismo-maila elkarte-mota ezberdinetan Estatukoarekin alderatuta, ikus daiteke EAEn gazteek bereziki kirol-elkarteetako kide izateko joera handiagoa dutela. Halaber, Euskadiko gazteek aisialdiko elkarteetan zein kultura-eta musika-elkarteetan zertxobait gehiago parte hartzen dute, eta zertxobait gutxiago elkarte erlijiosoetan (ikus 65. taula).

65. taula

EAE-KO ETA ESPAINIAR ESTATUKO GAZTEEN ASOZIAZIONISMOAREN ALDERAKETA*

«ELKARTEETAKO KIDE IZATEA»		
	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2007)**
Kirol-elkarteak	22	14
Aisialdi-elkarteak	7	4
Kultur elkarteak	6	4
Musika-elkarteak	4	2
Ikasle-elkarteak	3	4
Sindikatuak	3	2
Ekologistak	1	1
Giza eskubideen aldekoak	1	1
Erlijiosoak	1	3
Politikoak	1	1
Profesionalak	1	1
Bakezaleak	0	1
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.462

* Datuak dagokion urtean elkarte mota bakoitzeko kide izan diren gazteen portzentajeak dira.

** Espainiar Estatuan, gainera, EAEn barne hartu ez ziren elkarte-motei buruz galdetu zuten eta alderantziz; beraz, aurkeztu diren datuak bi eremu geografikotan barne hartu diren elkartei buruzkoak dira.

Iturria: CIS 2.675 azterlana, *Sondeo sobre la Juventud Española, 2007 (primera oleada)*.

EAEko gazteen asoziazionismoari erreparatuz, zein gazte-mota dira elkarte-mota ezberdinetan gehien sartzen direnak?

Oro har, kirol-elkarteetan kide gehiago daude gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, eta gazteenen artean; adinak aurrera egin ahala, kideen kopuruak behera egiten du. Dezente gehiago dira elkarte bateko kide EAEn jaiotakoen artean atzerrian jaiotakoen artean baino.

Txoko edo aisialdi-elkarteetan (lagunarteak, konpartsak, blusak...) ere gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, eta EAEn jaiotakoak atzerrian jaiotakoak baino; hala ere, elkarte-mota horretan gehien parte hartzen dutenak 20 eta 24 urte arteko neskek zein mutilak dira.

Elkarte kultural eta artistikoetan neskek eta mutilak paretsu dabilta, zertxobait gehiago dira 20 eta 24 urte arteko gazteak, eta ikasketa-mailak gora egin ahala gora egiten du, halaber, kideen kopuruak ere. Beste behin, EAEn jaiotakoen artean gehiago dira elkarte bateko kide diren gazteak.

Musika-talde bateko kide apur bat gehiago daude gizonezkoen eta 20 urtetik beherakoen artean. Ikasle-elkarte eta gazte-klubetako kide gehiago daude gazteenen artean ere.

Sindikatuari dagokionez, gizonezkoak gehiago dira eta adinean aurrera egin ahala kide gehiago izaten dira. Sindikatuko kide gehiago daude, halaber, soilik lanean ari direnen zein langabezian dauden artean.

Azkenik, Hirugarren Munduaren garapenerako laguntza-taldeetan zertxobait gehiago dira neskek mutilak baino. Gainerako elkarteetara dagokionez ez da diferentzia esanguratsurik antzeman (ikus 66. taula).

66. taula

GAUR EGUN ELKARTE-MOTA EZBERDINETAKO KIDE IZATEA SEXUAREN,
ADINAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ELKARTE-MOTA HAUEI BEGIRA, ESANGO ZENIDAKE HORIETAKO BATEKO KIDE ZAREN, GAUR EGUN EZ BAINA NOIZBAIT IZAN ZAREN, EDO SEKULA IZAN EZ ZAREN?»*									
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			EAE	JAIOLEKUA	
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29		ESTATUKO GAINERAKO ATZERRIA ERKIDEGOAK	
Kirol-elkarteak	22	31	13	30	22	16	24	15	9
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	7	9	4	6	8	5	7	2	1
Elkarte kultural edo artistikoak	6	6	7	6	8	5	7	3	5
Musika-bandak, musika-taldeak	4	5	3	8	3	3	5	5	3
Mendi-talde edo-elkarteak	3	4	3	3	4	4	4	1	0
Ikasle-elkarteak	3	2	3	6	1	1	3	0	3
Sindikatuak	3	5	1	0	2	7	3	4	0
Eskautak, gazte-klubak	2	2	2	5	2	0	2	2	1
Hirugarren munduaren garapenerako laguntza	2	1	4	3	2	2	2	4	2
Euskararen aldeko taldeak	2	2	2	2	2	2	2	0	0
Osasunarekin zerikusia duten elkarteak	2	1	2	1	2	1	2	0	3
Ekologistak	1	2	1	1	2	1	2	1	0
Giza eskubideen aldekoak	1	1	1	0	1	1	1	1	1
Emakumezkoekin lotura dutenak	1	1	0	1	1	0	0	0	2
Elbarritasunekin lotura dutenak	1	1	2	0	2	1	2	0	0
Erlijosok	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Politikoak	1	2	1	1	2	1	2	1	0
Immigranteei laguntzeko elkarteak	1	1	1	1	1	1	1	2	2

(.../...)

(…/…)

Profesionalak	1	0	1	0	1	1	1	0	1
Bakezaleak edo antimilitaristak	0	0	1	0	1	0	1	0	0
Bestelakoak	2	2	2	2	2	1	2	0	2
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	1.288	83	128

* Datuak gaur egun elkarte mota bakoitzeko kide diren gazteen portzentajeak dira.

3.5. INTERNET: ESPERIENTZIA ETA ERABILERA

Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) datuen arabera, 2007ko laugarren hiruhilekoan EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren %66,2k ordenagailua zuen etxean, eta %54k etxetik Interneterako sarbidea. Bestalde, Eustaten datuekin jarraituz, aldi horretan berean EAEko 14 urtetik gorako biztanleriaren %47,4 Interneteko erabiltzailea zen²¹ (Interneteko erabiltzailetzat jotzen da azken hiru hilabeteetan Internet erabili duen hura). Horrek agerian uzten du etxean Internet duten pertsona guztiek ez dutela erabiltzen, nahiz eta beste batzuk, etxean sarbiderik eduki ez arren, lantokian edo ikasketa-zentroan konektatzen diren. Nolanahi ere, erabilera funtsean adinaren arabera da, jarraian doan taulan ikus daitekeenez (ikus 67. taula).

Internetek gure autonomia-erkidegoan —eta bereziki gazteen artean— duen zabalkundea dela-eta, jarraian Euskadiko gazteek beraiek Internet erabiltzeko moduez emandako iritziak aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, inkestan parte hartu duten 15 eta 29 urte arteko gazteen %86k adierazi dute etxean ordenagailu bat dutela erabiltzeko moduan, eta %77k etxean Interneterako konexioa dutela (hau da, etxean ordenagailua dutenen %90ek); beraz, EAEko lau gaztetik hiruk etxean bertan Interneterako sarbidea dute.

²¹ Eustat. *Informaziaren Gizartearen gaineko Inkesta IGI* [linean], 2008ko otsaila, <<http://www.eustat.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 22a.]

67. taula

ETXEAN ORDENAGAILUA ETA INTERNET DITUEN ETA INTERNETEKO ERABILTZAILEA
DEN EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA

	ETXEAN ORDENAGAILUA DUTENEN PORTZENTAJEA	ETXEAN INTERNETERAKO SARBIDEA DUTENEN PORTZENTAJEA	INTERNETEKO ERABILTZAILEEN PORTZENTAJEA
15-24 urte	92,8	82,8	91,4
25-34 urte	80,0	64,8	75,9
35-44 urte	78,0	59,1	62,6
45 urte eta gehiago	51,9	42,8	23,6
GUZTIRA	66,2	54,0	47,4

* Iturria: Eustat. *Informazioaren Gizartearen gaineko Inkesta IGI*. 2007ko azken hiruhilekoko datuak.

Etxean ordenagailua gehien dutenak 25 urtetik beherako gazteak eta ikasten ari direnak edo lana eta ikasketak uztartzen dituztenak dira. Multzo horiek berak dira etxean Interneterako konexio-maila handiena dutenak (etxean ordenagailua dutela diotenak bakarrik aintzat hartuta ere, Interneterako konexioaren portzentajea handiagoa da gazte horien artean) (ikus 68. taula).

Etxean ordenagailua dutenen nahiz etxetik Interneterako sarbidea dutenen portzentajeak gora egin du azken lau urteotan (ikus 23. grafikoa).

68. taula

ETXEAN ORDENAGAILUA ETA INTERNETERAKO KONEXIOA IZATEA ADINAREN
ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«ETXEAN ORDENAGAILURIK BA AL DUZU ERABILTZEKO MODUAN?»									
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
		15-19	20-24	25-29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Bai	86	91	88	79	94	80	93	77	45
Ez	14	8	12	21	6	19	7	2	55
Ed/Ee	0	0	0	0	0	1	0	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	582	620	155	108	25


(…/…)

(…/…)

«ETXEAN INTERNETERAKO KONEXIOA DUZU?»										
	GAZTEAK GUZTIRA	ETXEAN ORDENAGAILUA ERABILGARRI DUTEN GAZTEAK GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
			15-19	20-24	25-29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Bai	77	90	91	91	86	93	85	93	88	87
Ez	9	10	9	9	14	7	15	7	10	13
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gainerakoak (etxean ordenagailu erabilgarririk ez)	14	-	-	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.301	389	512	400	550	503	145	83	11

23. grafikoa

ETXEAN ORDENAGAILUA ETA INTERNETERAKO KONEXIOA IZATEAREN BILAKAERA (2004-2008) (%)



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

Hori, normala denez, gazteen Interneten erabileran islatu beharko litzateke, eta beraz galdetu diegu ea Internet erabiltzen duten, zenbat denbora daramaten erabiltzen eta astean zenbat orduz erabiltzen duten.

Inkestaren datuen arabera, gazteen %6k bakarrik adierazi dute Internet sekula ez dutela erabili. Gainerakoek denbora gehiagoz edo gutxiagoz erabili dute jada, eta ia erdiek (%43) lau urte baino gehiago daramate Internet erabiltzen.

Gazteen artean (15-19 urte), %2k bakarrik adierazi dute Internet sekula ez dutela erabili, nahiz eta, hain zuzen ere gazte izateagatik, urte gutxiago daramaten hura erabiliz.

Ikasketa-mailak gora egin ahala, Internet erabiltzen duten gazteen portzentajea areagotzeaz gain antzinasunak ere gora egiten du.

Kasu honetan ere alde garbia antzematen da EAEn jaiotako eta atzerrian jaiotako gazteen artean; izan ere, lehenengo artean %94k Internet erabiltzen dute, eta bigarrengo artean portzentajea apalxeagoa da (%86) (ikus 69. taula).

Interneten erabilera izugarri hazi da azken urteotan. 2000. urtean EAeko gazteen %46k Internet inoiz erabilia zuen, 2004an portzentaje hori %82ra igo zen eta orain, 2008an, %94ra heldu da (ikus 24. grafikoa).

69. taula

INTERNETERAKO SARBIDEA ADINAREN, IKASKETA-MAILAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«INTERNET ERABILTZEN DUZU?, ZENBAT DENBORA DARAMAZU ERABILTZEN?»								
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
		15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Ez dut inoiz erabili	6	2	5	10	9	9	3	1
Sei hilabete baino gutxiago	10	10	7	11	12	9	8	9
Sei hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago	4	6	3	4	7	3	4	0
Urtebete baino gehiago eta bi urte baino gutxiago	10	13	9	11	14	11	10	5
Bi urte baino gehiago eta hiru urte baino gutxiago	12	18	12	7	14	9	13	7
Hiru urte baino gehiago eta lau urte baino gutxiago	15	15	16	13	15	14	15	15
Lau urte baino gehiago	43	36	48	44	29	45	47	63
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	505	315	371	298


(…/…)

(.../...)

	JAIOLEKUA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Ez dut inoiz erabili	5	8	14
Sei hilabete baino gutxiago	9	12	14
Sei hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago	4	4	7
Urtebete baino gehiago eta bi urte baino gutxiago	10	13	18
Bi urte baino gehiago eta hiru urte baino gutxiago	11	16	12
Hiru urte baino gehiago eta lau urte baino gutxiago	15	13	11
Lau urte baino gehiago	46	34	24
Ed/Ee	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128

24. grafikoa

INTERNETEN ERABILERAREN BILAKAERA GAZTEEN ARTEAN (2000-2008) (%)



Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Bestalde, Interneten erabilera dezente hedatuagoa dago EAEko gazteen artean Espainiar Estatuko en artean baino; azken horietan, INJUVEren datuen arabera²², iaz (2007) gazteen %70ek erabiltzen zuten Internet.

Internet erabiltzen den ala ez aztertu ondoren, zenbat erabiltzen den ezagutu nahi izan dugu. Egiaztatu dugunez, ohikoa Internet astean ordubete eta 7 ordu bitarte erabiltzea da, hau da, batez beste egunean ordubete. Alabaina, gazteen %9k astean 20 orduz baino gehiagoz erabiltzen dute.

Berriro ere adinak zerikusi handia du Interneten ematen den denboran: adinean behera egin ahala, jaitsi egiten da astean ordubete baino gutxiago erabiltzen dutela dioten gazteen portzentajea, eta 7 eta 15 ordu bitarte erabiltzen dutenena igo.

Goi-mailako ikasketak egin dituzten gazteen artean gehiago dira Internet erabiltzen dutenak eta, gainera, astean gainerakoek baino ordu gehiagoz erabiltzen dute.

Denbora librean ordenagailua denbora-pasa aritzeko (Internet, Messenger...) gehien erabiltzen zutela ziotenak gazteenak (15-19 urte) ziren, eta goi-mailako ikasketak egin dituztenek adierazi zuten, bestalde, ikasketa-maila baxuagoko gainerako gazteek baino neurri txikiagoan erabiltzen zutela ordenagailua jardura horretarako; beraz, pentsa liteke goi-mailako pertsona horiek ordenagailua gehiago erabiltzen badute, lanerako edo ikasketetarako gehiago erabiltzen dutela, aisiarako baino (ikus 70. taula).

²² Injuve: *Boletín Cifras jóvenes - Sondeo de opinión* [linean], EJ124 azterlana "Uso de tecnologías, ocio, y tiempo libre e información", Madril: Injuve, 2007, <<http://www.injuve.mtas.es/injuve/contenidos.downloadatt.action?id=1731355799>>. [Kontsulta: 2008ko maiatzaren 5a.]

70. taula

INTERNET ERABILTZEN DEN ASTEKO ORDU-KOPURUA ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«ORO HAR, ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DUZU INTERNET?»									
	GAZTEAK GUZTIRA	INTERNET DARABILTEN GAZTEAK GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
			15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI- MAILAKOAK
Orubete baino gutxiago	17	18	14	18	22	22	24	15	11
1 eta 7 ordu bitarte	47	49	49	49	50	47	51	53	48
7 eta 15 ordu bitarte	17	18	22	17	14	17	12	19	22
15 eta 20 ordu bitarte	5	5	6	5	4	5	4	5	5
20 ordu baino gehiago	9	9	7	10	9	8	8	8	13
Ed/Ee	1	1	1	0	1	1	1	0	0
Gainerakoak (inoiz ez dute Internet erabili)	6	-	-	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.411	412	548	451	461	287	361	295

Interneten erabileraren bilakaerak ere eragin handia izan du gazteak konektatuta dauden ordu-kopuruan: azken zortzi urteotan, astean ordubetez baino gutxiagoz erabiltzen dutenen kopuruak pixkanaka behera egiteaz gain, nabarmen gora egin du 7 eta 15 ordu bitarte erabiltzen dutenenak, eta baita astean 15 ordu baino gehiago konektatuta daudenen kopuruak ere (ikus 71. taula).

71. taula

ASTEAN INTERNET ERABILTZEN EMANDAKO DENBORAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ORO HAR, ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DUZU INTERNET?»			
	2000	2004	2008
Ordubete baino gutxiago	46	28	18
1 eta 7 ordu bitarte	40	47	49
7 eta 15 ordu bitarte	6	14	18
15 ordu baino gehiago	3	10	14
Ed/Ee	5	1	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	624	1.242	1.411

n = Internet erabiltzen dutela edo inoiz erabili dutela adierazi duten gazteak.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Nabaria da Internet gero eta gehiago eta denbora gehiagoz erabiltzen dutela gazteek, eta gehien konektatzen den multzoa gazteena dela ikusirik, pentsatzekoa da haren erabilerak etengabe gora egingo duela.

3.6. ONDORIOAK

Gazte gehienek adierazi dute batez beste hiru ordu libre baino gehiago dituztela lanegunetan. Denbora libre gehiago izateko orduan, eragin handiena duten faktoreak jardun nagusia eta seme-alabak izatea ala ez dira.

Gazteen aisialdiko jarduera ohikoenak lagunekin edota bikotekidearekin egotea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea eta musika entzutea dira. Badirudi lagunekin edota bikotekidearekin egotea dela, bai astegunetan bai asteburuan, jarduerarik ohikoena; bigarren postuan, alabaina, lanegunetan oso ohikoak diren telebista ikustea edo musika entzutea baino ohikoagoa bilakatzen da, asteburuetan, tabernetan ibiltzea.

Oro har, telebista ikustea, musika entzutea, ordenagailuarekin edo bideo-jokoen kontsolekin denbora-pasa aritzea eta irakurtzea egoneko, etxeko eta lanegunetako berezkoagoak diren jarduerak dira, eta etxetik kanpo egiten diren beste batzuk, aldiz, hala nola taberna zein diskoteketara joatea, ikuskizunetara (kulturalak edo kirolekoak) joatea, mendira joatea edo kalean edatea, asteburu edo jaiegunetako gazteen aisialdian berezkoagoak dira.

Aisialdiaz gozatzeko moduetan alde nabarmenenak markatzen dituzten aldagaiak adina eta, batez ere, seme-alabak izatea ala ez izatea dira. Aldagai horien eta beste batzuen eragina aztertze aldera, korrespondentzia bitarren faktore-analisi bat egin da, eta, zenbait ezaugarri soziodemografiko aintzat harturik, aisialdiaz gozatzeko lau modu nagusi daudela ondorioztatu da. Edonola ere, modu horiek ez daude zorrotz bereziak, hein batean elkarrekin nahastu egiten baitira:

- Alde batetik aisia familiarra, etxekoa, oso eskuragarria eta merkea da; funtsean, jarduera nagusiak familiarekin egotea, paseatu edo kalean egotea eta telebista, bideoa edo DVDa ikustea dira, eta aisiaz modu horretara gozaten diren gazteak batez ere seme-alabak eta familiako erantzukizunak dituztenak, gurasoetatik aparte bizi direnak eta atzerrian jaio direnak —hain zuzen ere seme-alabak gazterik dituztela gehien adierazten dutenak— dira.
- Beste aisia-mota bat harreman sozialei lotua eta teknologikoa da, eta horretan jarduera nagusiak batik bat ordenagailuarekin denbora-pasa aritzea, diskoteketara joatea edo kalean edatea dira, eta horien atzetik lagunekin edota bikotekidearekin egotea eta kirola egitea. Gurasoekin bizi diren, seme-alabarik ez duten eta hilean diru-sarrera eskasa dutenen, gazteenen eta ikasleen aisia da.
- Hirugarren aisia-mota berriagoa da, kalean edateari lotua, baina baita telefono mugikorrari eta musika entzuteari ere. Batez ere diru gutxi eta ikasketa-maila apala dutenen aisia da, gazteenei zein atzerrian jaiotakoei lotua.
- Azkenik, aisia kulturala dugu, garestiago ere badena, eta horretan jarduera nagusiak ikuskizunetara joatea, irakurtzea eta tabernetan ibiltzea dira. Aisialdiko jardueren artean konbentzionalagoa dela esan daiteke, eta adinez aurrera doazen gazteen zein maila ekonomiko altuagoa eta ikasketa-maila altuagoa duten gazteen berezkoa da.

Bestalde, hamar gaztetik lauk diote elkarteren bateko kide direla. EAEko gazteriaren asoziazionismo-maila Europar Batasunaren batez bestekoaren gainetik dago. Gazte gehien biltzen dituzten elkarteak kirol-elkarteak dira (batez ere gizonezkoak eta gazteenak), eta horien atzetik —urrun— txoko edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak...), elkarte kultural edo artistikoak eta musika-taldeak.

Interneten erabilerari dagokionez, lehenik eta behin esan behar da etxean erabiltzeko moduko ordenagailua duten gazteen kopurua hazi egin dela, eta baita etxetik Interneterako sarbidea dutenena ere; izan ere, jada lau gaztetik hiruk etxetik bertatik Interneterako sarbidea dute.

Neurri handi batean horri esker, EAEko gazte gehien-gehienek Internet erabiltzen dute. Erabilera horrek hazkunde izugarria izan du azken urteotan, erabilera orokorrean ez ezik erabilera-orduen kopuruan ere. Gazteenen (15-19 urte) eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean hedatu da gehien Interneten erabilera, eta multzo horiexek dira, gainera, ordu gehiagoz erabiltzen dutenak. Ikusirik gazteenek ordenagailuaren erabilera denbora libreko jardura nagusien artean (lanegunetan) sartzen dutela eta goi-mailako ikasketak dituztenek, aldiz, ez dutela sartzen, pentsa liteke azken horiek batez ere lanerako edo ikasteko erabiltzen dutela.

KGk

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

4. Egoeraren balorazioa



4

Egoeraren balorazioa

4.1. SARRERA

2008. urtearen hasieran EAEko gazteek beren egoera pertsonala nahiz orokorra nola ikusten zuten aztertu aurretik, zenbait alderditan EAEko egoeraren ikuspegia argitzeko lagungarriak izango diren datu batzuk aurkeztuko ditugu, pertzepzio subjektiboez haratago:

- 2008ko urtarrilean, kontsumoko prezioen indizeak (KPI) %4,1eko hazkundera ageri zuen joan den urteko hil berarekin alderatuta²³.
- Euriborrak, Estatuko kreditu-erakundeek ematen dituzten hipoteka-kredituen interes-tasak ezartzeko erreferentzia-indize nagusia, 4,793 balioa markatu zuen 2007ko abenduaren amaieran, aurreko urteko hil berarekin alderatuta 0,872 igoz²⁴. Alabaina, 2008ko urtarrilean prentsak iragarri zuen etxebizitzaren prezioak behera egin zuela, eta gazteentzako etxea alokatzeko laguntzak eskainiko zirela, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko hitzarmen bati esker.
- 16 urte eta gehiagoko EAEko biztanleriaren langabezia-tasa %3,1ekoa zen 2007ko laugarren hiruhilekoan, urte bereko lehen hiruhilekoko (%3,4) baino pixka bat baxuagoa. 16 eta 24 urte arteko gazteen artean, langabezia-tasa altuagoa zen 2007ko azken hiruhilekoan (%7,1). Oro har, tasa horrek beheraka egin du azken urteotan, baina 2008ko hasieran gora egiten hasi da (ikus 72. taula).

²³ Eustat eta INE. *Índice de precios de consumo* [linean]. <<http://www.eustat.es>> eta <<http://www.ine.es/daco/ipc.htm>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 9a.]

²⁴ Hipotecas y Euribor.com: *Evolución euribor* [linean]; *informe del 2007*, <<http://www.hipotecasyeuribor.com>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 9a.]

72. taula

LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA EAE-N (2001-2008)

	BIZTANLERIA OSOA (16 URTE ETA GEHIAGO)	GAZTEAK (16-24 URTE)
2001 (urteko batez bestekoa)	11,1	25,5
2002 (urteko batez bestekoa)	8,3	19,5
2003 (urteko batez bestekoa)	8,6	22,2
2004 (urteko batez bestekoa)	7,8	20,5
2005 (urteko batez bestekoa)	5,7	13,5
2006 (urteko batez bestekoa)	4,1	8,2
2007 (1. hiruhilekoa)	3,4	9,2
2007 (2. hiruhilekoa)	3,4	7,0
2007 (3. hiruhilekoa)	3,1	7,2
2007 (4. hiruhilekoa)	3,1	7,1
2008 (1. hiruhilekoa)	3,3	8,8

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta.

—Manu Robles-Arangiz Fundazioaren datuen arabera, 2007. urtean EAEn eta Nafarroan gazteek nahiz helduagoek sinatutako kontratuen %90,7 aldi baterakoak izan ziren, eta soilik %9,3 mugagabeak²⁵.

—Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 2005eko EAeko Lan Merkatuko Erroldan (Manu Robles-Arangiz Fundazioak *Egoeraren azterketa 108* aldizkarian argitara emana²⁶), besteak beste, 2005eko ekitaldian EAEn bizi ziren langileen diru-sarrera garbiak aztertu ziren, eta txostenean jaso zenez, biztanleria landunaren batez besteko diru-sarrera hilean 1.237,55 €koa zen. Haatik, biztanleen %30,2k hilean 1.000 € garbi baino gutxiago jaso zuten; horien artean aldi baterako kontratudunak nabarmendu

²⁵ Manu Robles-Arangiz Institutua. ELA sindikatua: *Egoeraren azterketa 109* [linean], 2008-03-14, <http://www.mrafundazioa.org/dokumentazio-zentrua/egoera-azterketa/egoeraren-azterketa-109/view?set_language=eu>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 18a.]

²⁶ Manu Robles-Arangiz Institutua. ELA sindikatua: *Egoeraren azterketa 108* [linean], 2007-11-30, <http://www.mrafundazioa.org/dokumentazio-zentrua/egoera-azterketa/egoeraren-azterketa-108/view?set_language=eu>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 18a.]

ziren, egoera horretan zeuden gazteen batez besteko soldata hilean 987,11 €koa baitzen 2005ean. Gogora dezagun soil-soilik lanean ari diren hamar gaztetik lauk aldi baterako kontratuak dituztela, eta kopuru hori, gainera, handiagoa dela lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean. Kontraturik gabekoei erreparatuz gero (berriz ere gazteen artean gehiago direnak, batez ere lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean), batez besteko soldata 518,21 €ra jaisten zen.

—Egoera politikoari dagokionez, 2008ko hasiera (inkesta egin zen egunetan) martxoaren 9ko hauteskunde orokorren bezpera zen: arreta PSOEek eta PPK bereganatu zuten, Espainiako Gobernuaren presidentzia lortzeko aukera zuten alderdi bakarrak izaki, eta zalantzak zeuden EAE-ANV, ezker abertzalearen ordezkari zen heinean, legez kanpo utziko ote zuten.

—Bestalde, gizartean oro har Osakidetzaren inguruko protestak eta grebak nabarmendu ziren.

Azterlanaren oinarri diren inkestak egiteko unean horiek ziren gertakari nagusiak, eta hona ekarri ditugu gazteen erantzunetan izan bide duten eraginagatik, bai egoera pertsonalari buruz bai EAEko egoera orokorrari buruz.

4.2. EGOERA PERTSONALA

Atal honetan, gazteek beren egoerari buruz nahiz pertsonalki gehien kezkatzen dituzten arazoei buruz egiten duten balorazio orokorra aztertuko da.

4.2.1. Egoera pertsonalaren balorazioa

Gazte gehienek (%69) diote beren egungo egoera pertsonalarekin pozik daudela, eta %5ek bakarrik diote pozik ez daudela. Satisfazio-maila handiagoa da 20 urtetik azpikoen eta ikasleen artean, eta txikiagoa, berriz, langabeen artean (azken kasu horretan, pozik ez daudenen portzentajea hirukoiztu egiten da, %16ra helduz) —ikus 73. taula—.

Aurreko urteetan ere gehiengoa ziren beren egoera pertsonalarekin pozik zeudela adierazi zutenak; hain zuzen, satisfazio-maila altuxeagoa da 2004an eta 2008an, 2000n baino (ikus 74. taula).

73. taula

EGOERA PERTSONALAREN BALORAZIOA ADINAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«GAZTE ZAREN ALDETIK, NOLA IKUSTEN DUZU ZURE EGOERA PERTSONALA GAUR EGUN?»									
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
		15-19	20-24	25-29	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Pozik zaude	69	76	68	65	75	69	68	52	38
Ez pozik ez disgustuan	23	19	24	25	19	23	26	28	51
Ez zaude pozik	5	3	5	7	3	6	3	16	7
Ed/Ee	3	2	3	3	2	3	2	5	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	582	620	155	108	25

74. taula

EGOERA PERTSONALAREKIKO SATISFAZIOAREN BILAKAERA (2000-2008)

«GAZTE ZAREN ALDETIK, NOLA IKUSTEN DUZU ZURE EGOERA PERTSONALA GAUR EGUN?»			
	2000	2004	2008
Pozik	64	70	69
Ez pozik ez disgustuan	28	23	23
Ez zaude pozik	7	6	5
Ed/Ee	1	1	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Horrez gain, lau gaztetik hiruk (%77) uste dute beren gurasoak baino egoera hobean daudela, haiek beren adina zutenean. Beste behin, gurasoenarekin alderatuta beren egoerari buruz erantzun positiboak ematen dituzten gazteak 20 urtetik azpikoak eta ikasleak dira, eta ezkorrenak, ostera, langabeak eta jardun nagusia etxeko lanak dituztenak dira (ikus 75. taula).

75. taula

EGOERA PERTSONALAREN BALORAZIOA GURASOENAREKIN ALDERATUTA,
ADINAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA


«ZEURE BURUARI BEGIRA, ESADAZU BAI EZTAPEN HONEKIN ADOS ZAUDEN ALA EZ: “USTE DUT NIRE GURASOAK BAINO EGOERA HOBEAN NAGOELA, HAI EK NIRE ADINA ZUTENEAN”»									
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				
		15-19	20-24	25-29	IKASTE A	LAN EGITEA	IKASTE A ETA LAN EGITEA	LANGA- BEZIAN	ETXEKO LANAK
Ados	77	84	77	70	83	73	76	72	61
Ez ados	14	5	15	20	8	18	13	22	30
Ed/Ee	9	10	8	10	9	9	12	6	9
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	582	620	155	108	25

Egoera pertsonalarekiko satisfazio-maila, adin bera zutenean gurasoek bizi zuten egoerarekin alderatuta, ez da aldatu azken hamar urteotan. Ia 1998an bezainbat dira orain gurasoena baino egoera hobean daudela adierazi dutenak (ikus 25. grafikoa).

25. grafikoa

EGOERA PERTSONALAREN BALORAZIOAREN BILAKAERA
GURASOENAREKIN ALDERATUTA (1998-2008) (%)

«USTE DUT NIRE GURASOAK BAINO EGOERA HOBEAN NAGOELA, HAIEK NIRE ADINA ZUTENEAN»


Iturria: *Gazteen argazkiak 3 (1998-1999)*.

Gazteek oro har, klase sozial ertainekotzat ikusten duten beren burua (%78); gutxi dira klase sozial altukoak (%1) edo ertain-altukoak (%7) nahiz klase sozial baxukoak (%3) edo ertain-baxukoak (%10) direla diotenak.

Duela hamar urtetik hona, beren burua klase sozial ertain edo altukotzat definitzen duten gazteen portzentajea igo egin da, eta klase baxu edo ertain-baxukotzat definitzen dutenena nabarmen jaitsi (ikus 26. grafikoa).

26. grafikoa

GAZTEEK BEREN BURUA ESKALA SOZIALEAN KOKATZEN DUTEN
LEKUAREN BILAKAERA (1998/1999-2008)* (%)



* 1998/1999an, erantzuteko eman ziren aukerak hiru izan ziren: «ertain-altua edo estuasunik gabekoa», «ertain-ertaina» eta «ertain-baxua edo langile-klasea».

Iturria: *Gazteen argazkiak 3 (1998-1999)*.

Nork bere klase soziala definitzeko orduan, eragin handia du jaiolekuak: multzo guztietan gehienek beren burua klase ertainekotzat jotzen badute ere, jaiolekua Euskal Autonomia Erkidegotik urrundu ahala, gehiago dira beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat definitzen dutenak (ikus 76. taula).

76. taula

GAZTEEK BEREN BURUA ESKALA SOZIALEAN KOKATZEN DUTEN LEKUA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZEURE BURUA ZEIN KLASE SOZIALETAN KOKATUKO ZENUKE?»				
	GUZTIRA	JAIOLEKUA		
		EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Altua	1	1	2	0
Ertain-altua	7	7	4	1
Ertaina	78	81	69	57
Ertain-baxua	10	8	20	22
Baxua	3	2	3	18
Ed/Ee	1	1	3	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.288	83	128

4.2.2. Kezka pertsonalak

Gazteak gehien arduratzen dituzten arazoak edo kezkek zein diren ezagutze aldera, zuzenean eta argi galdetu zaie zein diren kezkarik handien eragiten dieten hiru arazoak. Erantzunek agerian jarri dute gazteen bi kezka nagusiak etxebizitza (etxebizitzaren gabezia, prezio garestia, Euriborra igotzea...) eta lana (langabezia, lan-ezegonkortasuna, behin-behinekotasuna, soldata apalak...) direla, %67k eta %62k aipatuak, hurrenez hurren.

Horietatik oso urrun, beste ardua batzuk ageri dira, hain zuzen ere diruarekin zerikusia dutenak (dirurik eza, paga eskasa, bizitzaren garestia...), %19k aipatuak, eta ikasketen ingurukoak (azterketak, gutxiegiak, ikasteko gogorik eza...), %15ek aipatuak.

%10 baino gutxiago dira beste zenbait auzi aipatzen dituztenak, hala nola politika (Euskadi-espainiar Estatua harremanak, gatazka politikoa, independentzia, presoek hurbilketa, alderdien arteko liskarrak, egoera politikoa...), terrorismoa (indarkeria, atentatuak, bakerik eza...), ziurgabetasuna etorkizunaren aurrean, drogak, familiarteko harremanak, immigrazioa, arrazakeria, delinkuentzia, osasuna, ekologia, adiskidetasuna, aisialdirako eskaintza eta abar. Deigarria da gazteekin hain lotura estua duten gai batzuk, esaterako eskoletako jazarpen-kasuak edo sexua, gazteen %1ek baino gutxiagok aipatu dituztela (ikus 27. grafikoa).

27. grafikoa

GAZTEEN KEZKA NAGUSIAK (%)



Espainiar Estatuan ere, gazteen kezka nagusiak lana (langabezia, lan-baldintzak) eta etxebizitza dira, baina Estatuan, EAEn ez bezala, lanaren kontua etxebizitzarena baino gehixeago aipatzen da. Espainiako gazteen hurrengo kezka-iturriak arazo ekonomikoak, hezkuntza eta herritarren segurtasuna dira (ikus 77. taula).

77. taula

EUSKADIKO ETA ESPAINIAR ESTATUKO GAZTEEN KEZKA NAGUSIAK

5 ARAZO AIPATUENEN RANKINGA	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2007)
1. arazoa	Etxebizitza	Lana
2. arazoa	Lana	Etxebizitza
3. arazoa	Ikasketak	Dirua
4. arazoa	Dirua	Hezkuntza
5. arazoa	Politika	Herritarren segurtasuna
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.462

Iturria: CIS 2.675 azterlana, *Sondeo sobre la Juventud Española, 2007 (primera oleada)*. Aipamenen portzentaje zehatzak ez dira alderagarriak, Estatuan bi arazo aipatzeko eskatu baitzen, eta EAEn hiru.

EAEra etorritz, eta gaur egungo datuak aurreko urtekoekin alderatuz, agerikoa da denboraren joanean lana eta etxebizitza direla EAEko gazteen kezka-iturri nagusiak, baina etxebizitzak lanari aurrea hartu dio kezka nagusi gisa, 2000 eta 2008 artean etxebizitzaren aipamenak bikoiztu egin direlarik.

Ordea, auzi politikoak eta terrorismoa gutxiago aipatu dira 2004an eta 2008an, 2000n baino (gogora dezagun azken data horretan 1998ko irailaren eta 1999ko azaroaren artean indarrean egon zen ETaren su-etena hautsi berria zela). Drogak ere indarra galduz joan dira gazteen kezka nagusi gisa, eta diruari zein ikasketei lotutako arazoak, berriz, aurreko urteetan baino gehixeago aipatu dira (ikus 28. grafikoa).


Gaur egungo kezkei dagokienez, gazteen multzo guztietan etxebizitza eta lana nabarmentzen dira, dezenteko aldeak nabari diren arren, batik bat adinaren arabera.

Adinean gora egin ahala, etxebizitza eta diruarekiko ardura gehiago aipatzen da, eta ikasketen ingurukoa gutxiago. 19 urtetik gorakoek gazteagoek baino gehiago aipatzen dituzte lanarekin, politikarekin eta terrorismoarekin zerikusia duten kontuak, eta 20 urtetik azpikoek gainerakoek baino gehixeago drogekin edo alkoholarekin nahiz adiskidetasunarekin zerikusia dutenak (ikus 78. taula).

28. grafikoa

GAZTEEN KEZKA NAGUSIEN BILAKAERA (2000-2008) (%)

«ZEINTZUK DIRA, GAZTE BEZALA, GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRU ARAZOAK?»*



* Baturaren emaitza 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.*

78. taula

GAZTEEN KEZKA NAGUSIAK ADINAREN ARABERA

«ZEINTZUK DIRA, GAZTE BEZALA, GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRU ARAZOAK?»*				
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK		
		15-19	20-24	25-29
Etxebizitza: garestia, etxebizitzarik eza, euriborraren igoera...	67	45	73	80
Lana: langabezia, lan-ezegonkortasuna, behin-behinekotasuna, soldata apalak, laneko istripuak...	62	42	72	69
Dirua: dirurik eza, paga eskasa, bizitzaren garestia...	19	17	18	22
Ikasketak: azterketak, gutxiegiak, ikasteko gogorik eza...	15	35	10	3
Politika: egoera politikoa, Euskadi-Espainia harremanak, independentzia, presoen egoera, alderdien arteko liskarrak...	9	5	10	10
Terrorismoa: ETA, indarkeria, atentatuak, bakerik eza...	8	4	7	11
Ziurgabetasuna etorkizunaren aurrean	6	7	6	5
Drogak	5	7	4	4
Familia: familiarteko harremanak...	4	3	4	4
Immigrazioa eta hari lotutako arazoak, arrazakeria kasu	3	3	4	3
Delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza	3	4	3	4
Osasuna: gaixotasunak, hiesa...	3	2	3	5
Ekologia: ingurumena, kutsadura...	3	3	3	2
Adiskidetasuna	2	4	1	0
Aisialdirako eskaintza	2	2	1	2
Bikotea: maitasuna...	1	1	1	1
Pobrezia, Hirugarren Munduaren egoera	1	1	1	0
Euskara: euskararen egoera, lanerako euskara behar izatea...	1	1	1	1
Laguntzak, bekak	1	1	1	1
Alkohola	1	2	0	0
Azpiegiturak eta garraioa: zirkulazioa, aparkalekuak...	1	1	0	0

(.../...)

(.../...)

Gazteentzako lokalik eza	1	1	1	0
Eskola barruko jazarpena	0	1	0	0
Sexua	0	0	0	0
Beste arazo batzuk	9	10	9	9
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500

* Baturaren emaitza %100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Beste alde nabarmen batzuk dira, adibidez, lanik gabe daudenen edo lana eta ikasketak uztartzen dituztenen artean lana dela —etxebizitzaren aurretik— kezka nagusia; bestalde, ikasleek gainerakoek baino dezente gehiago aipatzen dute ikasketen inguruko kezka, horien artean ere arazo nagusia ez den arren. Gainera, diruaren inguruko kezka handiagoa da ezkondata dauden edo bikotekidearekin bizi direnen artean nahiz seme-alabak dituztenen artean.

Azkenik, etorkizunaren aurreko ziurgabetasuna gehiago aipatu dute langabezia daudenek, familiarteko harremanak seme-alabak dituztenek, politikaren inguruko auziak beren burua ezkerrekotzat dutenek eta terrorismoa eta indarkeria beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenek.

4.3. EAE-KO GAZTERIAREN EGOERA

Beren egoera pertsonalaz gain, gazteei galdetu zaie nola ikusten duten gazteriaren egoera oro har eta erakundeak arlo horretan egiten ari direna nola baloratzen duten.

4.3.1. Gazteriaren egoeraren balorazioa


Gazteriaren egoerari dagokionez, iritzi zabalduena erdipurdikoa dela da, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra. Gainerako erantzunetan, egoera orokorra ona dela eta txarra dela diotenen kopuruak oso antzekoak dira.

Denboraren joanean egiaztatzen da gazteriaren egoera erdipurdikoa dela diotenen kopuruak pixkanaka behera egin duela, eta aldeko nahiz kontrako iritziek gora (ikus 29. grafikoa).

29. grafikoa

GAZTERIAREN EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOAREN BILAKAERA (2000-2008) (%)

«NOLAKOA DA ZURE USTEZ GAZTEEN EGOERA GAUR EGUN?»



Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Oro har, gazteriaren egoera orokorrari buruzko iritzi positiboak 20 urtetik beherakoek dituzte, eta kritikoenak 24 urtetik gorakoak nahiz beren burua klase sozial baxukotzat dutenak dira (ikus 79. taula).

79. taula

GAZTERIAREN EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOA ADINAREN ETA KLASA SOZIALAREN ARABERA


«OROKORREAN, NOLAKOA DA ZURE USTEZ GAZTEEN EGOERA GAUR EGUN?»

	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			KLASA SOZIALA		
		15-19	20-24	25-29	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Ona	23	31	22	17	19	23	25
Erdipurdikoa, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra	55	55	58	52	46	56	60
Txarra	21	13	19	28	33	19	15
Ed/Ee	1	1	1	2	3	1	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	192	1.180	110

4.3.2. Erakundeak gazteriaren alorrean egiten ari diren lanaren balorazioa

Gazteek ez dute erakundeek gazteriaren alorrean egindako lana ontzat hartzen: 0tik 10erako eskala batean, non 0 «oso txarra» baita eta 10 «oso ona», bai Eusko Jaurlaritzak bai aldundiek edo udalek egindako lana ez da 5era (nahikoa) iristen.

Puntu-kopuruok duela lau urte jasotako enoso antzekoak dira, nahiz eta badirudien udalek egindako lanari buruz gazteek duten balorazioa pixka bat hobetu egin dela (ikus 30. grafikoa).



Iturria: Euskadiko gazteak 2004.

Erakundeek gazteriaren alorrean egindako lana hobekien baloratzen dutenak atzerrian jaiotako gazteak dira; hain zuzen ere, horiek nahikoa baino gehiago (5 puntu baino gehiago 0tik 10erako eskalan) ematen diote aipatu erakundeen jarduerari.

Bestalde, arabar eta bizkaitar gazteek gipuzkoarrek baino puntu gehiago eman dituzte, nahikora iristen ez badira ere.

Era berean, gazteenek (15-19 urte) gainerakoek baino puntu gehiago eman dituzte, Eusko Jaurlaritzak egindako lanari nahikoa irizteraino (ikus 80. taula).

80. taula

ERAKUNDEAK GAZTERIAREN ALORREAN EGITEN ARI DIREN LANAREN BALORAZIOA ADINAREN,
NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (BATEZ BESTEKOAK 0-10)

«OTIK 10ERAKO ESKALA BATEAN, NOLA BALORATZEN DUZU ZURE UDALA GAZTERIAREN ALORREAN EGITEN ARI DEN LANA? ETA ZURE ALDUNDIA? ETA EUSKO JAURLARITZA?»							
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Udala	4.6	4.8	4.4	4.6	4.7	4.7	4.3
Aldundia	4.5	4.8	4.4	4.5	4.6	4.8	4.1
Eusko Jaurlaritza	4.7	5.1	4.6	4.6	4.8	4.9	4.2
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	402	600	498
(.../...)							(.../...)
	JAIOLEKUA						
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK		ATZERRIA			
Udala	4.4	4.6		5.8			
Aldundia	4.4	4.7		5.9			
Eusko Jaurlaritza	4.6	5.1		6.3			
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83		128			


4.4. EUSKADIREN EGOERA

Erreferentzia-esparrua areago zabalduz, gazteriaren egoera pertsonala nahiz orokorra aztertu ondoren, jarraian gazteek Euskadiren egoera orokorra eta zenbait alderdi jakin nola hautematen dituzten ikusiko dugu.

4.4.1. Euskadiren egoeraren balorazioa

Gazteriak kolektibo gisa bizi duen egoera baloratzeko orduan bezala, Euskadiren egoera orokorra aztertzean ere gehienek erdipurdikotzat jo dute, hau da, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra. Alabaina, eta gazteriar dagokionez ez bezala, non aldeko eta kontrako iritziak parekatuta baitzeuden, dezente gehiago dira egoera ona dela uste dutenak txarra dela uste dutenak baino.

Azken urteotan, Euskadiren egoerari buruzko balorazio positiboek gorantz egin dute, gehiengora iristen ez badira ere (ikus 31. grafikoa).



Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Adinean aurrera egin ahala, Euskadiren egoerari buruzko balorazio positiboek behera egiten dute eta negatiboek gora, nahiz eta 25 eta 29 urte artekoen artean gehiago diren egoera ona dela

diotenak, txarra dela diotenak baino. Klase sozialari erreparatuz gero, ordea, joera aurkakoa da: zenbat eta altuago izan, orduan eta gehiago dira iritzi baikorrak, eta gutxiago ezkorrak.

Bestalde, Euskadiren egoerari buruz balorazio positiboena dutenak atzerrian jaiotako gazteak dira, eta kritikoenak, berriz, langabezian daudenak.

Hasiera batean pentsa litekeenaz bestela, ideologia politikoaren edo identitate-sentimenduaren arabera ez da alde esanguratsurik hauteman (ikus 81. taula).

81. taula

EUSKADIREN EGOERAREN BALORAZIOA ADINAREN, JAIOLEKUAREN,
KLASE SOZIALAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«ZER-NOLAKOA IRUDITZEN ZAIZU EUSKADIREN EGOERA, OROKORREAN?»							
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			JAIOLEKUA		
		15-19	20-24	25-29	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Ona	29	37	27	24	27	33	46
Erdipurdikoa, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra	56	52	58	58	58	53	45
Txarra	12	8	12	16	14	8	4
Ed/Ee	2	3	2	3	2	6	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	1.288	83	128

(.../...)

(…/…)

	KLASE SOZIALA			JARDUN NAGUSIA				ETXEKO LANAK
	BAXUA	ERTAINA	ALTUA	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	
Ona	26	29	39	35	25	29	17	38
Erdipurdikoa, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra	49	57	59	54	58	58	58	53
Txarra	20	12	2	9	14	12	22	9
Ed/Ee	5	2	0	3	2	2	3	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	192	1.180	110	582	620	155	108	25

4.4.2. Gaez ibiltzeko beldurra

Euskadiren egoera aztertzeko orduan, adierazleetako bat herritarrek sentitzen duten segurtasun-maila da. Horregatik, gazteei galdetu zaie ea beren herri edo auzotik gaez ibiltzean beldurrik ote duten.


Hamar gaztetik ia bik (%18) adierazi dute beren herri edo auzotik gaez ibiltzean beldurra sentitzen dutela, 2000n eta 2004an baino %4 gehiagok (ikus 32. grafikoa).

Mutilen aldean, dezente gehiago dira gaez kaletik ibiltzean beldurra sentitzen dutela dioten neskak, nahiz eta haien artean ere gehienek adierazi duten beldurrik ez dutela sentitzen.

32. grafikoa

GAUEZ IBILTZEKO BELDURRAREN BILAKAERA (2000-2008) (%)

«ZURE HERRI EDO AUZOTIK GAUEZ IBILTZEKO BELDURRIK BA AL DUZU?»



Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Zenbat eta gazteago izan, hainbat eta handiagoa da beldurra: 20 urtetik beherako lau gaztetik batek dio gauz auzotik ibiltzean beldurra sentitzen duela (ikus 82. taula).

82. taula

GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

«ZURE HERRI EDO AUZOTIK GAUEZ IBILTZEKO BELDURRIK BA AL DUZU?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Bai	18	7	29	23	17	16
Ez	80	91	70	76	82	82
Ed/Ee	2	2	2	2	1	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

4.4.3. EAEko hezkuntza-sistemaren balorazioa

Gazteak aztertzen ari garenez, egokia dirudi beraiek, ikasketetan murgilduta edo irten berriak izanik, EAEko hezkuntza sistemari buruz duten ikuspegian sakontzeak.

Lehenik eta behin adierazi behar da inkestan parte hartu duten gazte guztietatik bi herenek (%65) derrigorrezkoen gaindiko ikasketak bukatuta dituztela, hau da, Lanbide Heziketakoak, Bigarren Hezkuntzakoak (Batxilerra, BBB, UBI), edo goi-mailakoak (diplomaturak, lizentziatuak edota graduondoko ikasketak).

Ikasketak derrigorrezkoen gaindi luzatzea gehixeago gertatzen da EAEn espainiar Estatuko gainerako erkidegoetan baino (ikus 83. taula).

83. taula

EAE-KO ETA ESPAINIAR ESTATUKO GAZTEEN IKASKETA-MAILAREN ALDERAKETA

	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2007)
Batere ez, ikasketarik ez	1	0
Lehen maila, OHO edo DBH	33	45
Batxilerra, IEE, BBB, UBI	25	19
Lanbide Heziketa	20	17
Goi-mailako ertainak (diplomatura)	9	9
Goi-mailakoak (lizentziatura, doktoregoa, graduondokoa)	11	6
Ed/Ee	0	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.462

Iturria: CIS: 2.675 azterlana, *Sondeo sobre la juventud española, 2007 (primera oleada)*.

Mutilekin alderatuta, nesken artean Lanbide Heziketako ikasle gutxiago eta goi-mailako gehiago ageri zaizkigu. Atzerrian jaiotako gazteen artean, EAEn jaiotakoen artean baino gutxiago dira Lanbide Heziketako edo goi-mailako ikasketak egin dituztenak. Era berean, datuen arabera badirudi Lanbide Heziketak gazte gehiago erakartzen duela Gipuzkoan EAEko gainerako lurraldeetan baino. Bestalde, klase sozialak gora egin ahala gehiago dira goi-mailako ikasketak egiten dituzten gazteak (ikus 84. taula).

84. taula

IKASKETA-MAILA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN, SEXUAREN, JAIOLEKUAREN
ETA KLASE SOZIALAREN ARABERA

«ZER-NOLAKO IKASKETAK BURUTU DITUZU?»						
	GUZTIRA	LURRALDEA			SEXUA	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA
Batere ez	1	1	1	0	1	0
Lehen mailakoak	6	12	5	7	7	5
OHO edo DBH	27	28	30	20	29	25
Lanbide Heziketa	20	21	17	27	24	16
Batxilerra, IEE, BBB, UBI	25	23	25	26	23	27
Goi-mailako ertainak (diplomatura)	9	9	10	8	8	10
Goi-mailakoak (lizentziatura, doktoregoa, graduondokoa)	11	7	12	12	8	15
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498	750	750

(…/…)

(../...)

	JAIOLEKUA			KLASE SOZIALA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Batere ez	0	3	1	2	0	0
Lehen mailakoak	6	9	12	6	6	11
OHO edo DBH	25	32	37	35	27	13
Lanbide Heziketa	22	19	6	24	20	14
Batxilerra, IEE, BBB, UBI	25	20	31	20	26	32
Goi-mailako ertainak (diplomatura)	10	10	6	8	9	10
Goi-mailakoak (lizentziatura, doktoregoa, graduondokoa)	12	7	7	5	12	19
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	192	1.180	110

Baina, nola baloratzen dute gazte horiek EAEko hezkuntza-sistema?

Gazteen erdiek baino gehixeagok (%58) uste dute EAEko hezkuntza-sistema oso ona edo nahikoa ona dela, eta %6k bakarrik diote nahikoa txarra edo oso txarra dela.

Aldeko iritziak (oso ona edo nahikoa ona) sarriago ikus daitezke Gipuzkoa eta Bizkaiko gazteen artean Arabakoen artean baino, eta baita oraindik 20 urte bete ez dituzten gazteen, ikasleen eta EAetik kanpo jaiotakoen artean ere. Hain zuzen ere, deigarria da atzerrian jaiotako bost gaztetik batek EAEko hezkuntza-sistema oso ona dela uste izatea (ikus 85. taula).

EAEko hezkuntza-sistemari buruzko iritziak, beti izan diren arren aldekoagoak kontrakoagoak baino, hobetu egin dira azken urteotan, balorazio positiboek gora egin ahala negatiboek behera eginez (ikus 86. taula).

85. taula

EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALORAZIOA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN,
ADINAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«ZER IRITZI DUZU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-SISTEMAZ?»							
	GUZTIRA	LURRALDEA			ADIN-TALDEAK		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	15-19	20-24	25-29
Oso ona	9	6	10	8	9	8	9
Nahikoa ona	49	42	48	54	55	48	45
Ez ona ez txarra	33	43	33	28	31	36	32
Nahikoa txarra	4	4	4	6	3	4	7
Oso txarra	2	2	2	2	1	2	3
Ed/Ee	3	3	3	2	1	3	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498	420	580	500

(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA			JARDUN NAGUSIA				
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTE ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Oso ona	7	13	19	9	8	7	6	27
Nahikoa ona	50	49	44	55	47	47	40	33
Ez ona ez txarra	35	25	22	31	35	33	36	35
Nahikoa txarra	5	0	1	3	3	8	12	5
Oso txarra	2	1	1	1	3	3	1	0
Ed/Ee	1	12	13	1	5	2	5	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	582	620	155	108	25

86. taula

EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALORAZIOAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZER IRITZI DUZU EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMAZ?»			
	2000	2004	2008
Oso ona	5	8	9
Nahikoa ona	39	45	49
Ez ona ez txarra	39	35	33
Nahikoa txarra	10	5	4
Oso txarra	3	3	2
Ed/Ee	4	4	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500


Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Hezkuntza-sistemaren baitan lan-munduari begira jasotako orientabideari dagokionez, gazteen hiru laurdenek adierazi dute beren ikastetxeek etorkizun profesionalari aurre egiteko informazioa eta orientabidea eskaini zizkietela (ikus 33. grafikoa).

33. grafikoa

LANERAKO ORIENTABIDEA IKASTETXEAN (%)

«ZURE IKASTETXEAN JASO DUZU INFORMAZIO EDO ORIENTABIDERIK ZURE ETORKIZUN PROFESIONALERAKO AUKEREI BURUZ?»



Etorkizun profesionalari aurre egiteko orientabidea jaso dutenak duela lau urte baino gehixeago dira; datu hori %72tik %76ra igo da.

Etorkizuneko lanerako aukerei buruz informazioa eta orientabidea jaso dituztela gehien adierazi duten gazteak 25 urtetik azpikoak eta bigarren mailako ikasketak zein Lanbide Heziketa egin dituztenak dira (ikus 87. taula).

87. taula

LANERAKO ORIENTABIDEA IKASTETXEAN ADINAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA

«ZURE IKASTETXEAN JASO DUZU INFORMAZIO EDO ORIENTABIDERIK ZURE ETORKIZUN PROFESIONALERAKO AUKEREI BURUZ?»								
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA			
		15-19	20-24	25-29	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/IEE/BBB/UBI	GOI-MAILAKOAK
Bai	76	77	81	70	67	84	84	75
Ez	22	21	18	28	32	15	14	23
Ed/Ee	2	2	1	2	1	1	2	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	505	315	371	298

4.5. ONDORIOAK

Gazte gehienak beren egungo egoera pertsonalarekin pozik daude, eta adin berean gurasoek bizi zutena baino egoera hobean daudela uste dute.

Beren burua gehienbat klase ertainekotzat jotzen dute, eta kezka nagusiak etxebizitza eta lana dituzte. 20 urtetik azpikoen artean, ikasketak aurreko bi auziak adinako kezka-iturri dira ia.

Oro har, gazteriaren egoera erdipurdikoa dela uste dute, eta erakundeek gazteriaren alorrean egindako lana eskasa dela.

Euskadiren egoera ere erdipurdikotzat jo dute, eta horri dagokionez iritzi positiboan atzerrian jaiotako gazteek eman dituzte.

Gazte gehienek beren herri edo auzotik gauez ibiltzeko beldurrik ez dute. Hala ere, neska gazteen ia herenek diote gauez kalean ibiltzean beldurra sentitzen dutela.

Gazte gehienek positiboki baloratzen dute EAEko hezkuntza-sistema, eta balorazio horrek hobera egin du aurreko urteekiko. Era berean, gehiengoa dira beren ikastetxeetan lanerako orientabidea jaso dutela adierazi duten gazteak.



KGK

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

5. Jarrera politikoak

5

Jarrera politikoak

5.1. SARRERA

2006ko *Gazteen argazkiak 10* azterlanean, apenas gazteen %12k adierazi zuten alderdi politikoren batetik oso edo nahikoa hurbil zeudela, eta %51k, ostera, ezein alderditik batere hurbil ez zeudela esan zuten. Hain zuzen ere, alderdi politikoak 0tik 10erako eskala batean kalifikatzeko orduan, gazteek ezeini ez diote nahikorik ere (5) ematen.

Bestalde, 2008ko urtarrileko *Euskal soziometroa 36*²⁷ txostenean ageri denez, 18 eta 29 urte arteko bost gaztetik batek dio duela urte batzuk baino interes txikiagoa duela politikan, eta hori azaltzeko arrazoien artean honakoak nabarmendu dituzte: lehenik eta behin, politikarien gezurrak, faltsukeria eta hitza ez betetzea; bigarrenik, euskal gatazkari irtenbiderik emateko gai ez izatea, denak berdin jarraitzen duelarik, beti gai beraren inguruan bueltaka; hirugarrenik, beste gai batzuk politika baino interesgarriagoak iruditzen zaizkiela.

Egoera horren aurrean, gazteriak politikari buruz duen interesa aztertuko dugu, politika zerekin lotzen duten, politikan parte hartzeko gogorik ote duten eta zein jarrera ideologiko nahiz identitate-sentimendu duten.

5.2. POLITIKAREKIKO INTERESA


Politikan interes handia edo dezentekoa duten gazteak gutxiengo nabarmena dira (%19). Izan ere, erdiek (%51) politikan inolako interesik ez dutela adierazi dute.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, azken bi urteetan politikarekiko interesik eza areagotu egin da (ikus 34. grafikoa).

²⁷ *Euskal soziometroak* urtero argitaratzen diren ikerketen bilduma bat da, eta bertan EAEko biztanleek gaurkotasuneko hainbat gairen inguruan dituzten iritziak eta jarrerak biltzen dira. Txosten-sail hau Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak lantzen du, eta helbide honetan kontsulta daiteke: <http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos/indice_e.apl>.

34. grafikoa

POLITIKAREKIKO INTERESAREN BILAKAERA (2006-2008) (%)



Iturria: *Gazteen argazkiak 10 (2007)*.

Mutilek neskek baino interes handixeagoa ageri dute politikarekiko; 20 urtetik aurrera, halaber, gazteagoen artean baino pixka bat handiagoa da interes hori, baina faktore erabakigarriena jarrera edo kokapen ideologikoa da: beren burua ezkerrekotzat dutenek zentroko edo eskuinekotzat dutenek baino interes handiagoa agertu dute, eta, nolana ere, horiek guztiak ardatz ideologiko horretan kokatzen ez direnak baino interes nabarmen handiagoa dute (ezker-eskuin ardatzean kokatzen ez diren hamar gaztetik zazpi diote politikan inolako interesik ez dutela) —ikus 88. taula—.

88. taula

POLITIKAREKIKO INTERESA SEXUAREN, ADINAREN ETA NORBERAK EZKER-ESKUIN
ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«ORO HAR, POLITIKAN ZENBATERAINOKO INTERESA DUZU?»						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Interes handia	4	5	2	2	4	4
Nahikoa interesa	15	16	13	11	16	16
Interes txikia	29	30	27	24	29	32
Batere interesik ez	51	47	55	60	50	45
Ed/Ee	2	2	3	2	1	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(…/…)

(…/…)

	EZKER-ESKUIN ARDATZA		
	EZKERRA	ZENTROA-ESKUINA	ED/EE
Interes handia	7	2	0
Nahikoa interesa	25	20	4
Interes txikia	37	34	20
Batere interesik ez	30	43	72
Ed/Ee	1	0	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	662	144	694

5.3. POLITIKA ZEREKIN LOTZEN DEN

Adierazi beharra dago, lehenik eta behin, gazteei politika zerekin lotzen duten galdetu zaizanean, erdiek baino gehiagok (%58) ez dutela inolako erantzunik eman.

Erantzun dutenen artean, gehien errepikatu den iritzia, zehazki lau gaztetik batek emana (%24), politika gezurrekin eta bete gabeko hitzarekin lotzen dutela izan da.

%12k politikan interesik ez dutela edo ez dutela ulertzen adierazi dute, eta oro har politikak asperdura eragiten diela. Beste %12k ustelkeriarekin eta diruarekin lotu dute.

Erantzun ohikoek politika kontu negatiboekin lotzen dutela ikusirik, ez da harrizkoa gazteriak politikarekiko interesa ez izatea edota interes hori galdu izana.

Bestalde, gazteen bat-bateko erantzunekin jarraituz, %7k adierazi dute politika bizitza publikoan eragina duen ororekin, arazo sozialekin eta abar lotzen dutela, %6k diote politikari buruz hitz egiten entzutean alderdi politikoekin eta haien agintariekin zerikusia duten kontuez pentsatzen dutela, %5ek nork berarentzat onura eta etekina bilatzearekin lotzen dute, beste %5ek boterearekin, beste hainbestek (%5) diote beraientzat politika funtsean liskarra eta eztabaida dela, eta aurrekoek adina gaztek (%5) adierazi dute politikaz pentsatzean gatazka politikoa eta Euskadiko gaur egungo egoera datorkiela burura. Gazteen %4k diote politika hauteskudeekin zerikusia duen ororekin lotzen dutela, %3ri politikarien aurkako irainak datozkie gogora politikaz entzuten duten bakoitzean, beste %3k erakundeen (gobernuak, udalak, legebiltzarra eta abar) jardueran pentsatzen dute, eta, azkenik, %2k ETArekin eta terrorismoarekin lotzen dute. Horrez gain, %6k politika ezerekin ez dute lotzen, eta beste %19k aurrez aipatu kategorietan sar ez daitezkeen bestelako erantzun askotarikoak eman dituzte (ikus 35. grafikoa).

35. grafikoa

POLITIKA ZEREKIN LOTZEN DEN (%)



Politika zerekin lotzen den politikarekiko interesarekin batera doa neurri handi batean. Politikan interes handia duten gazteek bizitza publikoan eragina duen ororekin, arazo sozialekin eta abarrekin lotzen dute nagusiki, eta bigarrenik Euskal Herriko gatazkarekin eta gaur egungo egoerarekin. Interesa areagotzen den heinean, gehiago dira alderdi politikoekin eta haien agintariekin nahiz liskar eta eztabaidekin lotzen dutena.

Aldiz, politikan inolako interesik ez duten gazteek gezurrekin eta bete gabeko hitzekin lotzen dute lehenik, eta interes edo ulermen ezarekin nahiz asperdurarekin bigarrenik. Multzo horretan gehiago dira, era berean, politika ezerekin lotzen ez dutenak eta inolako erantzunik eman ez dutenak (ikus 89. taula).

89. taula

POLITIKA ZEREKIN LOTZEN DEN POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA

«POLITIKARI BURUZ ENTZUTEN DUZUNEAN, ZEREKIN LOTZEN DUZU?»*					
	GUZTIRA	POLITIKAREKIKO INTERESA			
		HANDIA	DEZENTEKOA	TXIKIA	BATERE EZ
Gezurak, bete gabeko hitzak	24	16	22	29	23
Interes edo ulermen eza, asperdura	12	2	3	10	17
Ustelkeria, dirua	12	16	9	14	11
Bizitza publikoan eragina duena, arazo sozialak...	7	27	16	7	4
Alderdi politikoak eta haien agintariak	6	10	8	7	4
Nork bere interesa edo etekina bilatzea	5	8	4	6	5
Boterea	5	8	5	5	5
Liskarra, eztabaida	5	10	6	5	4
Gatazka politikoa, Euskadiren egungo egoera	5	16	11	4	2
Hauteskundeak eta horiekin zerikusia duen oro	4	2	4	5	3
Politikarien aurkako irainak	3	1	3	4	3
Erakundeen jarduera (gobernua, udalak, legebiltzarra...)	3	2	6	5	1
Terrorismoa, ETA	2	1	3	1	2
Ezerekin ez	6	0	1	1	10
Bestelako erantzunak	19	22	36	17	14
Ed/Ee	58	34	43	56	65
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	51	224	436	760

* Baturaren emaitza %100 baino gehiago da, bi erantzun eman baitzitezkeen.

5.4. POLITIKAN GEHIAGO PARTE HARTZEKO NAHIA

Lau gaztetik batek (%27) auzi publikoetan modu eraginkorragoan parte hartu nahiko luke, baina gehiago dira —justu halako bi— horrelakorik nahiko ez luketenak (%54).

Politikarekiko interesa areagotu ahala handiagoa da bizitza publikoan parte hartzeko nahia: politikan interes handia duten hamar gaztetik seik alor horretan modu eraginkorragoan parte hartu nahiko lukete (ikus 90. taula).

90. taula

POLITIKAN GEHIAGO PARTE HARTZEKO NAHIA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA

«AUZI PUBLIKOETAN MODU ERAGINKORRAGOAN PARTE HARTU NAHIKO ZENUKE?»					
	GUZTIRA	POLITIKAREKIKO INTERESA			
		HANDIA	DEZENTEKOA	TXIKIA	BATERE EZ
Bai, nahiko zenuke	27	60	39	29	21
Nahikoa parte hartzen duzula uste duzu	10	8	12	12	8
Ez, ez zenuke nahiko	54	29	42	50	62
Ed/Ee	9	4	7	10	9
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	51	224	436	760

Auzi publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko nahia kasik 2004an bezala mantendu da, eta bi aldiotan nahi hori 2000n baino apalxeagoa da (ikus 91. taula).

91. taula

POLITIKAN PARTE HARTZEKO NAHIAREN BILAKAERA (2000-2008)

«AUZI PUBLIKOETAN MODU ERAGINKORRAGOAN PARTE HARTU NAHIKO ZENUKE?»			
	2000	2004	2008
Bai, nahiko zenuke	32	27	27
Nahikoa parte hartzen duzula uste duzu	6	8	10
Ez, ez zenuke nahiko	52	54	54
Ed/Ee	10	11	9
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

5.5. JARRERA-HARTZE IDEOLOGIKOA

Jarraian, gazteriaren jarrera-hartze ideologikoa aztertuko da, hainbat ardatz edo alderdi aintzat hartuta.

5.5.1. Ezker-eskuin ardatza

Eskuin muturraren eta ezker muturraren arteko eskala tradizionala baliatuz, gazteei beren burua zazpi puntuko continuum horretan koka dezaten eskatu zaie.

Lehenengo datu deigarria da ia erdiek (%46) ez dutela beren burua ardatz horretan kokatu. Beren buruari kokapen bat eman diotenen artean, dezente gehiago dira ezkerrean (ezker muturra, ezkerra edo zentro-ezkerra) kokatzen direnak (%45) eskuinean (eskuin muturra, eskuina edo zentro-eskuina) kokatzen direnak baino (%3). %7 zentroan kokatzen dira.

Sexua, adina, norbera bizi den lurraldea eta norberak euskaldun-espainiar ardatzean hartzen duen lekua aintzat hartuta, multzo horietan guztietan eskuinalderako joera %1 eta %3 artean dagoela ikusi da. Multzoen arteko alderik nabarmenenak ardatz horretan kokatzen diren eta kokatzen ez diren gazteen artean eman dira: beren burua ardatz horretan gehien kokatzen dutenak mutilak, 20 urte edo gehiago dituztenak, Gipuzkoan bizi direnak, EAEn jaiotakoak eta batik bat euskaldun sentitzen direnak dira. Horiek guztiak, gainera, beste multzoak baino ezkerreago kokatzen dira.

1996tik honainoko bilakaerari erreparatuz, 2000tik aurrera ardatz horretan ez kokatzeko joerak nabarmen gora egin duela ikus daiteke, eta 2000tik 2004ra gazteen ezkerreko joerak ere gora egin duela (bien bitartean, eskuinerako joera apalduz joan da). 2008ko datuak 2004koen ia berberak dira (ikus 92. taula).

92. taula

EZKER-ESKUIN ARDATZEAN JARRERA HARTZEAREN BILAKAERA (1996-2008)

«ESKUINEKO ETA EZKERREKO IZATEAREN ARTEAN, NOLA DEFINITZEN DUZU ZURE BURUA?»				
	1996	2000	2004	2008
Eskuin muturrekoa	0	0	0	0
Eskuinekoa	4	5	2	2
Zentro-eskuinekoa	3	3	1	1
ESKUINA (eskuin muturra + eskuina + zentro-eskuina)	7	8	3	3
Zentrokoa	11	7	7	7
Zentro-ezkerrekoa	7	6	7	4
Ezkerrekoa	41	27	39	39
Ezker muturrekoa	2	2	1	2
EZKERRA (zentro-ezkerra + ezkerrekoa + ezker muturra)	50	35	47	45
Ed/Ee	32	50	42	46
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.799	1.364	1.500	1.500

Iturria: *Gazteen argazkiak 1* (1996), *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

5.5.2. Euskal herritar-espainiar ardatza

Era berean, gazteei eskatu zaie beren burua identitate-ardatz tradizionalan koka dezatela; ardatz horren muturretan euskal herritarra bakarrik eta espainiarra bakarrik daude.

EAEko gazteen %37 euskal herritar bakarrik sentitzen dira. Horri espainiarrak baino euskal herritarragoak sentitzen direnak gehituz gero, ikus daiteke gazteen erdiak baino gehiago (%55) nagusiki euskal herritar sentitzen direla. %27 euskal herritarra bezain espainiarra sentitzen dira, eta apenas %4k diote euskal herritarra baino espainiarrago edo bakarrik espainiar sentitzen direnik.

EAEEn jaiotako gazteak bakarrik aintzat hartuz gero, euskal identitatearen sentimendua handiagoa dela ikus daiteke, multzo horretako gazteen %42 euskal herritar bakarrik sentitzen baitira. Atzerrian jaiotako gehienek, aldiz, ez dute beren burua ardatz horretan kokatzen, ez euskal herritar ez espainiar sentitzen ez direlako.

Euskal herritarra izatearen identitate-sentimendua hedatuago dago Gipuzkoako gazteen artean gainerakoen artean baino, eta adinak behera egin ahala gora egiten du (ikus 93. taula).

93. taula

EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR SENTIMENDUA, ADINAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

«EUSKAL HERRITARRA EDO ESPAINIARRA SENTITZEAREN ARTEAN, NOLA DEFINITZEN DUZU ZURE BURUA?»							
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Euskal herritarra bakarrik	37	40	38	33	27	34	47
Euskal herritarra espainiarra baino gehiago	18	18	19	18	24	18	16
Euskal herritarra bezain espainiarra (berdin)	27	28	25	29	31	29	24
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	2	2	2	1	3	2	1
Espainiarra bakarrik	2	3	2	3	3	3	1
Ed/Ee	13	9	14	16	13	15	10
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	402	600	498
(.../...)							(.../...)
	JAIOLEKUA						
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK		ATZERRIA			
Euskal herritarra bakarrik	42	7		6			
Euskal herritarra euskalduna baino gehiago	20	9		6			
Euskal herritarra bezain espainiarra (berdin)	28	36		22			
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	1	8		1			
Espainiarra bakarrik	1	20		4			
Ed/Ee	8	20		61			
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100		100			
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83		128			

Gazteriaren identitate-sentimendua apenas aldatu da azken hamabi urteetan: euskal sentimendua nabarmen gailentzen zaio espainiarrari, eta atzetik doa bi aukerak uztartzen dituen (euskal herritarra bezain espainiarra) (ikus 94. taula).

94. taula

EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZEAN JARRERA HARTZEAREN BILAKAERA (1996-2008)

«EUSKAL HERRITARRA EDO ESPAINIARRA SENTITZEAREN ARTEAN, NOLA DEFINITZEN DUZU ZURE BURUA?»				
	1996	2000	2004	2008
Euskal herritarra bakarrik	39	38	37	37
Euskal herritarra euskalduna baino gehiago	17	18	15	18
Euskal herritarra bezain espainiarra (berdin)	34	31	33	27
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	2	2	3	2
Espainiarra bakarrik	4	3	3	2
Ed/Ee	3	8	11	13
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.799	1.364	1.500	1.500

Iturria: *Gazteen argazkiak 1* (1996), *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

5.5.3. Europar sentimendua

Europar Batasuneko kide garelarik, gazteei beren europartasunari buruz galdetu zaie, sentimendu hori beste ezeinekin (euskal herritarra, espainiarra...) kontrajarri ez bada ere. Oso europarra edo batere europarra ez sentitzearen arteko eskala batean, gazteria antzeko pisua duten bi multzotan banatzen da: alde batetik, oso edo nahikoa europarrak sentitzen direnena (%44) eta bestetik, gutxi edo batere europarrak ez direnena sentitzen (%49); gainerakoek ez dute inolako erantzunik eman.

Deigarria da batez ere euskal herritar sentitzen direnak izatea europar sentimendurik apalena ageri dutenak (ikus 95. taula).

95. taula

EUROPAR SENTIMENDUA BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEN DIRENEN ARTEAN

«ZENBATERAINO SENTITZEN DUZU ZEURE BURUA EUROPAR?»			
	GUZTIRA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA*	
		BAI	EZ
Oso	11	7	16
Nahikoa	33	29	38
Gutxi	30	34	24
Batere ez	19	25	12
Ed/Ee	7	5	10
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	829	671

* Euskal herritar-espainiar ardatzean kokaturik, ulertzen da batez ere euskal herritar sentitzen direla beren burua bakarrik euskal herritar edo euskal herritar espainiar baino gehiago jotzen duten haiek, eta gainerakoek ez dutela nagusiki sentimendu hori.

Datu hauek aurreko urtekoekin alderatuta, ohartzen gara gazteen artean europar sentimendua nagusi ez bada ere, sentimendu hori areagotu egin dela 2000. eta 2004. urteekiko.

Gazteen artean europar sentimendua sendotzearen arrazoi gisa aipa litezke, besteak beste, EBko (hasieran EEE) kide gisa emandako urteak eta eurorako egokitzapena, ikasle-trukerako programa gero eta ugariagoz gain (ikus 96. taula).

96. taula

EUROPAR SENTIMENDUAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZENBATERAINO SENTITZEN DUZU ZEURE BURUA EUROPAR?»			
	2000	2004	2008
Oso	8	7	11
Nahikoa	25	29	33
Europar sentimendua (oso + nahikoa)	33	36	44
Gutxi	37	40	30
Batere ez	21	15	19
Ed/Ee	9	9	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

5.5.4. Gertueneko alderdi politikoa

Azkenik, gazteei galdetu zaie zein alderdi politiko dagoen beren pentsaeratik gertuen.

Erantzunetan deigarriena da gazteen erdiek sentitzen dutela ezein alderdi ez dagoela beren pentsaeratik gertu. Hori bereziki nabarmena da beren burua ezker-eskuin ardatz ideologikoan kokatzen ez dutenen artean, eta gehienen erantzuna da, halaber, beren burua zentroko edo eskuinekotzat jotzen dutenen nahiz batez ere euskal herritar sentitzen ez direnen artean (ikus 97. taula).

Gainera, bost gaztetik batek (%19) ez du inolako erantzunik eman, eta horrenbestez gazteen herenek baino ez dute alderdi politikoren bat seinalatu.

Gehien aipatutako aukerak ezker abertzalekoak dira, dela Batasuna, EAE-ANV edo EHAK (%9) eta atzetik doazkie PSE-EE (%7) eta EAJ (%5). Gainerako aukerak gazteen %3k baino gutxiagok aipatu dituzte, kasu bakoitzean.

Beren burua zentroko edo eskuinekotzat jotzen dutenek, ezkerrekotzat definitzen direnek baino neurri handiagoan adierazteaz gain ezein alderdi ez dagoela beren pentsaeratik

gertu, nagusiki —eta batez bestekoa baino dezente gehiago— PP eta EAJ aipatzen dituzte. Ezkerrekotzat definitzen direnek, aldiz, gainerakoek baino nabarmen gehiago hautatu dituzte ezker abertzaleko aukerak, PSE-EE, Ezker Batua eta Aralar.

Batez ere euskal herritar sentitzen diren gazteek hala sentitzen ez direnek baino gehiago hautatu dituzte euskal alderdi nazionalistak, hau da, ezker abertzaleko alderdiak (gehien aipatutakoak), EAJ, Aralar eta EA (azken biak gutxitan aipatuak).

97. taula

GERTUENeko ALDERDI POLITIKOA NORBERAK EZKER-ESKUIKIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA EUSKAL HERRITAR SENTITZEAREN ALA EZ SENTITZEAREN ARABERA

«ZEIN ALDERDI POLITIKO DAGO ZURE PENTSAERATIK GERTUEN?»						
	GUZTIRA	EZKER-ESKUIKIN ARDATZA			BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA	
		EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE	BAI	EZ
PSE-EE	7	12	6	3	2	13
EAJ	5	6	13	3	9	1
PP	1	0	14	0	0	3
Ezker Batua	3	6	1	0	2	3
EA	1	2	2	0	2	0
Aralar	2	4	0	0	3	1
Ezker abertzaleko beste talde batzuk (Batasuna, EAE-ANV, EHAK...)	9	19	1	1	16	0
UPD	0	0	0	0	0	0
Beste batzuk	2	3	5	0	2	1
Guztiak	1	1	0	1	1	1
Bat ere ez	50	38	52	62	45	56
Ed/Ee	19	9	6	30	18	20
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	662	144	694	829	671

Aurreko urteekin alderatuta, egiaztatu da etengabe gora egiten ari dela ezein alderdi ez dagoela beren ideietatik gertu dioten gazteen kopurua. Bestalde, EAJren aipamenak pixkanaka beheraka doaz (ikus 98. taula).

98. taula

ALDERDI POLITIKO EKIKO GERTUTASUNAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZEIN ALDERDI POLITIKO DAGO ZURE PENTSAERATIK GERTUEN?»			
	2000 *	2004 **	2008
PSE-EE	4	6	7
EAJ	12	8	5
PP	2	1	1
Ezker Batua	4	7	3
EA	3	3	1
Aralar	-	3	2
Ezker abertzaleko beste talde batzuk (Batasuna, EAE-ANV, EHAK...)	12	8	9
UPD *	-	-	0
UA *	0	0	-
Beste batzuk	1	1	2
Guztiak	-	0	1
Bat ere ez	38	43	50
Ed/Ee	25	21	19
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

* 2000n ez Aralar ez UPD ez ziren existitzen, bai ordea jada desagertu den UA, eta ezker abertzalearen hautagaitza ofiziala Euskal Herri-tarrok (EH) zen. Bestalde, «guztiak» aukera ere ez zen eskaini.

** 2004an UPD ez zen existitzen, bai ordea UA.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

5.6. ONDORIOAK

EAEko gazteek politikan interes handirik ez dute (apenas bostetik batek dio interes handia edo dezentekoa sentitzen duenik).

Politika zerekin lotzen duten galdetuta, erdiek baino gutxiagok erantzun diote galderari, eta erantzunen artean, aipatuena gezurra eta bete gabeko hitzak, asperdura eta ulertzeko ahalmenik eza eta, hirugarrenik, ustelkeria eta dirua izan dira. Azpimarratzeko modukoa da hiru erantzunok negatiboak izatea.

Akaso horren ondorioz, auzi publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi ez duten gazteak interes hori agertzen dutenen halako bi dira. Logikoa denez, politikarekiko zenbat eta interes handiagoa izan, orduan eta parte-hartze aktiboa izateko gogo handiagoa ageri dute gazteek.

Gazteriaren jarrera-hartzeari dagokionez, adierazi behar da, lehenik eta behin, gazteen ia erdiek ez dutela beren burua ezker-eskuin ardatz tradizionalan kokatzen. Hala egiten dutenen artean, gehiengo garbia ezkerera lerratzen da.

Ordea, beren burua euskal herritar-espainiar identitate-ardatzean kokatu duten gazteak gehiago dira, eta erdiak baino gehiagok beren burua euskal herritar bakarrik edo euskal herritar espainiar baino gehiago jotzen dute.

Europar sentimenduari erreparatuz, gazteria antzeko pisua duten bi multzotan banatzen da: alde batetik, oso edo nahikoa europarrak sentitzen direnena eta, bestetik, gutxi edo batere europarrak ez direnena sentitzen. Edonola ere, 2000tik aurrera aipatu lehen multzoa etengabe hazten ari da.

Azkenik, gazteen erdiek ez dute uste beren ideietatik gertu dagoen alderdirik dagoenik. Denboraren joanarekin, irudipen hori areagotuz joan da. Gaur egunean, apenas gazteen herenek baino gehixeagok adierazten dute zein alderdi sentitzen duten beraiengandik gertuen, eta gehien aipatutakoak ezker abertzalearen aukerak, PSE-EE eta EAJ dira.



KGGk

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

6. Erljiozaletasuna

6

Erljiozaletasuna

6.1. SARRERA

Erljioa, zalantzarik gabe, gure aiton-amonon bizitzan eraginik handienetakoa izan duen alderdietako bat izan da. Izan ere, erljioa zen haien sinesmen eta balioen iturri nagusia, eta erljioari lotutako errituek gizarte-bizitza hein handi batean markatzen zuten.

Joan den mendean zehar egoera hori nabarmen aldatuz joan zen, eta gaur egun erljioak gazteriaren eguneroko bizitzan duen eragina asko apaldu da.

Aldaketa horien adibide moduan, eta egoera hori egiaztatzen duten datu estatistiko ofizialen berme «objektiboa» baliatuz, Eustaten datuen arabera 2006an ezkontza zibilien portzentajea %48,2ra iritsi zen EAEn, hau da, urte horretan egindako ezkontzen erdiak zibilak izan ziren, duela ia hogeie urteko, 1990eko portzentajea (%23,3) bikoiztuz. Horrenbestez, ezkontza erlijiosoek²⁸ behera egin dute eta, gainera, biztanleriaren portzentaje adierazgarri bat ezkondu gabe bikote gisa bizi da (datu ofizialik ez dugun arren, azterlan honen oinarrian dagoen inkestaren datuen arabera, EAeko gazteen %7 egoera horretan bizi dira).

Ezkontza erlijiosoek behera egitearekin batera, gero eta senar-emazte gehiago banantzen dira²⁹; duela zenbait urte pentsaezina zen horrelakorik, «ezkontza erlijiosoaren lotura sakratua ezin hautsizkoa» zenean.

Bestalde, Elizak gaitzetsitako abortu edo haurdunaldiaren borondatezko etenaldien portzentajea 1991ko %2,48tik 2005eko %4,56ra pasa da³⁰.

²⁸ Adierazi beharra dago EAEn 2006an egindako ezkontza erlijioso gehien-gehienak katolikoak izan zirela; hain zuzen ere, apenas %0,1 izan ziren beste erljio edo fede batzuetakoak.

²⁹ Gogora dezagun, 2. kapituluari adierazi bezala, 2005ean 100 ezkontzatik 42 dibortzio gertatu zirela EAEn.

³⁰ 15 eta 49 urte arteko 1.000 emakumeke kalkulaturako tasa. (INE: *INEbase* [linean], <<http://www.ine.es>>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 10a.]

Elizaren kontsignei muzin egite horrek adierazten du biztanleria bere eguneroko bizitzan erlijioak —edo Elizaren doktrina tradizionalak bederen— ezarritako bidetik nabarmen urruntzen ari dela.

Jarraian, Euskadiko gazteen erlijio-sinesmena aztertuko dugu, denborarekin izan duen bilakaeran sakonduz eta Estatu osoko gazteriaren datuekin alderatuz.

6.2. AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA


EAEko gazteen ia erdiek (%46) katolikotzat jotzen dute beren burua, nahiz eta %8k bakarrik dioten mezetara joaten direla. %3k adierazi dute katolikoa ez den beste erlijio bateko kide direla. Bestalde, hamar gaztetik hiruk (%29) ateotzat jotzen dute beren burua, %14k agnostiko eta %5ek Jainkoarengan sinesten dute baina ez erlijioetan.

Katoliko gisa (mezetara joan ala ez) definitzen diren gazteen portzentajea nabarmen jaitsi da duela hamar urtekoarekin alderatuz gero, eta aldi berean ateo direla diotenena igo egin da (ikus 36. grafikoa).

36. grafikoa

AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN BILAKAERA (1998/1999-2008) (%)

«ERLIJIOARI DAGOKIONEZ, NOLA DEFINITZEN DUZU ZEURE BURUA?»

Iturria: *Gazteen argazkiak 3* (1998/1999).

Multzorik erlijiosoena, alde handiz gainera, atzerrian jaiotako gazteek osatzen dute, katolikoak zein beste erlijio batzuetakoak izan (%55 eta %26, hurrenez hurren).

Beren burua eskuineko edo zentrotzat dutenak ezkerreko definitzen direnak baino dezente erlijiosoagoak dira. Bestalde, neskak mutilak baino pixka bat erlijiosoagoak dira (edo gutxienez mutilek baino neurri txikiagoan diote ateo direla) (ikus 99. taula).

99. taula


AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA SEXUAREN, JAIOLEKUAREN ETA NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«ERLIJIOARI DAGOKIONEZ, NOLA DEFINITZEN DUZU ZEURE BURUA?»									
	GUZTIRA	SEXUA		JAIOLEKUA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONA	EMA-KUMEA	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKE-RREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Mezetara joaten den katolikoa	8	6	9	6	7	21	5	15	8
Mezetara joaten ez den katolikoa	38	35	41	38	48	34	31	40	45
Beste erlijio batekoa	3	3	3	1	2	26	1	6	5
Jainkoarengan sinesten dut, erlijioetan ez	5	4	5	4	5	9	4	7	5
Ez zait interesatzen, agnostikoa	14	15	14	16	6	4	16	11	13
Ez dut sinesten, ateoak	29	33	26	32	26	5	41	18	21
Ed/Ee	3	3	2	3	5	2	2	3	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	1.288	83	128	662	144	694

Bestalde, adierazi behar da EAeko gazteria oro har espainiar Estatukoa baino epelago ageri dela erlijioaren alorrean. Estatuko gazteen artean, %13k mezetara joaten den katolikotzat dute beren burua, %51k mezetara joaten ez den katolikotzat eta %5ek katolikoa ez den beste erlijio batekotzat; guztira, espainiar gazteen %69k erlijioaren bateko kideotzat jotzen dute beren burua —praktikatzailerik ez izanda ere—, eta portzentaje hori %49ra murrizten da EAeko gazteen artean (ikus 37. grafikoa).

37. grafikoa

EAE-KO ETA ESPAINIAR ESTATUKO AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ALDERAKETA (%)



* Erantzuteko aukera hori ez zegoen CISen azterlanean.

Iturria: CIS 2.675 azterlana, *Sondeo sobre la Juventud Española, 2007 (primera oleada)*.

6.3. ERLIJO-PRAKTIKA

Gazteak mezetara zein maiztasunez joaten diren aztertzean, datuen arabera 15 eta 29 urte artekoen %5 bakarrik joaten dira elizara edo tenplura gutxienez astean behin. Beste %5 joaten dira, baina gutxiagotan.

Autodefinizio erlijiosoaren kasuan gertatu bezala, erlijio-praktika ere gainbehera etorri da azken hamar urteotan.

Izan ere, praktikatzaileei —katolikoak zein beste erlijio batzuetakoak izan— erreparatuz gero, horien erdiak ere ez dira (%43) gutxienez astean behin erlijio-zerbitzuetara joaten (duela hamar urte %54 ziren) —ikus 100. taula—.

100. taula

ERLIJIO-PRAKTIKAREN MAIZTASUNAREN BILAKAERA (1998/1999-2008)

«ZEIN MAIZTASUNEZ JOATEN ZARA ELIZARA EDO OTOITZ-LEKURA?»*				
	1998/1999		2008	
	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE ERLIJIOSOAK GUZTIRA	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE ERLIJIOSOAK GUZTIRA
Egunero edo ia egunero	0	2	0	4
Astean behin baino gehiagotan	1	6	1	6
Astean behin	7	46	4	33
Astean behin baino gutxiagotan	6	42	5	47
Ed/Ee	1	4	1	10
Gainerakoak (ez-praktikatzaileak, ez-sinestunak, agnostikoak eta ateoak)	85	-	89	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	3.578	580	1.500	160

* Galdera hau beren burua katoliko edo beste erlijioetako praktikatzaile gisa definitzen dutenei bakarrik egin zaie.

Iturri propioa, Euskal soziometroen (6, 7, 8 eta 9) datuetatik abiatuta.

Mezetara joaten diren katolikoak eta beste erlijioetako fededunak alderatuta, ikus daiteke beste erlijioetakoaren artean ohikoagoa dela egunero otoitz-lekura (eliza, erresumaren aretoa, meskita edo dena delakoa) joatea (ikus 101. taula).

101. taula

ERLIJIO-PRAKTIKAREN MAIZTASUNA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ZEIN MAIZTASUNEZ JOATEN ZARA ELIZARA EDO OTOITZ-LEKURA?»*				
	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE ERLIJIOSOAK GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA	
			MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATZUETAKO KIDEA
Egunero edo ia egunero	0	4	2	9
Astean behin baino gehiagotan	1	6	6	7
Astean behin	4	33	38	21
Astean behin baino gutxiagotan	5	47	52	35
Ed/Ee	1	10	3	28
Gainerakoak (katoliko ez-praktikatzailleak, ez-sinestunak, agnostikoak eta ateoak)	89	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	160	114	46

* Galdera hau beren burua mezetara joaten diren katoliko edo beste erlijioetako fededun gisa definitzen dutenei bakarrik egin zaie.

6.4. ERLIJIOEI BURUZKO IRITZIA

Oro har, EAEko gazteria erlijioei buruz eszeptiko ageri da. Gazteen ia erdien (%48) iritiz, edozein erlijioaren baitan egia gutxi dago oso. %27k uste dute, aldiz, erlijio askoren baitan funtsezko egiak daudela. Bestalde, %8k pentsatzen dute erlijio bakar bat dela egiazkoa. Azkenik, %17k ez dakite galdera horri nola erantzun.

Erljioek beren baitan dituzten egiei buruz, mutilak neskak baino eszeptikoago ageri dira. Era berean, beren burua ezkerrekotzat jotzen dutenak zentroko edo eskuinekotzat jotzen dutenak baino dezente eszeptikoagoak dira. Ateo edo agnostiko gisa definitzen diren gehienak erlijioei buruz eszeptikoak dira. Jainkoarengan sinesten dutela baina erlijioetan ez diotenak dira erlijio askotan funtsezko egiak daudela gehien adierazi dutenak. Mezetara joaten ez diren katolikoaren artean bi multzo handi daude: alde batetik, oro har erlijioei buruz eszeptikoak direnak, eta bestetik, erlijio guztietan funtsezko egiak daudela uste dutenak. Baina, zein iritzi dute mezetara joaten diren katolikoek eta beste erlijio batzuetako fededunek?

Mezetara joaten diren katolikoen artean gehiago dira erlijio guztietan funtsezko egiak daudela uste dutenak (%44), baina multzo ugari samar baten iritziz erlijio bakar bat da egiazkoa (%31).

Katoliko ez den beste erlijio bateko kideen artean gehiago dira erlijio bakar bat dela egiazkoa uste dutenak (%46) erlijio guztietan funtsezko egiak daudela uste dutenak baino (%40).

Edonola ere, azpimarratzekoa da gazte katolikoek nahiz beste erlijioetakoek artean multzo txiki batek (%17 eta %14, hurrenez hurren) edozein erlijiotan oso egia gutxi dagoela uste izatea. Badirudi gazte horiek, praktikatzailerak izan arren, ez daudela oso konbentziturak, eta akaso erlijio-jarduerak (errezatzea, erlijio-ofizioetara joatea...) familiaren presiopean egiten dituztela (ikus 102. taula).

102. taula

ERLIJIOEI BURUZKO IRITZIA SEXUAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ESALDI HAUETATIK, ZEIN DAGO ZURE IDEIETATIK GERTUEN?»						
	GUZTIRA	SEXUA		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONA	EMAKUMEA	EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Edozein erlijiotan oso egia gutxi dago	48	52	44	56	39	42
Erljio askoren baitan funtsezko egiak daude	27	25	28	27	38	25
Erljio bakar bat da egiazkoa	8	6	9	5	12	10
Ed/Ee	17	17	18	12	11	23
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	662	144	694

(.../...)

(…/…)

	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
	KATOLIKO PRAKTI- KATZAILEA	KATOLIKO EZ- PRAKTIKATZAILEA	BESTE ERLIJO BATZUETAKO FEDEDUNA	JAINKOA- RENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Edozein erlijiotan oso egia gutxi dago	17	37	14	27	58	73
Erljio askoren baitan funtsezko egia daude	44	36	40	51	21	10
Erljio bakar bat da egiazkoa	31	7	46	7	3	1
Ed/Ee	8	20	0	16	18	16
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

6.5. JAINKOARENGAN SINESTEA

Erljioen gaia albo utzita, Jainkoarenganako sinesmenaz galdetu zaie gazteei. Gazteriaren artean jarrera hedatuena Jainkoaren ukoa edo haren existentziari buruzko zalantzak dira.

Jainkoarengan gehien eta zalantzarik gabe sinesten dutenak katolikoa ez den beste erlijio batzuetakoak dira; azken horietan, gehiengoak Jainkoarengan segurtasun osoz sinesten du, eta atzetik —nahikoa urrun— doakien multzoa mezetara joaten diren katolikoena da.

Bitxia da atoen artean, hiru laurdenek Jainkoarengan ez dutela sinesten adierazten badute ere, %18k zalantzak izatea (%6k Jainkoarengan ez du sinesten, bai ordea izaki goren batean). Bestalde, gazte agnostikoen %36k zuzenean diote ez dutela Jainkoarengan sinesten. Gauzak horrela, badirudi zenbait gaztek ateismoaren eta agnostizismoaren kontzeptuak ez dituztela oso garbi.

103. taula

JAINKOARENGAN SINESTEIA JAIROLEKUAAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIAN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ESANGO ZENIDAKE, MESEDEZ, JARRAIAN DOAZEN ESALDIETATIK ZEINEK ISLATZEN DITUEN HOBETO JAINKOARENGANAKO SINESMENARI BURUZ DITUZUN SENTIMENDUAK?»							
	GUZTIRA	JAIROLEKUA			EZKER-ESKUIAN ARDATZA		
		EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Ez dut Jainkoarengan sinesten	28	31	20	6	37	19	21
Ez dakit Jainkoa existitzen den eta ez dut uste jakiteko modurik dagoenik	20	22	22	6	21	19	19
Ez dut Jainko «pertsonal» batean sinesten, baina bai nolabaiteko botere goren batean	10	10	8	7	10	10	9
Batzuetan neure burua Jainkoarengan sinesten aurkitzen dut, baina beste batzuetan ez	8	8	11	9	7	12	8
Zalantzak izan arren, Jainkoarengan sinesten dudala sentitzen dut	14	13	16	18	10	17	16
Badakit Jainkoa egiaz existitzen dela eta horri buruz zalantzarik ez dut	10	7	12	44	6	17	13
Ed/Ee	10	10	11	11	8	6	13
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.288	83	128	662	144	694

(.../...)

(…/…)

	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
	KATOLIKO PRAKTI-KATZAILEA	KATOLIKO EZ-PRAKTI-KATZAILEA	BESTE ERLIJIO BATZUETAKO FEDEDUNA	JAINKOA-RENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Ez dut Jainkoarengan sinesten	0	1	0	0	36	73
Ez dakit Jainkoa existitzen den eta ez dut uste jakiteko modurik dagoenik	7	24	2	5	37	16
Ez dut Jainko «pertsoneal» batean sinesten, baina bai nolabaiteko botere goren batean	6	12	4	19	12	6
Batzuetan neure burua Jainkoarengan sinesten aurkitzen dut, baina beste batzuetan ez	9	13	13	19	5	1
Zalantzak izan arren, Jainkoarengan sinesten dudala sentitzen dut	36	22	7	34	3	1
Badakit Jainkoa egiaz existitzen dela eta horri buruz zalantzarik ez dut	38	12	59	17	0	0
Ed/Ee	3	15	14	8	8	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

Atentziona ematen du, halaber, beren burua katoliko praktikatzaitzat duten gazteen %7k Jainkoaren existentziaz zalantzak izatea.

Bestalde, atzerrian jaiotako gazteek EAEn edo Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotakoek baina neurri handiagoan sinesten dute zalantzarik gabe Jainkoarengan. Era berean, beren burua zentroko edo eskuinekotzat jotzen dutenek ardatz ideologikoaren ezkerrean kokatzen direnek baino neurri handiagoan sinesten dute Jainkoaren existentzian (ikus 103. taula).

6.6. ONDORIOAK

Euskadiko gazteen erdiek baino gutxiago katolikotzat —mezetara joan ala ez— jotzen dute beren burua. Ia katolikoak adina dira agnostiko eta ateoak.

Beren burua katolikotzat definitzen duten Euskadiko gazteen portzentajeak behera egin du azken hamar urteotan, eta, era berean, Estatuko portzentajea baino dezente apalagoa da.

Gazteriaren erlijiotasunak behera egitearen ondorioz, hogeitaz gutxiago apenak dio erlijio-ofizioetara gutxienez astean behin joaten dela. Beste erlijio batzuetako fededunak dira otoitz-lekura egunero gehien joaten direnak (hamarretik bat).

Erljioez oro har hitz egitean, gazteen ia erdien iritziz edozein erlijioaren baitan egia gutxi dago oso. Gazteen laurdunek baino gehiago, berriz, erlijio askotan funtsezko egiak daudela uste dute.

Bestalde, mezetara joaten diren katolikoaren herenek eta beste erlijioetako kideen ia erdiek uste dute egiazko erlijio bakar bat dagoela.

Oro har, gazte gehienek Jainkoaren existentzia ukatzen dute edo horri buruz zalantzak dituzte. Hamar gutxiago bakar batek soilik ez du zalantzarik eta haren existentziak ziur dago.

Horrenbestez, ondoriozta liteke euskal gazteriaren erlijiozaletasuna apala dela (duela hamar urte baino apalagoa), eta oro har erlijioei buruz eszeptiko samar ageri da; izan ere, Jainkoaren existentziari buruz zalantza handiak ditu, hainbatetan existentzia hori ukatzeraino.



KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

7.
**Gizarte-balioak
eta jokaerak**

7

Gizarte-balioak eta jokaerak

7.1. SARRERA

Gizarte-balioak gizarte-talde batek partekatzen dituen iritzi eta jokabideen multzoa bezala defini litezke. Balio horiek ez dira estatikoak, denboraren joanarekin eta hainbat gorabeheren eraginez bilakatuz doaz, garai batean gaitzetsiak ziren balioak beste garai batean onartuak edota orokortuak izateraino.

Atal honetan gazteen jokaerak eta jarrerak, pertsonalak zein gazteria osora heda litezkeenak, aztertuko dira, horretarako hainbat alderdi jorratuz: ohitura arriskugarriak, zenbait egoeraren onarpena edo arbuioa, tolerantzia eta immigrazioa, besteak beste.

Kasu honetan ere EAEko gaur egungo gazteriaren argazkia egin nahi da, baina era berean denboran zehar izan den bilakaera aztertu nahi da eta Espainiar Estatuko gazteekin alderaketak egin, alderik ote dagoen ikusteko.


7.2. ZENBAIT EGOEREN AURREKO JARRERA

Atal honetan, gizartean eztabaida-iturri diren gaurkotasuneko hainbat gairen inguruan dituzten iritziei buruz galdetu zaie gazteei. Gaiok dira droga-kontsumoa, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, sexu-aldaketa, indarkeria politiko edo erlijiosoa, suizidioa, abortua, heriotza-zigorra, eutanasia, erlijioaren irakaskuntza ikastetxeetan eta etxebizitza hutsen okupazioa.

Gazteen gehiengoak begi onez ikusten du sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, hala eskatzen duen gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzea (eutanasia), legezko sexu-aldaketa, abortu libre eta borondatezkoa eta etxebizitza hutsen okupazioa. Droga bigunen kontsumoari dagokionez, gehixeago dira alde daudenak aurka daudenak baino. Eskoletan erlijioa irakasteari buruz, alde eta aurka daudenen kopurua ia berbera da. Haatik, Euskadiko gazte gehienak suizidioaren, ideia politiko eta erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen eta, batez ere, heriotza-zigorraren aurka ageri dira (ikus 38. grafikoa).

38. grafikoa

ZENBAIT EGOEREN AURREKO JARRERA (%)



Egoera horiek banan-banan azterturik, horietako bakoitzaren alde eta kontra zein kolektibo dagoen bereizi ahal izango dugu.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari eta legezko sexu-aldaketari erreparatuz, neskak mutilak baino pixka bat aldekoagoak dira. Bi egoerok onarpen handiagoa dute, halaber, beren burua ezkerrekotzat dutenen artean zentroko edo eskuinekotzat dutenen artean baino. Beren burua ateo, agnostiko, Jainkoarengan sinestun baina ez erlijioetan eta katoliko ez-praktikatzaille jotzen dutenak aipatu egoeren aldekoagoak dira katoliko praktikatzailleak baino, nahiz eta azken horietan ere aldekoak gehiengoak izan. Aldiz, beste erlijio batzuetako fededunak nagusiki sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren zein legezko sexu-aldaketaren aurka ageri dira (ikus 104. taula).

104. taula

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZAREN ETA LEGEZKO SEXU-ALDAKETAREN AURREKO JARRERA SEXUAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	SEXUA		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONA	EMAKUMEA	EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza»						
Alde	86	81	91	93	78	80
Aurka	9	11	6	4	15	12
Ed/Ee	6	8	3	3	7	8
Legezko sexu-aldaketa»						
Alde	78	73	83	86	70	72
Aurka	12	15	10	7	22	15
Ed/Ee	10	12	7	7	8	13
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	662	144	694

(.../...)

(…/…)

	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
	KATOLIKO PRAKTI- KATZAILEA	KATOLIKO EZ-PRAKTI- KATZAILEA	BESTE ERLIJIO BATEKOA	JAINKOA- RENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza»						
Alde	75	86	36	91	89	93
Aurka	16	9	54	6	2	3
Ed/Ee	8	5	10	3	9	4
Legezko sexu-aldaketa»						
Alde	60	78	22	84	85	86
Aurka	23	14	56	10	5	7
Ed/Ee	17	8	22	6	10	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

Multzo guztietan gehiengoa dira eutanasiaren (hala eskatzen duen gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzea) aldekoak, katolikoa ez den beste erlijio batzuetako kideak izan ezik. Bestalde, multzo guztietan, salbuespenik gabe, gazteak suizidioaren aurka ageri dira. Bi kasutan, beren burua ezkerrekotzat jotzen dutenak eta ateo definitzen direnak dira egoera horien aurrean aldeko edo jasanberenak (ikus 105. taula).

105. taula

EUTANASIAREN ETA SUIZIDIOAREN AURREKO JARRERA NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Hala eskatzen duen gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzea»				
Alde	82	91	76	75
Aurka	9	5	15	12
Ed/Ee	9	4	9	13
Suizidioa»				
Alde	19	26	16	13
Aurka	66	58	79	72
Ed/Ee	15	16	5	15
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	662	144	694

(.../...)

(.../...)

AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA						
	KATOLIKO PRAKTIKATZAILEA	KATOLIKO EZ- PRAKTIKATZAILEA	BESTE ERLIJIO BATEKOA	JAINKOA- RENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Hala eskatzen duen gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzea»						
Alde	67	81	33	83	85	92
Aurka	22	8	61	14	5	3
Ed/Ee	11	11	6	3	9	5
Suizidioa»						
Alde	11	14	8	9	23	29
Aurka	85	72	87	75	60	54
Ed/Ee	4	14	5	16	17	17
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

Katolikoa ez den beste erlijio batzuetako fededunen artean izan ezik, gainerako multzoetan gehiengoa dira abortu libre eta borondatezkoaren aldekoak. Edonola ere, egoera hori gehien onartzen duten gazteak seme-alabarik gabekoak, beren burua ezkerrekotzat dutenak eta ateo edo agnostiko definitzen direnak dira. Abortuaren alde edo aurka egoteko orduan, sexuaren arabera alderik ez da hauteman (ikus 106. taula).

Multzo guztiak, salbuespenik gabe, heriotza-zigorraren aurka ageri dira. Heriotza-zigorraren aldekoenak beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenak dira, zehazki gazte horien %14 (ikus 107. taula).

106. taula

ABORTU LIBRE ETA BORONDATEZKOAREN AURREKO JARRERA SEME-ALABAK IZATEAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	SEME-ALABAK		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		BAI	EZ	EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Abortu libre eta borondatezkoa»						
Alde	76	53	77	87	64	68
Aurka	15	35	14	8	24	20
Ed/Ee	9	11	9	5	12	12
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	103	1397	662	144	694

(.../...)

(.../...)

	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
	KATOLIKO PRAKTIKATZAILEA	KATOLIKO EZ-PRAKTIKA- TZAILEA	BESTE ERLIJIO BATEKOA	JAINKO- ARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Abortu libre eta borondatezkoa»						
Alde	52	75	28	73	82	87
Aurka	39	16	60	15	7	7
Ed/Ee	8	9	12	12	11	6
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

107. taula

HERIOTZA-ZIGORRAREN AURREKO JARRERA NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN
HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Heriotza-zigorra»				
Alde	9	6	14	10
Aurka	86	91	80	82
Ed/Ee	5	3	5	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	662	144	694

Multzo guztietan gehiengoa dira, era berean, ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen aurkakoak. Horri dagokionez, multzoen jarreraren artean ez da alde handirik nabari, baina alderik deigarriena seme-alabak izateak eta ez izateak markatzen du: seme-alabak dituen bost gaztetik bat ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen alde dago (ikus 108. taula).

108. taula

IDEIA POLITIKO EDO ERLIJIOSOAK INDARKERIAREN BIDEZ DEFENDATZEAREN AURREKO JARRERA
SEME-ALABAK IZATEAREN ALA EZ IZATEAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	SEME-ALABAK	
		BAI	EZ
Idea politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzea»			
Alde	15	21	14
Aurka	70	59	71
Ed/Ee	16	20	15
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	103	1397

Droga bigunen kontsumoari dagokionez, ostera, iritziak ez dira hain aho batekoak, eta multzo ezberdinen artean alde nabarmenak ikus daitezke. Oro har, droga bigunen kontsumoaren aldeko edo jasanberenak mutilak, 19 urtetik gorakoak eta EAEn jaiotakoak nahiz beren burua ezkerrekotzat dutenak dira (ikus 109. taula).

109. taula

DROGA BIGUNEN KONTSUMOAREN AURREKO JARRERA SEXUAREN, ADINAREN, JAIOLEKUAREN ETA NORBERAK EZKER-ESKUI ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Droga bigunen kontsumoa»						
Alde	51	59	42	40	55	55
Aurka	41	33	50	52	37	37
Ed/Ee	8	8	8	8	8	8
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

(…/…)

(…/…)

	JAIOLEKUA			EZKER-ESKUI ARDATZA		
	EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Droga bigunen kontsumoa»						
Alde	55	43	17	64	38	41
Aurka	37	54	77	31	49	49
Ed/Ee	9	2	6	5	12	10
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.288	83	128	662	144	694

Eskoletan erlijioa irakasteari buruz ere alde nabarmenak daude: neskak mutilak baino aldekoagoak dira, zentroko edo eskuinekotzat definitzen direnak ezkerrekoak baino gehiago, baina, batez ere, aldekoenak mezetara joaten diren katolikoak dira. Mezetara joaten ez diren katolikoek, Jainkoarengan bai baina erlijioetan sinesten ez dutenen edo katolikoa ez den beste erlijio batzuetako fededunen artean gehiago dira, halaber, erlijioaren irakaskuntzaren aldekoak aurkakoak baino. Bestalde, agnostikoen eta batez ere ateoek artean gehiago dira eskoletan erlijioa irakastearen aurka daudenak (ikus 110. taula).

Azkenik, etxebizitza hutsen okupazioari dagokionez, multzo guztietan gehiago dira alde daudenak aurka daudenak baino. Alderik handienak ezker-eskuin ardatzean hartutako kokapenaren arabera dira: ezkerrekotzat definitzen direnak okupazioaren dezente aldekoagoak dira zentro edo eskuinekoak direla diotenak baino (ikus 111. taula).

110. taula

ESKOLETAN ERLIJIOA IRAKASTEAREN AURREKO JARRERA SEXUAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	SEXUA		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONA	EMAKUMEA	EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Eskoletan erlijioa irakastea»						
Alde	40	36	45	32	55	46
Aurka	42	46	38	53	32	34
Ed/Ee	17	17	17	15	12	20
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	662	144	694

(.../...)

(…/…)

	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
	KATOLIKO PRAKTIKATZAILEA	KATOLIKO EZ- PRAKTIKATZAILEA	BESTE ERLIJIO BATEKOA	JAINKOA- RENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	INTERESIK EZ, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Eskoletan erlijioa irakastea»						
Alde	81	57	63	52	22	15
Aurka	9	28	27	31	47	70
Ed/Ee	10	15	11	18	30	15
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	114	560	46	74	216	453

111. taula

ETXEBIZITZA HUTSEN OKUPAZIOAREN AURREKO JARRERA NORBERAK EZKER-ESKUIN
ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«ORAIN JAKIN NAHIKO NUKE, ZUK PERTSONALKI EGINGO ZENUKEENA ALDE BATERA UTZITA, HONAKOEN ALDE EDO AURKA ZAUDEN:	GUZTIRA	EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Etxebizitza hutsen okupazioa»				
Alde	64	72	47	59
Aurka	25	21	39	26
Ed/Ee	11	7	14	14
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	662	144	694

Euskadiko gazteek emandako iritzietako batzuk Espainiar Estatukoekin alderatuz gero, ohartuko gara sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari, eutanasiari eta *okupen* mugimenduari dagokienez Euskadiko gazteak Estatukoak baino toleranteagoak direla. Bestalde, EAEko gazteak eskoletan erlijioa irakastearen aurkakoago ageri dira, Estatukoan aldean (ikus 112. taula).

112. taula

IRITZIEN ARTEKO ALDEAK EAE-KO ETA ESPAINIAR ESTATUKO GAZTERIAREN ARTEAN

ALDEKO EDO AURKAKO JARRERA:	EAE (2008)	ESPAINIAR ESTATUA (2007)*
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza		
Alde	86	77
Aurka	9	16
Ed/Ee	6	7
Hala eskatzen duen gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzea		
Alde	82	75
Aurka	9	15
Ed/Ee	9	10
Eskoletan erlijioa irakastea		
Alde	40	52
Aurka	42	34
Ed/Ee	17	14
Etxebizitza hutsen okupazioa		
Alde	64	34
Aurka	25	59
Ed/Ee	11	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.462

* Datuak hamartarrak kenduta biribildu dira.

Iturria: INJUVE (2007): *Cifras jóvenes - Sondeo de opinión*, EJ123 azterlana, «Valores y actitudes. Participación asociativa».

7.3. OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN OHITUREN HEDAPENA GAZTERIAN


Sarritan hitz egin ohi da gazteen artean oso gomendagarriak ez diren zenbait ohitura orokortzen ari direla, hala nola elikadura eskasa, egoneko bizimodua, drogen kontsumoa edo babesik gabeko sexu-harremanak. Uste hori egiazkoa den ala gazteei atxikitako aurreiritzi bat den egiaztatze aldera, gazteei beraiei galdetu zaie haien iritziz zein neurritan dauden ohitura horiek inguruko gazteriaren artean zabaldua.

Tamalez, badirudi susmoak baieztatu egin direla, eta ohitura horiek oso edo nahikoa zabaldua daudela uste dutenen portzentajeak batuz gero, emaitzak esanguratsuak dira: gazteen %94k adierazi dute tabakoa edo alkohola bezalako legezko drogen kontsumoa orokortua dagoela, %84k haxixa, kokaina edo pilulak bezalako legez kanpokoak, %78k elikadura desorekatua, %69k egoneko bizimodua, %63k estresa, depresioa eta antzeko arazo psikologikoak eta %59k babesik gabeko sexu-harremanak (ikus 39. grafikoa).

39. grafikoa

OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN OHITUREN HEDAPENA GAZTERIAN (%)

«ZURE USTEZ, GAZTEEN ARTEAN ZENBATERAINO DAUDE ZABALDUTA OHITURA EDO EGOERA HAUEK?»*



* Ohitura edo egoera horietako bakoitza inguruko gazteen artean oso edo nahikoa hedatuak daudela adierazi duten gazteen portzentajea.

Aurreko urteekin alderatuta, estresa edo depresioa bezalako arazo psikologikoak oso edo nahikoa zabaldua daudela diotenen kopuruak gora egin duela antzeman daiteke. Itxura batean, gainerako ohiturak ez dira, gazteen arabera, 2004tik hona areagotu, baina orduan 2000n baino gehiago ziren jada orokortzen ari zirela uste zuten gazteak (ikus 113. taula).

113. taula

OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN OHITUREN OROKORTZEAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZURE IRITZIZ, ZURE INGURUKO GAZTEEN ARTEAN ZENBATERAINO DAUDE ZABALDUTA OHITURA EDO EGOERA HAUEK?»*			
	2000	2004	2008
Legezko drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola)	93	96	94
Legez kanpoko drogen kontsumoa (haxixa, kokaina, pilulak...)	74	88	84
Elikadura desorekatua	69	76	78
Ariketa fisiko gutxi (egoneko bizimodua)	56	68	69
Arazo psikologikoak (estresa, depresioa...)	54	54	63
Babesik gabeko sexu-harremanak	38	57	59
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

* Aztura edo egoera horiek oso edo nahikoa zabaldua daudela diotenen portzentajeak.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Berriro ere ohitura horiek inguruko gazteen artean oso edo nahikoa zabaldua daudela uste dutenen portzentajeak batuz gero, ikus daiteke legezko drogen kontsumoa antzera hautematen dutela multzo guztiek, baina legez kanpoko drogen kontsumoa gehiago aipatzen dute Araban bizi diren gazteek. Elikadura desorekatua neskek eta 20 eta 24 urte arteko gazteek aipatzen dute gehien. Egoneko bizimodua edo ariketa fisikoaren eskasia gehien nabarmendu dutenak, berriz, 20 eta 24 urte artekoak zein Bizkaian bizi direnak izan dira. Bestalde, arazo psikologikoak eta babesik gabeko sexu-harremanak neurri handiagoan salatu dituzte neskek mutilek baino eta arabar eta bizkaitarrek gipuzkoarrek baino, eta adinean aurrera egin ahala ohitura horiek gehiago aipatzen dira (ikus 114. taula).

114. taula

OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN OHITUREN OROKORTZEA SEXUAREN, ADINAREN ETA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA

«ZURE IRITZIZ, ZURE INGURUKO GAZTEEN ARTEAN ZENBATERAINO DAUDE ZABALDUTA OHITURA EDO EGOERA HAUEK?»*									
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Legezko drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola)	94	94	94	93	96	93	96	93	94
Legez kanpoko drogen kontsumoa (haxixa, kokaina, pilulak...)	84	84	84	83	84	83	91	82	83
Elikadura desorekatua	78	76	80	73	82	77	77	79	76
Ariketa fisiko gutxi (egoneko bizimodua)	69	69	70	65	73	68	66	76	60
Arazo psikologikoak (estresa, depresioa...)	63	57	68	53	63	71	64	67	56
Babesik gabeko sexu-harremanak	59	54	64	54	58	65	63	66	46
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	402	600	498

* Aztura edo egoera horiek oso edo nahikoa zabaldua daudela diotenen portzentajeak.

7.4. OHITURA ETA JOKABIDE PERTSONALAK

Orain arte gazteek egoera edo ohitura jakin batzuen aurrean duten jarrera aztertu dugularik, jarraian gazteen banakako portaeretan sakonduko dugu, hau da, gainerako gazteei buruzko iritzietatik norberaren egiazko jokabideetara pasako gara.

7.4.1. Garraiobideen erabilera

Gazteen %77k egunero oinez ibiltzen direla adierazi dute, ez paseatze aldera, baizik eta jardueraren bat egitera joateko garraiobide gisa. Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteak arabarrak baino gehiago ibiltzen dira oinez; azken horien artean, %15 inoiz edo ia inoiz ez da alde batetik bestera horrela mugitzen. 20 urtetik azpikoek ere gainerakoek baino gehiago baliatzen dute joan-etorriak egiteko modu hori.

Gazteen herenak (%32) egunero autoz mugitzen dira. Joera hori ohikoagoa da mutilen artean nesken artean baino eta Araban eta Gipuzkoan bizi direnen artean Bizkaian bizi direnen artean baino. Adinak gora egin ahala gehiago erabiltzen da autoa, eta horrenbestez 24 urtetik gorako hamar gaztetik seik gutxienez astean behin erabiltzen dute. Bestalde, nabarmendu behar da soilik lanean ari diren gazteen erdiak (%50) egunero autoz mugitzen direla.

Gazteek mugitzeko gehien baliatzen duten hirugarren modua autobusa da. Bost gaztetik batek egunero edo ia egunero erabiltzen du autobusa. Neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute, gipuzkoarren artean ere gehiago dira egunero erabiltzen dutenak, eta adinak gora egin ahala egunero autobusean ibiltzeko joerak behera egiten du (izan ere, gazteenak eta ikasleak dira gehien erabiltzen dutenak).

Metroa, EAEko lurralde guztietan egon ez arren, gehien erabilitako laugarren garraiobidea da, trenaren aurretik (gazteen %14 egunero edo ia egunero ibiltzen dira metroan). Batik bat Bizkaian erabilia, lurralde horretan ia autoa bezainbeste baliatzen dute gazteek, hainbestearaino ezen lau gazte bizkaitarretik batek egunero erabiltzen baitu. Aitzitik, Araba edo Gipuzkoako hamar gaztetik bederatzik inoiz edo ia inoiz ez dute erabiltzen.

Trena gazteen %6k erabiltzen dute egunero, eta erdiak baino gehiago dira (%58) inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez dutenak. Bizkaitarrek eta gipuzkoarrek arabarrek baino gehiago baliatzen dute, eta era berean gehixeago erabiltzen dute 25 urtetik beherakoek adinez nagusiago direnek baino.

%5ek bizikleta ia egunero erabiltzen dute, eta %73k inoiz edo ia inoiz ez. Mutilak neskek baino gehiago ibiltzen dira bizikletaz. Bestalde, arabarrak eta gipuzkoarrak bizkaitarrak baino gehiago mugitzen dira bizikletaz. Adinean gora egin ahala, bizikletaren erabilerak behera egiten du.

Azkenik, motoa gazteen %5en eguneroko garraiobidea da, baina kasu honetan dezente gehiago dira (%87) inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez dutenak. Mutilek neskek baino gehiago baliatzen dute, eta erabilera hedatuagoa dago Gipuzkoan EAEko gainerako lurraldeetan baino (ikus 115. taula).

115. taula

GARRAIOBIDEEN ERABILERA SEXUAREN, ADINAREN ETA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA

«ZEIN MAIZTASUNEZ ERABILTZEN DITUZU GARRAIOBIDE HAUEK?»									
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Oinez ibiltzea (norabait joateko, ez paseatzeko)									
Egunero edo ia egunero	77	77	78	84	76	74	65	77	84
Astean egun bat edo batzuetan	11	10	12	10	10	12	10	13	7
Hilean egun bat edo batzuetan	2	2	1	2	2	1	2	2	1
Noizean behin	5	5	5	1	7	6	8	5	5
Inoiz ez edo ia inoiz ez	5	6	4	3	6	6	15	3	3
Ed/Ee	0	0	1	1	0	0	0	0	1
Autoa									
Egunero edo ia egunero	32	36	28	12	36	43	40	25	39
Astean egun bat edo batzuetan	19	17	20	19	18	18	14	19	20
Hilean egun bat edo batzuetan	8	7	8	12	7	5	9	9	5
Noizean behin	15	12	17	19	14	12	14	17	11
Inoiz ez edo ia inoiz ez	26	27	26	37	24	21	22	29	23
Ed/Ee	1	1	1	2	0	1	0	1	1

(.../...)

(.../...)

Autobusa									
Egunero edo ia egunero	20	17	23	26	20	14	15	18	24
Astean egun bat edo batzuetan	17	16	18	20	19	14	15	20	13
Hilean egun bat edo batzuetan	9	8	10	13	6	9	10	10	8
Noizean behin	20	20	20	19	19	22	20	1	20
Inoiz ez edo ia inoiz ez	33	38	28	22	35	40	40	31	34
Ed/Ee	0	0	1	1	0	0	0	0	1
Metroa									
Egunero edo ia egunero	14	13	14	12	16	12	3	24	2
Astean egun bat edo batzuetan	11	11	11	11	11	11	1	20	1
Hilean egun bat edo batzuetan	7	6	7	8	6	7	1	12	1
Noizean behin	11	11	11	10	10	13	5	17	4
Inoiz ez edo ia inoiz ez	56	58	55	57	56	56	89	28	90
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1	0	1	3
Trena									
Egunero edo ia egunero	6	5	6	7	7	4	3	6	7
Astean egun bat edo batzuetan	10	10	11	11	12	8	1	13	9
Hilean egun bat edo batzuetan	5	6	5	7	4	6	3	6	5
Noizean behin	19	20	19	20	21	17	13	20	21
Inoiz ez edo ia inoiz ez	58	58	58	54	55	65	79	54	56
Ed/Ee	1	1	1	2	0	0	0	1	1

(.../...)

(../..)

Bizikleta									
Egunero edo ia egunero	5	8	3	9	5	3	10	2	8
Astean egun bat edo batzuetan	6	9	4	7	6	6	7	3	12
Hilean egun bat edo batzuetan	3	5	2	5	3	2	6	3	3
Noizean behin	12	14	9	13	11	12	15	12	11
Inoiz ez edo ia inoiz ez	73	64	81	65	75	76	61	80	66
Ed/Ee	1	0	1	0	0	1	0	1	1
Motoa									
Egunero edo ia egunero	5	6	3	5	4	5	2	2	10
Astean egun bat edo batzuetan	3	4	1	2	3	2	3	2	3
Hilean egun bat edo batzuetan	1	2	1	1	2	1	2	1	1
Noizean behin	4	6	3	6	4	3	5	5	3
Inoiz ez edo ia inoiz ez	87	83	91	84	87	89	86	90	82
Ed/Ee	1	0	1	1	1	0	1	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	402	600	498

Gazteen mugitzeko eran egon bide den bilakaera aztertze aldera, datu hauek 2004an bildutakoekin alderatuko ditugu, garraibide bakoitza egunero edo ia egunero erabiltzen dutela eta astean behin edo batzuetan erabiltzen dutela diotenen portzentajeak batuz.

Horrela ohartzen gara azken lau urteotan gutxienez astean behin oinez mugitzen direnen kopurua areagotu egin dela. Bestelakoan, oinez ibiltzea da gazteek gehien erabiltzen duten modua, autoa, autobusa, metroa, tren, bizikleta eta motoa atzean dituela (hurrenkera hori 2004koaren berbera da) (ikus 116. taula).

116. taula

GAZTERIAREN MUGITZEKO MODUEN BILAKAERA (2004-2008)

«ZEIN MAIZTASUNEZ ERABILTZEN DITUZU GARRAIOBIDE HAUEK?»*		
	2004	2008
Oinez ibiltzea	80	88
Autoa	48	51
Autobusa	38	37
Metroa	22	25
Trena	15	16
Bizikleta	10	11
Motoa	7	8
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.500

* Garraiobidea gutxienez astean behin erabiltzen dutela diotenen portzentajeak.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

7.4.2. Osasunerako kaltegarriak diren edo gizalegezkoak ez diren jokabideak izatea

Gizalegezkoak ez diren edo osasunerako kaltegarriak diren jokabideei erreparatuz, gazteen erdiek baino gutxiagok adierazi dute horrelakorik egin izana; nolahi ere, portzentaje hori, duen pisuagatik, kontuan hartu beharrekoa da.

Gazteen ia erdiek (%43) adierazi dute azken urtean gutxienez behin edanarekin gehiegikeriak egin dituztela. Mutilek neskek baino gehiegikeria gehiago egin dituzte, gazte gipuzkoar zein arabarrek bizkaitarrek baino gehiago, eta 20 urtetik gorakoek adin horretara iritsi ez direnek baino gehiago (bederen, hein handiagoan aitortu dituzte).

Euskadiko bost gaztetik batek (%20) azken hamabi hilabeteetan legez kanpoko drogaren bat (haxixa, kokaina, pilulak...) kontsumitu izana adierazi du. Beste behin, gehiago dira legez kanpoko drogak kontsumitu izana aitortu duten mutilak neskek baino, eta 20 urtetik gorakoak adin horretara iritsi ez direnak baino.

Azkenik, gazteriaren %19k aitortu du azken urtean zirkulazio-arauak errespetatu gabe inoiz gidatu izan duela. Arauak urratu izana gehien adierazi dutenak mutilak, gipuzkoar eta arabarrak eta 20 urtetik gorakoak izan dira (hain zuzen ere, urteetan aurrera egin ahala ohikoagoa da azken urtean zirkulazio-arauak errespetatu gabe gidatzea). Aurreko atalean aztertutako autoa erabiltzeko maiztasunari erreparatuz gero, ikus daiteke multzo horiexek direla (mutilak, gipuzkoar eta arabarrak, eta 20 urtetik gorakoak) autoa gehien erabiltzen dutenak; hortaz, badirudi autoa gehiago erabiltzeak arauak urratzeko aukerak areagotzen dituela (ikus 117. taula).

117. taula

OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN EDO GIZALEGEZKOAK EZ DIREN JOKABIDEAK IZATEA SEXUAREN, ADINAREN ETA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA

«GAUZA HAUETATIK, ZEINTZUK EGIN DITUZU GUTXIENEZ BEHIN AZKEN 12 HILABETEETAN?»*									
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Gehiegi edan	43	51	35	37	47	43	45	38	49
Legez kanpoko drogak kontsumitu	20	27	13	15	23	21	20	18	24
Zirkulazio-arauak errespetatu gabe gidatu	19	26	12	5	22	26	22	14	26
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	402	600	498

* Baiezko erantzunak banan-banan egindako galdera bakoitzari.

Edonola ere, jokabide horiek urriagoak izan dira 2007an (gogora dezagun 2008aren hasieran azken urtean egin ziren galdetu zela) 2003an baino (2004an egindako galderaren arabera)³¹: orduan %53 ziren gutxienez behin gehiegi edandakoak, eta orain %43k aitortu dute hori. Legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutenak %25etik %20ra pasa dira. Azkenik, zirkulazio-arauak errespetatu gabe gidatu dutenen portzentajea ere %26tik %19ra jaitsi da. Beraz, uste orokorrak bestelakorik aditzera eman lezakeen arren, badirudi alkoholari, drogei eta gidatzeari dagokienez gazteen ohiturek zertxobait hobera egin dutela.

³¹ Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza eta Kultura Saila: *Euskadiko gazteak 2004* [linean], (koord. Francisco Javier Gutiérrez Páramo), Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004, <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/eu/contenidos/informacion/9265/eu_5561/adjuntos/EUSKADIKO_GAZTEAK_2004.pdf>. [Kontsulta: 2008ko apirilaren 7a.]

7.5. AUZOKIDEEKIKO TOLERANTZIA

Gazteen auzokideekiko tolerantzia aztertzeko, eskala klasikoa baliatu da, non erantzuleei eskatzen baitzaie gizarteko talde jakin batzuk auzokide izatearen aurka dauden ala ez esan dezatela. Kasu honetan, talde hauei buruz galdetu zaie gazteei: drogazaleak, etorkin atzerritarrak, poliziak, militarrek, kartzelan egondakoak, ezker edo eskuin muturrekoak, homosexualak, ijitoak eta prostitutak edo gigoloak.

Gazteek gehien arbuiazen duten taldea eskuin muturreko edo neonaziena da. Erdiek baino gehiago (%57) adierazi dute ez litzaiekeela horrelakoak auzokidetzat edukitzea gustatuko. Auzokide izateko gehien baztertzen den bigarren taldea drogazaleena da (%46k ez lituzkete alboan eduki nahiko), eta jarraian ijitoena (%43ko arbuioa). %30ek ez luke ondoko atean prostituta edo gigolorik nahi, %30ek militarrik ez, %25ek kartzelan egondakorik, %22k ezker muturreko pertsonarik, %20k poliziarik, %15ek etorkin atzerritarrik eta %6k homosexualik (gay edo lesbianak).

Eskuin muturrekoenganako arbuioa 2000tik errepikatu den joera da; orduko hartan, talde horren aurkako joera nabarmen hazi zen. 1986an eta 1990ean militarrek eskuin muturrekoek baino are arbuio handiagoa eragiten zuten. Orain, aldiz, militarrek eta homosexualak urte haietan baino gaitzespen txikiagoa sortzen dute.

Bestalde, azken neurketa honetan hainbat talderen aurkako joera areagotu egin da, zehazki drogazaleen aurka (1990 eta 2000ko mailetara itzuliz), prostituta eta gigoloen aurka eta aurrekari penalak dituzten pertsonen aurka, eta aldi berean pixkanaka handituz joan da, halaber, etorkin atzerritarrenganako arbuioa (ikus 118. taula).

Auzokideekiko tolerantzian gehien eragiten duten aldagaiak adina, seme-alabak izatea ala ez izatea, eta norberak ezker-eskuin ardatzean hartzen duen lekua dira. Hala, auzokide berriak eskuin muturrekoak izanez gero, disgusturik handiena 24 urtetik gorako gazteek eta beren burua ezkerrekotzat dutenek hartuko lukete. Era berean, Gipuzkoan horregatik atsekabetutako gazte gehiago egongo litzateke gainerako lurraldeetan baino.

Drogazaleak auzokide gisa gehien arbuiazen dituztenak 20 urtetik beherakoak eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenak dira. Neskek ere mutilek baino gogorrago baztertzen dute auzoan drogazaleak izatea.

Ijitoek arbuio handiagoa eragiten dute adinak aurrera egin ahala eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenen artean. Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino baztertuagoak dira. Klase altukoak direnek ere gainerakoek baino erreparo handiagoa dute ijitoak auzokide izateko.

118. taula

AUZOKIDEEKIKO TOLERANTZIAREN BILAKAERA (1986-2008)

«AXOLA AL ZAIZU HONELAKO PERTSONAREN BAT AUZOKIDE IZATEA?»*					
	1986	1990	2000	2004	2008
Neonaziak, eskuin muturreko pertsonak	48	48	66	56	57
Drogazaleak	30	46	50	40	46
Ijitoak	-	-	40	42	43
Prostitutak edo gigoloak	-	-	22	24	30
Militarrak	50	51	34	30	30
Kartzelan egondako pertsonak	23	34	21	19	25
Ezker muturreko pertsonak	18	26	23	18	22
Poliziak	-	-	25	22	20
Etorkin atzerritarrak	-	-	9	12	15
Homosexualak (gay edo lesbianak)	14	14	4	7	6
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	2.030	2.282	1.364	1.500	1.500

* Aipatu taldeetako kideren bat auzokide izatea axolako litzaiekeela adierazi dutenen portzentajeak.

Iturria: *Juventud vasca 1986, Jóvenes vascos 1990, Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.*

Prostitutak eta gigoloak gehien baztertzen dituztenak 20 urtetik beherakoak, seme-alabak dituztenak eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenak dira. Era berean, emakumeak gizonak baino aurkakoago ageri dira.

Militarrek zein poliziek ezkerrekoen artean eragiten dute arbuiorik handiena. Adinean aurrera egin ahala, arbuio hori ere pixka bat areagotzen da. Gipuzkoan eta Araban Bizkaian baino gehiago dira auzokide gisa eduki nahi ez dituztenak, eta seme-alabak dituztenek ez dituztenek baino gehiago baztertzen dute auzoan horrelakorik izatea.

Kartzelan egondako pertsonetikiko tolerantziarik eza handiagoa da 20 urtetik azpikoetan, seme-alabak dituztenen artean eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenen artean. Gainera, neskek mutilek baino gehiago arbuiatzen dituzte.

Ezker muturrekoek, bestalde, adinean aurrera egin ahala, seme-alabak dituztenen artean eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenen artean arbuio handiagoa eragiten dute.

Aldiz, etorkin atzerritarrak gehiago gaitzesten dituzte adinean behera egin ahala. Beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenek ere ezkerrekoek baino erreparatu handiagoa dute pertsona horiengan.

Azkenik, homosexualen (gay edo lesbianak) aurrean errezelo handiagoa dute seme-alabak dituztenek eta beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenek seme-alabak ez dituztenek eta ezkerrekoak direnek baino (ikus 119. taula).

119. taula

AUZOKIDEEKIKO TOLERANTZIA ADINAREN, SEME-ALABAK IZATEAREN ALA EZ IZATEAREN
ETA NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«AXOLA AL ZAIZU HONELAKO PERTSONAREN BAT AUZOKIDE IZATEA?»*									
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			SEME-ALABARIK DUZU?		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		15-19	20-24	25-29	BAI	EZ	EZKERREKOAK	ZENTRO-ESKUINEKOAK	ED/EE
Neonaziak, eskuin muturreko pertsonak	57	56	56	60	57	58	69	60	46
Drogazaleak	46	50	46	44	49	46	42	61	48
Ijitoak	43	40	44	45	41	43	41	56	42
Prostitutak edo gigoloak	30	34	27	30	36	30	24	43	33
Militarrak	30	28	30	32	34	30	40	28	21
Kartzelan egondako pertsonak	25	29	24	24	31	25	22	37	27
Ezker muturreko pertsonak	22	19	22	25	30	21	20	43	20
Poliziak	20	17	20	22	30	19	26	18	15
Etorkin atzerritarrak	15	17	15	13	18	15	11	20	19
Homosexualak (gay edo lesbianak)	6	7	6	7	14	6	4	10	8
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	103	1397	662	144	694

* Aipatu taldeetako kideren bat auzokide izatea axolako litzaiekeela adierazi dutenen portzentajeak.

7.6. TOLERANTZIA IDEOLOGIKOA

Zenbait talderi buruz agertutako erreparoez gain, gazteen ia erdiek adierazi dute haienak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituzten pertsonekin neurri batean deseroso sentitzen direla. Horrenbestez, horrelako pertsonekin oso deseroso egoten direla dioten gazteak apenas %2 badira ere, horiei nahikoa deseroso sentitzen direnak batuz gero, ezberdin pentsatzen duen jendearekiko sentimendu hori adierazi dutenen portzentajea %12ra iristen da.

Beste %34k «ez oso deseroso» anbigua darabilte haienak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituzten pertsonen eragiten dieten sentimenduaz galdetzen zaienean; horrek adierazten du ezberdin pentsatzen duen jendearekin topo egitean egonezina sentitzen duen gazte-kopurua esanguratsua dela, oso handia ere izan ez arren.

Azkenik, %49k diote batere deseroso ez direla egoten ezberdina den jendearekin topo egitean.

Horri dagokionez, multzo ezberdinen artean ez da alde handirik nabari.

Aurreko urteekin alderatuta, ezberdin pentsatzen dutenen pertsonekin egonezina sentitzen duten gazteen portzentajea pixka bat igo da (ikus 120. taula).

120. taula

TOLERANTZIA IDEOLOGIKOAREN BILAKAERA (2000-2008)

«ZUREAK EZ BEZALAKO IDEIAK, SINESMENAK EDO BALIOAK DITUZTENEKIN ZEIN NEURRITAN SENTITZEN ZARA DESEROSO?»			
	2000	2004	2008
Oso deseroso	2	1	2
Nahikoa deseroso	8	9	10
Ez oso deseroso	37	30	34
Batere deseroso ez	50	54	49
Ed/Ee	3	6	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

7.7. IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK

Tolerantzia hizpidera ekarrita, immigrazioaren gaia ezin dugu alboratu (gogora dezagun gazteriaren %15ek adierazi duela ez litzaiokeela gustatuko auzokide gisa etorkin atzerritarrik edukitzea).

Immigrazioaren ondorioz, nazionalitate eta kultura ezberdineko pertsonak, bestelako bizimodu, sinesmen, balio edota jarrerak dituztenak, heltzen dira, eta hori zenbaitetan norberaren pentsaera, bizimodu edo jardunbideari begira arrisku edo mehatxu gisa hautematen da. Hori dela-eta, atal honetan EAEko gazteek atzerriko immigrazioari buruz duten ikuspegian areago sakonduko dugu.

7.7.1. Atzerritarren kopuruari buruzko iritzia

Gazteen herenek (%38) Euskadin atzerritar gehiegi daudela uste dute.

Euskadin etorkin gehiegi dagoela diotenen portzentajea izugarri hazten ari da azken urteotan. Esan beharra dago EAEko atzerritarren egiazko portzentajea %5era iristen ez bada ere, zortzi urtetik hona boskoiztu egin dela (ikus 121. taula).

121. taula

EUSKADIN BIZI DIREN ATZERRITARREN KOPURUARI BURUZKO IRITZIAREN ETA ATZERRITARREN EGIAZKO PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (2000-2008)

«EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONEN KOPURUAZ ARI GARELA, ZUK ESANGO ZENUKE GEHIEGI DAUDELA, DEZENTE DAUDELA BAINA EZ GEHIEGI EDO GUTXI DAUDELA?»			
	2000	2004	2008
Ghiegi	12	24	38
Dezente baina ez ghiegi	47	61	54
Gutxi	31	10	4
Ed/Ee	10	5	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500
BIZTANLE ATZERRITARREN PORTZENTAJEA EAE-N	1,0	2,8	4,6

Iturria: Ikuspegi (2007ko abuztua), *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Etorkin «gehiegi» dagoen ideia hedatuagoa dago Araban EAEko gainerako lurraldeetan baino. Izan ere, Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) 2007ko datuen arabera, Araban immigrazioaren portzentajea (%6,3) Bizkaiari (%4,4) eta Gipuzkoari (%4,2) baino altuagoa da.

Era berean, irudipen hori ohikoagoa da beren burua zentroko edo eskuinekotzat dutenen artean ezkerrekoen artean baino.

EAEen edo espainiar Estatuan jaiotako gazteak atzerrian jaiotakoak baino dezente gehiago kezkatzen dira Euskadin dauden atzerritarren kopuruari buruz (ikus 122. taula).

122. taula

EUSKADIN BIZI DIREN ATZERRITARREN KOPURUARI BURUZKO
IRITZIA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN, JAIOLEKUAREN ETA NORBERAK
EZKER-ESKUIAN ARDATZEAN HARTZEN DUEN LEKUAREN ARABERA

«EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONEN KOPURUAZ ARI GARELA, ZUK ESANGO ZENUKE GEHIEGI DAUDELA, DEZENTE DAUDELA BAINA EZ GEHIEGI EDO GUTXI DAUDELA?»							
	GUZTIRA	LURRALDEA			EAE	JAIOLEKUA	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA		ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA
Gehiegi	38	52	36	35	39	44	23
Dezente baina ez gehiegi	54	40	56	57	54	49	57
Gutxi	4	4	4	5	4	3	10
Ed/Ee	4	5	4	3	3	4	9
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498	1.288	83	128

(.../...)

(.../...)

	EZKER-ESKUIN ARDATZA		
	EZKERREKOA	ZENTRO-ESKUINEKOA	ED/EE
Gehiegi	33	45	42
Dezente baina ez gehiegi	59	48	51
Gutxi	5	4	3
Ed/Ee	4	3	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	662	144	694

7.7.2. Etorkinen jatorriari buruzko pertzepzioa

Etorkin atzerritarrei buruz aritzean, gazte gehienek bat-batean bi talde dituzte gogoan: alde batetik, latinoamerikarrek osatutakoa, eta bestetik, iparrafrikarrek, magrebtar, arabiar edo musulmanek osatutakoa (talde bakoitza %58k aipatu dute). %35ek Europako ekialdetik heldutako immigranteak dituzte gogoan (errumaniarrak, ukrainarrak eta abar), %30ek Saharaz hegoaldeko afrikarrak eta %24k ekialde urrunekoak (txinatarrak edo oro har asiarrak).

Irudipen hori, neurri handi batean, EAEn biztanle gehien dituzten etorkin-taldeekin bat dator. Ikuspegiren 2007ko datuak ostera hona ekarriz, EAEn errolatutako atzerritarren %48,3 Latinoamerikatik heldu dira: talde ugariena kolonbiarrek osatzen dute (%11,8) eta atzetik doazkie boliviarrak (%9,7) eta ekuadortarrak (%7,5). EAEn bizi diren atzerritarren %12,8 iparrafrikarrak dira (nagusiki marokoarrak, eta jarraian aljeriar eta tunisiarrak) edo Pakistan, Siria, Iran eta abarreko musulmanak. Atzerritarren %13,2 Errumaniatik, batik bat, eta Europako ekialdeko zein ohiko SESBeko beste herrialde batzuetatik datoz, %5,4 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta %3,4 ekialde urrunetik (batez ere Txinatik).

Beste multzo garrantzitsu bat portugaldarrek osatutakoa da; izan ere, EAeko atzerritarren %7,5 dira, baina gazteen %2k soilik aipatu dituzte. Gauza bera gertatzen da EBko (2004ko handitzearen aurreko) beste herrialde batzuetako etorkinekin ere, frantsesak, britainiarrak edo alemanak kasu: atzerritar guztien %7,7 diren arren, gazteen %1ek bakarrik aipatu dituzte. Kontu bitxia izaki, badirudi azken talde horiek fisikoki gure antzekoak direnez etorkin horien presentzia Saharaz hegoaldeko edota ekialde urruneko immigranteena baino gutxiago antzematen dugula (ikus 123. taula).

123. taula

ETORKINEN JATORRIARI BURUZKO PERTZEPZIOA ETA HORIEN EGIAZKO PISUA
ATZERRITARREN GUZTIZKO KOPURUAN

	«EUSKADIN BIZI DIREN ETORKIN ATZERRITARREZ ARI GARELA, ZEIN JATORRIKOAK ETORTZEN ZAIZKIZU GOGORA BAT-BATEAN?» (2008)*	MULTZO BAKOITZAREN PISUA EAE-KO ATZERRITARREN GUZTIZKOAN (2007)
Latinoamerikarrak	58	48,3
Iparafrikarrak, arabiarak, musulmanak	58	12,8
Europako ekialdekoak, errumaniarrak, ukrainarrak...	35	13,2
Saharaz hegoaldeko afrikarrak, beltzak	30	5,4
Ekialde urrunekoak: txinatarrak, japoniarrak, asiarrak	24	3,4
Portugaldarrak	2	7,5
EBko beste batzuk (EB-15)	1	7,7
Ijitoak	2	-
Beste erantzun batzuk (Espainiatik kanpokoak, EAetik kanpokoak)	1	-
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	-

* Bat-bateko erantzuna. Baturaren emaitza %100 baino gehiago da, kasu bakoitzean hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Iturria: Ikuspegi.

Aurreko urteekin alderatuta, Europako ekialdeko etorkinen presentziari buruzko gazteen pertzepzioa nabarmen igo da: 2000n gazteen %6k bakarrik aipatzen zituzten, 2004an %12k, eta orain, berriz, %35ek. Ekialde urruneko pertsonen buruzko aipamenak ere areagotu egin dira, 2000ko %17 eta 2004ko %15etik 2008ko %24ra igaroz.

2008ko urte honetan, Arabako gazteek gainerakoek baino dezente gehiago aipatu dituzte Ipar Afrikako eta herrialde musulmanetako atzerritarrak nahiz ekialdekoak. Bizkaitarrek gainerakoek baino nabarmen gehiago aipatu dituzte Afrikaz hegoaldeko afrikarrak. Europako ekialdetik datozen atzerritarrak, berriz, gipuzkoarrek bizkaitarrek baino dezente gehiago aipatu dituzte, eta azken horiek arabarrek baino gehiago (ikus 124. taula).

124. taula

ETORKINEN JATORRIARI BURUZKO PERTZEPZIOA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA

«EUSKADIN BIZI DIREN ETORKIN ATZERRITARREZ ARI GARELA, ZEIN JATORRIKOAK ETORTZEN ZAIZKIZU GOGORA BAT-BATEAN?»*				
	GUZTIRA	LURRALDEA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Latinoamerikarrak	58	58	56	60
Iparafrikarrak, arabiarak, musulmanak	58	78	54	57
Europako Ekialdekoak, errumaniarrak, ukrainarrak	35	25	34	43
Saharaz hegoaldeko afrikarrak, beltzak	30	22	38	20
Ekialde urrunekoak: txinatarak, japoniarrak, asiarrak	24	37	22	20
Portugaldarrak	2	3	1	4
EBko beste batzuk (EB-15)	1	0	1	1
Ijitoak	2	0	1	3
Beste erantzun batzuk (Espainiatik kanpokoak, EAetik kanpokoak)	1	2	0	1
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498

* Bat-bateko erantzuna. Baturaren emaitza %100 baino gehiago da, kasu bakoitzean hiru erantzun eman baitzitezkeen.

7.7.3. Immigrazioarekiko jarrera

Oro har, gazterian immigrazioari begira gehien hedatutako jarrera da lan-kontratua duten etorkinei bakarrik utzi behar zaiela sartzen. Hori da hiru gaztetik biren iritzia eta multzo guztietan gehiengoarena, atzerrian jaiotako gazteen artean izan ezik; multzo horretan, zertxobait gehiago dira etorkinak Euskadin sartzea ahalik eta gehien erraztearen aldekoak. Azken iritzi hori, gainerako multzoetan gehiengoarena izan ez arren, etorkinen sarrera debekatzearena baino hedatuagoa dago.

Beren burua ezkerrekotzat dutenek zentroko edo eskuinekotzat baino neurri handiagoan defendatzen dute etorkinei sarrera ahalik eta gehien erraztearen politika. Aldiz, langile etorkinak heltzearen aurkakoenak gazte langabeak dira (ikus 125. taula).

125. taula

IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERA JAIOLEKUAREN, NORBERAK EZKER-ESKUIN ARDATZEAN
HARTZEN DUEN LEKUAREN ETA JARDUN NAGUSIAREN ARABERA

«ATZERRIKO LANGILE ETORKINEN INGURUAN, JARRAIAN AIPATZEN DIRENETATIK ZEIN NEURRI HARTU BEHARKO LITZATEKE?»							
	GUZTIRA	JAIOLEKUA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		EAE	ESTATUKO GAINERAKO ERKIDEGOAK	ATZERRIA	EZKERREKOA	ZENTRO- ESKUINEKOA	ED/EE
Sarrera ahalik eta gehien erraztea	18	15	19	45	23	12	15
Lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztea	67	71	59	40	67	76	65
Sarrera debekatzea	6	7	13	0	4	5	9
Ed/Ee	8	8	9	15	5	7	11
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.288	83	128	662	144	694

(.../...)

(.../...)


	JARDUN NAGUSIA				
	IKASTEA	LAN EGITEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK
Sarrera ahalik eta gehien erraztea	17	19	15	20	34
Lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztea	70	66	69	60	52
Sarrera debekatzea	6	7	3	13	5
Ed/Ee	7	8	13	7	9
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	582	620	155	108	25

Denboraren joanarekin, immigrazioarekiko jarrera gero eta itxiagoa da. 2000tik 2008ra pixkanaka jaitsiz joan da etorkinei sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldeko gazteen portzentajea, eta aldi berean igo da lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztearen aldekoena edota sarrera debekatuko luketenenena (ikus 40. grafikoa).

40. grafikoa

IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAREN BILAKAERA (2000-2008) (%)

«ZEIN NEURRI HARTU BEHARKO LITZATEKE ATZERRIKO LANGILE ETORKINEN INGURUAN?»



Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

7.8. ONDORIOAK

Euskadiko gazteek sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, legezko sexu-aldaketa, eutanasia hala eskatzen duten gaixo sendaezinentzat, abortu libre eta borondatezkoa eta etxebizitza hutsen okupazioa aldeztu dituzte. Hain zuzen ere, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari, eutanasiari eta etxebizitza hutsen okupazioari dagokienez Espainiar Estatuko gazteak baino dezente aldekoago ageri dira.

Aldiz, Euskadiko gazte gehienak heriotza-zigorraren, ideia politiko eta erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen eta suizidioaren aurka ageri dira.

Bestalde, eskoletan erlijioa irakastearen inguruan iritzi kontrajarriak daude. Mezetara joaten diren katoliko gehienak alde daude, eta ateo gehienak aurka. Gainerakoek tarteko iritziak dituzte.

Gazteen iritziak, beren inguruan zenbait ohitura arriskugarri nahikoa zabaldua daude, hala nola legezko drogen kontsumoa (alkohola edota tabakoa), legez kanpokoena, elikadura desorekatua eta egoneko bizimodua. Gehiengoa dira, halaber, gazterian arazo psikologikoak (depresioa, estresa eta abar) eta babesik gabeko sexu-harremanak nahikoa hedatuta daudela uste dutenak.

Hain zuzen, hamar gaztetik lauk adierazi dute azken urtean gutxienez behin gehiegi edan dutela, eta bostetik batek legez kanpoko drogaren bat hartu duela. Bostetik batek, era berean, zirkulazio-arauren bat errespetatu gabe gidatu du azken urtean. Autoa gehien erabiltzen dutenak dira, normala denez, zirkulazio-arauak gehien urratzen dituztenak.

Gazteen ia erdiek adierazi dute haienak ez bezalako ideiak, usteak edo balioak dituzten pertsonekin neurri batean eroso ez direla sentitzen. Hala ere, hamarretik batek baino ez dio egoera horietan oso edo nahikoa deseroso sentitzen dela.

Gazterian arbuiorik handiena eragiten duten taldeak eskuin muturrekoak edo neonaziak dira. Gazteek, gehienak ez izanik ere, auzokide gisa drogazaleak eta ijitoak izatearen gaineko nolabaiteko arbuioa adierazi dute, eta hamarretik hiruk ez dituzte auzoan prostitutak edo gigoloak eta militarrek eduki nahi. Gutxien gaitzetsitako taldea homosexualena da. Militarrek eta homosexualak duela 20 urte baino dezente gutxiago arbuiatzen dira gaur egun.

Gazteen %15ek ez lukete auzokide gisa etorkin atzerritarrik izan nahi. Etorkinei buruzko jarrera duela zenbait urte baino itxiagoa da. Gaurko egunean, hamar gaztetik ia lauk uste dute Euskadin atzerritar gehiegi daudela (atzerritarren egiazko kopurua dezente igo da 2000tik hona, nahiz eta EAEko biztanleria osoaren %5era ez den iristen), eta gehien aldeztutako politika

lan-kontratua duten langile atzerritarrei bakarrik sartzen uztearena da; aldi berean, etorkinei sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldeko jarrerak behera egin du.

Oro har, etorkin atzerritarrei buruz aritzean, gazteek batik bat latinoamerikarrak eta iparrafrikar edo musulmanak dituzte gogoan. Aurreko urteekin alderatuta, Europako ekialdekoen eta ekialde urrunekoen aipamenak ugartu dira.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

8.
Euskara



8

Euskara

8.1. SARRERA

Azken urteotan, gazte elebidunen kopurua (hau da, bai euskaraz bai gaztelaniaz ongi edo oso ongi hitz egiten dutenak) goraka doa etengabe. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ondutako Euskal Herriko III. eta IV. Inkesta Soziolinguistikoen arabera³², 1991n 16 eta 24 urte arteko gazteen %25 elebidunak ziren, 1996an portzentaje hori %36ra igo zen, 2001ean jada %48koa zen eta 2006an %57,5era heldu zen. Aipatu %57,5 elebidun horiez gain, 2006an 25 urtez azpiko gazteen beste %24,9 euskara ongi edo oso ongi ulertzeko gai ziren.

Gazte elebidunen kopurua, baina, ez da bat eta bera lurralde guztietan: 2006an, Araban 16 eta 24 urte arteko gazteen %42,5 ziren elebidun, Bizkaian %49,2 eta Gipuzkoan (ezagutza hedatuen dagoen lurraldea) %78,7.

Edonola ere, elebidunen portzentajea dezente handiagoa da 25 urtera arteko gazteen artean (%57,5) 16 urte eta gehiagoko biztanleria orokorrean baino (%30,1).

Alabaina, euskararen ezagutza edo jabekuntza linguistikoa gero eta handiagoak izateak ez dirudi hizkuntza horretan trebetasun handiagorik dakarrenik euskaraz gaztelaniaz baino gehiago mintzatzeko. IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2006an, 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen erdiek baino gehixeagok diotenez, gaztelaniaz hobeto moldatzen dira (%55,7) euskaraz baino; euskaraz hobeki moldatzen direnak %21,6 dira. Agian horregatik dira 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen erdiak baino gutxiago euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago hitz egiten dutenak (%40,8); gainerakoek (%59,3) nahiago dute gaztelaniaz hitz egin.

Hortaz, ondoriozta daiteke erdia baino gutxiago direla (%43,2) euskara darabilten 16 eta 24 urte arteko gazteak, bai gaztelaniaz adina (%10,0), gehiago (%13,5) edo gutxiago (%19,7).

³² Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila: *Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta 2001. Euskararen jarraipena III* [linean], Gasteiz Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003, <http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html>. [Kontsulta: 2008ko maiatzaren 5a.] Eta *IV. inkesta soziolinguistikoa* [linean], Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008, <http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html>. [Kontsulta: 2008ko ekainaren 24a.]

Edonola ere, euskararen erabilera areagotu da 1991koarekin alderatuta, orduan %26,4 baitziren hein batean edo bestean euskaraz aritzen ziren 25 urtera arteko gazteak. Berriro ere egiaztatzen da 16 eta 24 urte bitarteko gazteek euskara gehiago darabiltela (%43,2) 15 urte eta gehiagoko biztanleria orokorrak baino (%29,6).

*Euskal nortasuna eta kultura xxi. mendearen hasieran*³³ azterlanak euskararen erabilerari buruz (kasu honetan, erabilera pasiboari buruz) emandako datuekin jarraituz, EAEko gazteen erdiek baino gehiagok (%57) gutxienez astean behin telebista euskaraz ikusten dute, herenek (%34) irratia maiztasun beraz entzuten dute eta laurdenek baino gehixeagok (%27) gutxienez astean behin egunkariak, aldizkariak edo liburuak euskaraz irakurtzen dituzte.

EAEko gazteriaren euskararen erabilera edozein delarik ere, hizkuntzarekiko jarrera positiboa da: 30 urtetik beherakoek %95ek adierazi dute seme-alabarik izanez gero haiek euskaraz mintzatzen jakitea nahiko luketela (edo jada badakite). Izan ere, euskal kulturaren bereizgarri nagusiei buruz galdetzean, gazte gehienek (%63) euskara aipatzen dute. Gainera, gazteen %22k uste dute euskaraz hitz egitea pertsona bat euskalduntzat jotzeko ezaugarri erabakigarrienetako bat dela³⁴.

Seme-alabei euskararen ezagutza helarazteko edo ahalbidetzeko nahi hori agerikoa da Eustatek 2007/2008 ikasturterako matrikulazioen inguruan bilduetako datuetan: haur-hezkuntzan, D ereduko (euskara bidezko irakaskuntza, gaztelania ikasgai bat da) matrikulazioen portzentajea guztizkoaren %69 da, eta horri B ereduko (euskara nahiz gaztelania bidezko irakaskuntza) matrikulazioak gehituz gero, euskararen bidez ikasten ari diren haurren portzentajea %94ra iristen da.

Jarraian, gazteek 2008an adierazi duten euskararen ezagutza aztertuko dugu, bai ahozko mailan nahiz irakurketan zein idazketan; era berean, gazteek esparru ezberdinetan ahoz komunikatzeko edo irakurtzeko orduan nagusiki zein hizkuntza erabiltzen duten ikusiko dugu. Bestalde, gazteek euskara sustatzeko diru publikoa baliatzeari buruz duten iritzia bilduko dugu.

³³ Askoren artean: *Euskal nortasuna eta kultura xxi. mendearen hasieran* [CD-Rom], Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006.

³⁴ Ibidem.

8.2. EUSKARAREN EZAGUTZA

EAEko hiru lurralde historikoetan eta adin guztietan, gehiengo dira euskara nahikoa ongi edo ongi ulertzen dutela dioten gazteak. Maila berean (hau da, ongi edo nahikoa ongi) hitz egiten dutenen portzentajea, berriz, pixka bat jaitsi da. Bestalde, irakurketa eta idazketa-mailak antzekoak dira.

Gipuzkoan, euskararen ezagutza-maila gainerako lurraldeetan baino dezente altuagoa da gazteen artean: hamar gaztetik zazpi diote euskara ongi ulertzen, irakurtzen eta idazten dutela; Bizkaian hamar gaztetik hiruk adierazi dute maila hori dutela, eta Araban laurdenek. Euskaraz ongi hitz egiten, irakurtzen edo idazten dutenei nahikoa ongi egiten dutenak gehituz gero, ohartzen gara Araba eta Bizkaiko gazteen ia erdiak euskaraz trabagabe komunikatzeko gai direla.

Adinean behera egin ahala, euskarazko hizkuntza-gaitasunak gora egiten du trebetasun guztietan (ulermena eta ahozko adierazmena, irakurmena eta idazmena) —ikus 126. taula—.

126. taula

EUSKARAREN EZAGUTZA ADINAREN ETA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA

«ZEIN DA ZURE EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA?»							
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ulertzen duzu...							
Batere ez	11	6	10	17	20	14	3
Hitz batzuk bakarrik	7	5	6	11	7	9	4
Zertxobait	19	15	20	21	22	24	9
Nahikoa ongi	19	23	19	15	27	21	10
Ongi	44	51	46	35	24	31	73
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
Ongi edo nahikoa ongi ulertzen dute	63	74	65	50	51	52	83

(.../...)

(.../...)

Hitz egiten duzu...							
Batere ez	15	9	14	22	24	20	4
Hitz batzuk bakarrik	8	7	8	10	10	10	5
Zertxobait	20	15	20	22	22	24	11
Nahikoa ongi	15	20	14	13	22	17	10
Ongi	41	48	44	32	22	30	70
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
Ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dute	56	68	58	45	44	47	80
Irakurtzen duzu...							
Batere ez	17	11	14	25	25	21	5
Hitz batzuk bakarrik	7	3	7	10	7	8	4
Zertxobait	18	14	18	20	20	21	10
Nahikoa ongi	16	22	16	12	24	18	9
Ongi	43	50	45	34	24	31	70
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
Ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dute	59	72	61	46	48	49	79
Idazten duzu...							
Batere ez	17	11	15	26	28	21	6
Hitz batzuk bakarrik	7	3	8	9	7	9	4
Zertxobait	18	15	18	20	20	22	9
Nahikoa ongi	16	22	15	12	24	17	10
Ongi	42	49	44	33	22	31	70
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
Ongi edo nahikoa ongi idazten dute	58	71	59	45	46	48	80
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	402	600	498

Adinean behera egin ahala euskararen ezagutzak gora egiteak lotura estua du D ereduaren (euskara bidezko irakaskuntza, gaztelania ikasgai bat da) matrikulazioak etengabe igotzearekin, nagusiki A ereduaren (gaztelania bidezko irakaskuntza, euskara ikasgai bat da) kaltetan; B ereduaren (euskara nahiz gaztelania bidezko irakaskuntza) matrikulazioak bere horretan dirau. Horren erakusgarri garbia da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako datuak biltzen dituen ondoko taula, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2002/2003 eta 2007/2008 ikasturteetako A eta D ereduak matrikulazioak jasotzen dituen (ikus 127. taula).

127. taula

A ETA D EREDUETAKO MATRIKULAZIOEN BILAKAERA (2002/2003-2007/2008) (%)

MATRIKULAZIOEN PORTZENTAJEA A ETA D EREDUETAN	HAUR HEZKUNTZA		LEHEN HEZKUNTZA		DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	
	A EREDUA	D EREDUA	A EREDUA	D EREDUA	A EREDUA	D EREDUA
2002/2003 ikasturtea	9,26	61,48	17,43	51,93	32,26	42,48
2003/2004 ikasturtea	8,31	62,43	15,25	53,88	30,55	44,50
2004/2005 ikasturtea	6,91	63,86	13,45	55,17	28,81	46,77
2005/2006 ikasturtea	6,47	65,68	12,01	56,51	26,39	48,53
2006/2007 ikasturtea	5,92	67,52	10,89	57,60	23,93	50,38
2007/2008 ikasturtea	5,49	69,02	9,85	58,89	21,48	51,54


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hezkuntza Sistemari buruzko estatistikak.

Bestalde, atzerrian jaiotako gazte gehienek euskararik batere ez dakite. EAEn jaiotakoan artean, %10 inguruk euskaraz hitz egin, irakurri edo idazteko inolako ezagutzarik ez dute, baina ia erdiek ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten dute. Euskararen ezagutza handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenen artean gainerakoan artean baino.

Oro har, 2000tik 2008ra gazteen hizkuntza-trebetasunek pixkanaka hobera egin dute (hazkunderik handiena 2000tik 2004ra gertatu bazen ere). Orain handiagoa da euskara ongi edo nahikoa ongi ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gai diren gazteen portzentajea (ikus 41. grafikoa).

41. grafikoa

EUSKARAREN EZAGUTZAREN BILAKAERA (2000-2008) (%)



Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

Trebeziak gehien hobetu dituztenak gazteenak (15-19 urte) izan dira; izan ere, 25 urtetik gorakoek artean 2004tik 2008ra pixka bat okerrera egin dute.

Bestalde, hazkundera bereziki nabarmena da Araban, non azken zortzi urteotan euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gai diren gazteen portzentajea ia bikoiztu egin baita (ikus 128. taula).

128. taula

EUSKARAREN EZAGUTZAREN BILAKAERA ADINAREN ETA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA (2000-2008)

HIZKUNTZA-TREBETASUNAK EUSKARAZ	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19	20-24	25-29	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Nahikoa ongi edo ongi ulertzen duzu							
2000	59	69	60	50	42	51	79
2004	62	70	61	55	43	53	84
2008	63	74	65	50	51	52	83
Nahikoa ongi edo ongi hitz egiten duzu							
2000	48	59	49	40	24	43	69
2004	56	66	56	47	37	48	77
2008	56	68	58	45	44	47	80
Nahikoa ongi edo ongi irakurtzen duzu							
2000	55	66	56	44	36	49	74
2004	58	68	57	51	41	50	78
2008	59	72	61	46	48	49	79
Nahikoa ongi edo ongi idazten duzu							
2000	52	63	53	42	31	37	70
2004	57	67	56	48	40	48	77
2008	58	71	59	45	46	48	80
2000KO MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	371	510	483	199	740	425
2004KO MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	412	588	500	402	600	498
2008KO MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	420	580	500	402	600	498

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

8.3. EUSKARAREN ERABILERA

Gazteen euskararen ezagutzak gora egin duela egiaztatu ondoren, erabileran jarriko dugu arreta orain: zenbateraino erabiltzen dute euskara gazteek, gaztelaniarekin alderatuta?

EAEko gazteen %11k adierazi dute etxean erabat edo ia erabat euskaraz aritzen direla. Gainera, %2k diote euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutela, eta beste %8k bi hizkuntzetan berdin. Beraz, bost gaztetik batek euskara maiz erabiltzen du etxean, gaztelaniari adina garrantzi edo handiagoa emanez.

Bestalde, Euskadiko gazteen %9k adierazi dute lagunekin batez ere euskara erabiltzen dutela, %3k euskara gaztelania baino gehiago eta %13k bai euskara bai gaztelania. Esan liteke, hortaz, EAEko lau gaztetik batek euskara gaztelania bezainbat edo gehiago baliatzen duela lagunekiko harremanetarako.

Datu hauekin agerian geratzen dira euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldeak: gazteriaren %56k euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten duela adierazi arren, etxean %21ek eta lagunekin %25ek bakarrik erabiltzen dute gaztelania adina edo gehiago.

Euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenen artean, hala etxean nola lagunekin erdiek baino gutxiagok erabiltzen dute gaztelania adina edo gehiago.

Dena den, esan beharra dago euskaldun guztiek ez dutela familiarte euskaldunik edo haien lagun guztiek ez dutela euskararen antzeko ezagutzarik, eta horrek ingurune horietan euskara normaltasunez erabiltzea eragozten edo zailtzen du (ikus 129. taula).

Euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik erreparatuz, beste aldagai batzuen eragina berdintze aldera, esaterako lurraldearena (agerian geratu da Gipuzkoan ezagutza-maila handiagoa dela), jarraian multzo ezberdinetan euskararen erabileran dauden aldeak aztertuko ditugu.

129. taula
EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN ETA LAGUNEKIN

«NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN? ETA ZURE LAGUNEKIN?»*				
	ETXEAN		LAGUNEKIN	
	GAZTEAK GUZTIRA	EUSKARAZ ONGI EDO NAHIKOA ONGI HITZ EGITEN DUTEN GAZTEAK GUZTIRA	GAZTEAK GUZTIRA	EUSKARAZ ONGI EDO NAHIKOA ONGI HITZ EGITEN DUTEN GAZTEAK GUZTIRA
(Ia) guztia euskaraz	11	19	9	17
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	4	3	6
Bi hizkuntzetan berdín	8	14	13	22
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	9	15	11	19
(Ia) guztia gaztelaniaz	27	47	19	34
Ed/Ee	1	1	1	1
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten)	43	-	43	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	851	1.500	851

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Kontuan izanik galdetutako guztiek euskaraz zekitela adierazi zutela, nabarmena da EAEko lurraldeen artean erabileran dagoen aldea: bai etxean bai lagunartean, gazte gipuzkoarrek dezente gehiago erabiltzen dute euskara, arabar edo bizkaitarrek baino. Beste behin gogora dezagun Gipuzkoan ezagutza handiagoa izateak —baita 30 urtetik gorakoan artean ere³⁵— ingurune euskaldunetan hizkuntza erabili ahal izatea errazten duela.

Neskek mutilek baino gehixeago erabiltzen dute euskara beren eguneroko harremanetan. Bestalde, adinaren arabera ez da alderik antzeman, bai ordea ikasketa-mailaren arabera (goi-

³⁵ *IV. inkesta soziolinguistikoa 2006* [linean] azterlanaren datuen arabera, Gipuzkoan 16 urteko eta hortik gorako biztanleen %49,1 elebidunak dira, Bizkaian elebidunen portzentajea %23,0ra jaisten da, eta Araban areago, %14,2ra. <http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html>. [Kontsulta: 2008ko ekainaren 24a.]

mailako ikasketak dituztenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak) eta, batez ere, identitate-sentimenduaren arabera. Batez ere euskal herritar sentitzen direnen artean, euskararen erabilera sentimendu hori ez dutenen artean baino dezente hedatuagoa dago, eta gainera ohikoagoa da lagunartean etxean baino (agian aurrez aipatu zailtasunengatik; izan ere, etxeke giroa neurri handi batean aurrez emana dator, eta lagunak oster, horiek euskaldunak izan ala ez, batik bat norberak hautatzen ditu) —ikus 130. eta 131. taulak—.

130. taula

EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN SEXUAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN,
IKASKETA-MAILAREN ETA BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEAREN ARABERA

«NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN?»*							
	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE EUSKALDUNAK GUZTIRA	SEXUA		LURRALDEA		
			GIZONA	EMAKUMEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
(Ia) guztia euskaraz	11	19	17	21	4	12	29
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	4	3	5	2	3	5
Bi hizkuntzetan berdin	8	14	14	13	2	14	16
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	9	15	16	14	23	11	17
(Ia) guztia gaztelaniaz	27	47	48	46	69	58	31
Ed/Ee	1	1	2	1	0	2	1
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten)	43	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	851	420	431	175	280	396

(.../...)

(.../...)

	IKASKETA-MAILA				BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA	
	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILERRA/ IEE/BBB/UBI	GOI- MAILAKOAK	BAI	EZ
(Ia) guztia euskaraz	16	17	16	26	24	5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	3	3	6	4	3
Bi hizkuntzetan berdin	15	13	15	12	16	7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	13	12	19	15	15	15
(Ia) guztia gaztelaniaz	51	53	45	40	38	70
Ed/Ee	2	1	2	1	2	1
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten)	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	242	181	233	191	610	241

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

131. taula

EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN SEXUAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN, IKASKETA-MAILAREN ETA BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEAREN ARABERA

«NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU LAGUNEKIN?»*							
	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE EUSKALDUNAK GUZTIRA	SEXUA		LURRALDEA		
			GIZONA	EMAKUMEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
(Ia) guztia euskaraz	9	17	14	19	2	9	28
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	6	6	7	1	5	8
Bi hizkuntzetan berdin	13	22	23	22	15	20	27
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	11	19	21	18	30	19	18
(Ia) guztia gaztelaniaz	19	34	35	33	51	46	18
Ed/Ee	1	1	1	1	0	2	1
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten)	43	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	851	420	431	175	280	396

(.../...)

(.../...)

	IKASKETA-MAILA				BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA	
	LEHEN MAILAKOAK	LH	BATXILER/ IEE/BBB/UBI	GOI- MAILAKOAK	BAI	EZ
(Ia) guztia euskaraz	15	19	16	19	22	3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	5	6	6	7	7	3
Bi hizkuntzetan berdin	23	22	17	29	25	17
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18	17	23	19	18	22
(Ia) guztia gaztelaniaz	37	36	37	25	26	54
Ed/Ee	1	1	2	1	1	1
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten)	-	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	242	181	233	191	610	241

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Euskararen ahozko erabileraren bilakaerari dagokionez, 2004tik 2008ra EAEn pixka bat jaitsi da etxean euskarari lehentasuna ematen dioten gazteen portzentajea (alegia, guztia edo ia guztia euskaraz hitz egiten dutenena, edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago), eta aldi berean bi hizkuntzetan maiztasun berberaz hitz egiten dutenen kopurua igo da. Analisi hori lurraldeetara ekarrita, Bizkaian eta Gipuzkoan aipatu joera egiaztatu da, baina Araban hazi egin da etxeko harremanetan gaztelaniari lehentasuna ematen diotenen portzentajea.

Lagunartean ere pixka bat jaitsi da nagusiki euskaraz hitz egiteko joera. Beherakada hori batez ere Bizkaian gertatu da, non lagunarteko harremanetan gaztelaniari lehentasuna ematen diotenen kopurua areagotu egin baita (ikus 132. taula).

132. taula

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA ETXEAN ETA LAGUNEKIN NORBERA
BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA (2004-2008)

«NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN? ETA ZURE LAGUNEKIN?»*				
	ETXEAN		LAGUNEKIN	
	2004	2008	2004	2008
EAE				
Batez ere euskaraz	27	23	27	23
Bi hizkuntzetan berdin	10	14	22	22
Batez ere gaztelaniaz	63	62	51	53
Ed/Ee	0	1	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	819	851	819	851
Araba				
Batez ere euskaraz	7	6	4	3
Bi hizkuntzetan berdin	5	2	16	15
Batez ere gaztelaniaz	87	92	79	81
Ed/Ee	0	0	0	0
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	149	175	149	175
Bizkaia				
Batez ere euskaraz	19	15	21	14
Bi hizkuntzetan berdin	11	14	24	20
Batez ere gaztelaniaz	70	69	57	65
Ed/Ee	0	2	0	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	285	280	285	280

(…/…)

(.../...)

Gipuzkoa				
Batez ere euskaraz	39	34	38	36
Bi hizkuntzetan berdin	11	16	21	27
Batez ere gaztelaniaz	50	48	40	36
Ed/Ee	0	1	0	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	385	396	385	396

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie. Erantzuteko aukerak jartzean, ulertzen da nagusiki euskaraz hitz egiten dutela guztia edo ia guztia euskaraz hitz egiten dutenek edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutenek, eta nagusiki gaztelaniaz hitz egiten dutela guztia edo ia guztia gaztelaniaz hitz egiten dutenek edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago hitz egiten dutenek.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

Bestalde, gogora dezagun gazteen erdiek baino gehixeagok (%59) diotela euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutela. Gaitasun hori kontuan izanda, zein neurritan irakurtzen dute gazteek euskaraz eta gaztelaniaz?

Euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutela dioten gazteen %11k gehienbat euskaraz irakurtzen dute, hau da, guztia edo ia guztia euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago. Gazteok EAEko gazteen guztizkoaren %6 dira.

Euskaraz ongi irakurtzeko gai diren gazteen %32k hein berean irakurtzen dute euskaraz eta gaztelaniaz, baina gehienek (%56) batez ere gaztelaniaz irakurtzen dutela adierazi dute, eta bostetik batek (%22) guztia edo ia guztia gaztelaniaz irakurtzen dutela.

Beraz, euskaraz behar adinako ezagutza edo hizkuntza-gaitasuna izan arren, gazte euskaldun gehienek gehienbat gaztelaniaz irakurtzen dute.

Beste behin, euskaraz gehien irakurtzen dutenak gipuzkoarrak, gazteenak (15-19 urte) eta batez ere espainiar baino euskal herritar sentitzen direnak dira (ikus 133. taula).

133. taula

EUSKARAZ IRAKURTZEA ADINAREN, NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ETA BATEZ
ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEAREN ARABERA

«IRAKURTZEKO ERRAZEN ERABILTZEN DUZUN HIZKUNTZA BATA EDO BESTEA IZAN, ZEIN PROPORTZIOTAN IRAKURTZEN DUZU EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, GUTXI GORABEHERA?»*					
	GAZTEAK GUZTIRA	EUSKARAZ ONGI IRAKURTZEN DUTEN GAZTEAK GUZTIRA	ADIN-TALDEAK		
			15-19	20-24	25-29
(Ia) guztia euskaraz	2	4	4	4	3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	4	7	12	5	5
Bi hizkuntzetan berdin	19	32	28	34	33
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	20	34	35	33	34
(Ia) guztia gaztelaniaz	13	22	19	23	23
Ed/Ee	1	2	2	1	2
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen)	41	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	885	297	353	235

(.../...)

(.../...)

	LURRALDEA			BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA	
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BAI	EZ
(Ia) guztia euskaraz	0	2	6	4	1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	4	6	10	9	2
Bi hizkuntzetan berdin	23	27	38	34	25
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	41	36	31	32	40
(Ia) guztia gaztelaniaz	31	27	14	19	29
Ed/Ee	0	2	1	1	2
Gainerakoak (ez dakite euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen)	-	-	-	-	-
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	191	296	398	624	261

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Lau urtetik honako bilakaerari erreparatuz, EAEn euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutelarik bi hizkuntzetan hein berean irakurtzen duten gazteen kopurua igo dela egiaztatu da; hala ere, lurraldeka alde nabarmenak antzeman dira: Araban eta Bizkaian jaitsi egin da gehienbat euskaraz irakurtzen dutenen kopurua, eta gaztelaniaz egiten dutenena igo; Gipuzkoan, berriz, gehienbat euskaraz irakurtzen dutenen portzentajeak bere horretan dirau, baina gehienbat gaztelaniaz egiten dutenena jaitsi da (oraindik ere talde ugariena izan arren) eta euskaraz eta gaztelaniaz hein berean irakurtzen dutenena igo (ikus 134. taula).

134. taula

EUSKARAZKO IRAKURKETAREN BILAKAERA NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA (2004-2008)

«IRAKURTZEKO ERRAZEN ERABILTZEN DUZUN HIZKUNTZA BATA EDO BESTEA IZAN, ZEIN PROPORZIOZAN IRAKURTZEN DUZU EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, GUTXI GORABEHERA?»*		
	2004	2008
EAE		
Batez ere euskaraz	13	11
Bi hizkuntzetan berdin	25	32
Batez ere gaztelaniaz	60	56
Ed/Ee	2	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	859	885
Araba		
Batez ere euskaraz	9	4
Bi hizkuntzetan berdin	26	23
Batez ere gaztelaniaz	64	72
Ed/Ee	2	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	168	191
Bizkaia		
Batez ere euskaraz	12	8
Bi hizkuntzetan berdin	28	27
Batez ere gaztelaniaz	58	63
Ed/Ee	3	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	303	296

(…/…)

(.../...)

Gipuzkoa		
Batez ere euskaraz	16	16
Bi hizkuntzetan berdin	20	38
Batez ere gaztelaniaz	62	45
Ed/Ee	2	1
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	388	398

* Galdera hau euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutela diotenei bakarrik egin zaie. Erantzuteko aukerak ezartzean, ulertzen da nagusiki euskaraz irakurtzen dutela guztia edo ia guztia euskaraz irakurtzen dutenek edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen dutenek, eta nagusiki gaztelaniaz irakurtzen dutela guztia edo ia guztia gaztelaniaz irakurtzen dutenek edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dutenek.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

8.4. EUSKARAREN SUSTAPENAREN BALORAZIOA

Euskararen sustapen publikoari dagokionez, EAeko gazteen ia erdiek (%47) Euskadiko herri-administrazioek euskararen sustapenean orain baino diru gehiago gastatzea nahi dute. %39k uste dute orain adina gastatu beharko luketela, eta %6k gutxiago.

Gutxiago gastatu beharko luketela irizten diotenak ez dira ezein multzotan %10era heltzen. Bestalde, euskararen sustapenean orain baino diru gehiago gastatu beharko litzatekeela uste dutenak gehiago dira Gipuzkoan Bizkaian baino, eta Bizkaian Araban baino. Batez ere euskal herritar sentitzen direnek bestela sentitzen direnek baino neurri handiagoan aldeztu dute euskararen sustapenerako gastua handitzeko premia. Euskaraz ahoz komunikatzeko gaitasuna (hitz egiteko ezagutza) areagotu ahala, nabarmen igotzen da hizkuntzaren sustapenerako diru publiko gehiago erabiliko luketenen portzentajea. Bestalde, goi-mailako ikasketak egin dituztenak sustapenera diru gehiago bideratzearen aldekoagoak dira, maila apalagoko ikasketak egin dituztenak baino (ikus 135. taula).

Duela lau eta zortzi urtetik hona, euskararen sustapenean diru gehiago erabili beharko litzatekeela uste duten gazteen portzentajea pixka bat jaitsi da. Beherakada hori batik bat Araban gertatu da: lurralde horretan, 2004an %50 ziren euskal administrazioek euskara sustatzeko diru gehiago jarri beharko luketela uste zuten gazteak, eta 2008an %37 dira; diru bera gastatu beharko litzatekeela diotenen portzentajea, berriz, igo egin da. Bizkaian ere pixka bat jaitsi da gastu publiko areagotuko luketenen portzentajea, baina ez Araban bezainbeste (ikus 136. taula).

135. taula

EUSKARAREN SUSTAPENEAN GASTATU BEHARREKO DIRUAREN BALORAZIOA
NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN, BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEAREN
ETA EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILAREN ARABERA

«ZURE USTEZ, EUSKAL ADMINISTRAZIOEK ZENBAT DIRU GASTATU BEHARKO LUKETE EUSKARARENTZAT:
ORAIN BAINO GEHIAGO, ORAIN BESTE, ALA ORAIN BAINO GUTXIAGO?»

	GUZTIRA	LURRALDEA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Orain baino gehiago	47	37	44	56
Orain beste	39	45	41	33
Orain baino gutxiago	6	7	6	4
Ed/Ee	8	10	9	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498

(…/…)

(…/…)

	BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA		EUSKARAREN EZAGUTZA		
	BAI	EZ	BATERE EZ + HITZ BATZUK BAKARRIK	ZERTXOBAIT	NAHIKOA ONGI + ONGI
Orain baino gehiago	59	32	27	40	58
Orain beste	35	44	46	43	35
Orain baino gutxiago	2	10	10	10	2
Ed/Ee	4	13	17	8	5
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	829	671	361	288	851

136. taula

EUSKARA SUSTATZEKO GASTUAREN BALORAZIOAREN BILAKAERA,
NORBERA BIZI DEN LURRALDEAREN ARABERA (2000-2008)

«ZURE USTEZ, EUSKAL ADMINISTRAZIOEK ZENBAT DIRU GASTATU BEHARKO LUKETE EUSKARARENTZAT: ORAIN BAINO GEHIAGO, ORAIN BESTE, ALA ORAIN BAINO GUTXIAGO?»				
	GUZTIRA	LURRALDEA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2000				
Orain baino gehiago	50	47	49	54
Orain beste	35	39	38	28
Orain baino gutxiago	5	7	4	4
Ed/Ee	11	8	9	14
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	199	740	425
2004				
Orain baino gehiago	51	50	49	56
Orain beste	34	36	35	31
Orain baino gutxiago	4	5	6	2
Ed/Ee	10	9	10	11
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498
2008				
Orain baino gehiago	47	37	44	56
Orain beste	39	45	41	33
Orain baino gutxiago	6	7	6	4
Ed/Ee	8	10	9	7
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	402	600	498

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

8.5. ONDORIOAK

EAEko gazteen erdiek baino gehiagok duten euskararen ezagutza ahoz nahiz idatziz trabagabe komunikatu ahal izateko adinakoa da. Hizkuntza-gaitasun hori dezente handiagoa da Gipuzkoan gainerako lurraldeetan baino, eta adinak behera egin ahala areagotu egiten da.

Aurreko urteekin alderatuta, trebetasunak hobetu direla antzeman da, batik bat Arabako Lurralde Historikoan.

Euskararen ezagutzan ageriko hazkundera eman den arren, eguneroko erabileran gaztelaniaren nagusitasuna garbia da oraindik: euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutenen erdiek baino gehiagok batez ere gaztelania erabiltzen dute etxean eta lagunartean; era berean, euskaraz ongi edo nahikoa irakurtzeko gai direnen erdiek baino gehiagok batez ere gaztelaniaz irakurtzen dute.

Gaztelaniak eguneroko bizitzan duen nagusitasun hori nabarmenagoa da Araban gainerako lurraldeetan baino. Gipuzkoan, berriz, gazteek bi hizkuntzak oreka handiagoz erabiltzen dituzte.

Edonola ere, gazteak euskal administrazioek euskara sustatzeko diru gehiago, edo gutxienik kopuru bera, jartzearen alde ageri dira.



KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

9. Sexualitatea

9

Sexualitatea

9.1. SARRERA

Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) esanetan, «sexualitatea gizakiaren funtsezko alderdi bat da, bizitza osoan zehar hor dagoena. Sexua, generoko identitateak eta rolak, erotismoa, gozamena, intimitatea, ugalketa eta sexu-joera barne hartzen ditu. Pentsamenduen, fantasien, grinen, sinesmenen, jarrerren, balioen, jokabideen, jardueren, rolen eta pertsonen arteko harremanen bidez bizitzen eta adierazten da. Sexualitateak dimentsio horiek guztiak izan ditzake bere baitan, baina guztiak ez dira beti bizitzen edo adierazten. Sexualitatean faktore biologiko, psikologiko, sozial, ekonomiko, politiko, kultural, etiko, legal, historiko, erlijioso eta espiritualen elkarrekintzak eragiten du»³⁶.

Giza bizitzaren oinarritzko alderdia den heinean, sexualitatea bizialdi guztietan presente dago, baina nerabezaroan eta gaztaroan akaso gehiago nabarmentzen da, pertsonak bai fisikoki bai psikologikoki zein psikikoki bizi duten sexu-garapena dela medio. Aldi horretan, neurri handi batean sexualitatea eta hura bizitzeko modu ezberdinak deskubritzen dira.

Hori dela-eta, jarraian sexualitateari lotutako hainbat alderdi jorratuko ditugu, hala nola gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia, gazteek sexua zerekin lotzen duten eta guraso, irakasle edo lagunekin zein neurritan hitz egiten duten sexuarekin zerikusia duten gaiei buruz.

9.2. SEXUALITATEAREN GARRANTZIA

EAEko gazte gehien-gehienek garrantzi handia ematen diote sexualitateari: %30ek diote haientzat oso garrantzitsua dela, eta %56k nahikoa garrantzitsua dela irizten diote. Gazteen %12rentzat, aldiz, garrantzi gutxikoa edo garrantzirik gabea da.

³⁶ Osasunaren Munduko Erakundea (OME): *Defining Sexual Health: A Report of a Technical Consultation on Sexual Health*, Geneva: OME.

Mutilek neskek baino garrantzi handiagoa atxikitzen diote. Bikotekidearekin (ezkonduta ala ez) bizi direnek hala bizi ez direnek baino neurri handiagoan jotzen dute sexualitatea oso garrantzitsutzat. Sexualitateari ematen zaion garrantzia handiagoa da, halaber, adinean gora egin ahala (ikus 137. taula).

137. taula

SEXUALITATEARI EMANDAKO GARRANTZIA SEXUAREN, ADINAREN ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA

«GAUR EGUN ZURETZAT SEXUALITATEA...								
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			EGOERA ZIBILA	
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29	EZKONGABEA	EZKONDUA EDO BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN
Oso garrantzitsua da»	30	34	26	21	32	35	28	40
Nahikoa garrantzitsua da»	56	55	57	57	55	55	56	52
Garrantzi txikikoa da»	10	9	12	16	9	7	11	4
Garrantzi gabekoa da»	2	1	3	4	1	1	2	2
Ed/Ee	3	2	3	2	4	1	3	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500	1.290	206

Aldeak handiak ez badira ere, gazteek sexualitateari emandako garrantziaren inguruan etengabeko hazkundera nabari da: 2000n %24k jotzen zuten oso garrantzitsutzat, 2004an %28k eta 2008an %30ek (ikus 138. taula).

138. taula

SEXUALITATEARI EMANDAKO GARRANTZIAREN BILAKAERA (2000-2008)


«GAUR EGUN ZURETZAT SEXUALITATEA...			
	2000	2004	2008
Oso garrantzitsua da»	24	28	30
Nahikoa garrantzitsua da»	57	57	56
Garrantzi txikikoa da»	14	13	10
Garrantzi gabekoa da»	3	1	2
Ed/Ee	2	2	3
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004.

Nolanahi ere, EAEko gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia Estatuko gazteek ematen diotena baino apalagoa da: EAEn %30ek jo dute oso garrantzitsutzat, eta Estatuan %42k (ikus 42. grafikoa).

42. grafikoa

EAE-KO ETA ESPAINIAR ESTATUKO GAZTERIAK SEXUALITATEARI EMANDAKO GARRANTZIA (%)



* Datuak hamartarrak kenduta biribildu dira.

Iturria: INJUVE (2007): *Cifras jóvenes - Sondeo de opinión*, EJ123 azterlana «Valores y actitudes. Participación asociativa».

9.3. SEXUALITATEA ZEREKIN IDENTIFIKATZEN DUTEN

Gazteei «sexu» hitza entzuten dutenean zertan pentsatzen duten galdetzean, atentzioa ematen duen lehenengo gauza jasotako erantzunen eskasia da, ia erdiek (%47) ez baitute inolako erantzunik eman.

Bat-batean emandako erantzunen artean, bikotekidearen aipamenak nabarmentzen dira: gizona/emakumea, mutil-laguna/neska-laguna, mutila/neska, harremana, ezkontza eta abar. Horiek gazteen %27k aipatu dituzte.

Gehien emandako hurrengo erantzuna, gazteen %20k emana, desioarekin zerikusia duena da (erakarmena, grina, gozamena, morboa...). Zertxobait gutxiago (%18) aipatu dituzte maitasuna, txera, samurtasuna, afektua... %15ek dibertsioa (festa, ondo pasatzea, gozatzea, alaitasuna, «guai»...) nabarmendu dute, eta %14k gaixotasunak edo nahi gabeko haurduntzak saihesteko neurriak (antisorgailuak, kondoia, hiesa...).

%10ek baino gutxiagok aipatu dute sexu-harremana (amodioa egitea, koittoa, orgasmoa, masturbazioa..., gazteen %9k aipatu dituzte), sexua naturala den zerbait dela (natura, normala, beharrezkoa, askatasuna...), %6k aipatua edo osasungarria dela (ona, osasuntsua, polita, atsegina, edertasuna, zoriona...), %4k aipatua. Beste zenbaitzuk (%3) komunikazioarekin lotzen dute (adiskidetasuna, lagunartea, bizikidetzeta, intimitatea...). Beste %3k, berriz, une edo leku jakin batzuekin (larunbat gaua, asteburua, hondartza...). %2k ugalketa dute gogoan (seme-alabak, haurduntza...), %1ek gorputz-atal zehatzak (titiak, zakila, bagina...), beste %1ek eskasia (sexu gutxi), beste %1ek alderdi negatiboak (zikina...), eta %1era ez dira iristen ligatu edo neskatan zein mutiletan egitea bezalako hitzak aipatu dituztenak. Azkenik, %4k orain arte aipatutakoen artean sailkaezinak diren beste zenbait hitz aipatu dituzte.

Nabarmendu beharra dago honakoak bat-bateko aipamenak direla, hau da, elkarriketageleek ez dutela inolako erantzunik iradoki.

Aurrez aipatu alderdiak gehiago edo gutxiago aipatzeko orduan, alderik handienak sexuaren eta adinaren arabekoak dira.

Mutilek neskek baino gehiago aipatzen dituzte bikotea eta sexu-harremana (era batera edo bestera, hitz batzuekin zein besteekin); neskek, berriz, mutilek baino neurri handiagoan aipatu dituzte maitasuna eta neurriak hartzea (baita ugalketarekin zerikusia duten hitzak ere).

20 eta 24 urte arteko gazteen multzoa da bikotea eta dibertsioa gehien eta maitasuna gutxien aipatzen dituen. Horiek, adinez nagusienak direnekin batera, oraindik 20 urte bete ez dituztenek baino gehiago aipatzen dute desioa. Gainera, gazteenekin batera neurriak hartzea eta hiesa ere 24 urtetik gorakoek baino gehiago aipatzen dituzte. Adinean behera egin ahala, gero

eta gehiago dira bat-batean sexu-harremana aipatzen dutenak, eta gutxiago osasungarria dela diotenak (ikus 139. taula).

139. taula

SEXUALITATEA ZEREKIN IDENTIFIKATZEN DEN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

«SEXU HITZA AIPATZEN BADIZUT, ZEINTZUK DIRA BURURA DATOZKIZUN LEHENENGO BI HITZ, ADJEKTIBO EDO ESAERAK?»*						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Bikotea	27	32	23	25	30	27
Desioa	20	19	21	16	21	22
Maitasuna	18	15	21	20	15	20
Dibertsioa	15	16	14	12	18	14
Ardura	14	10	17	15	17	10
Sexu-harremana	9	11	6	11	9	7
Naturala	6	5	7	4	6	6
Osasuntsua	4	4	4	2	4	5
Komunikazioa	3	3	4	3	3	3
Une edo leku zehatzak	3	3	3	3	3	3
Ugalketa	2	1	3	2	1	3
Gorputz-atalak	1	2	0	1	1	1
Eskasia	1	1	0	1	0	1
Kontzeptu negatiboa (zikina...)	1	1	1	1	1	2
Ligatzea, neskatan/mutiletan egitea	0	0	0	0	0	0
Beste batzuk	4	4	3	3	3	4
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

* Bat-bateko erantzunak. Baturaren emaitza %100 baino gehiago da, bi erantzun eman baitzitezkeen.

Gazteei sexuaz hitz egiten entzutean burura datorkienari buruzko erantzunek azken urteotan izan duten bilakaerari erreparatuz gero, antzeman daiteke dibertsioaren eta desioaren inguruko aipamenak ugartu egin direla eta neurriak hartzearekin edo sexuaren bidez kutsa daitezkeen hiesa bezalako gaixotasunekin zerikusia duten aipamenak, berriz, urritu; azken horiek, hain zuzen ere, aipamenean zerrendan bigarren postutik bosgarrenera jaitsi dira 2000tik 2008ra. Dena den, oraindik ere bikotearen inguruko aipamenak dira ugariak (ikus 140. taula).

140. taula

SEXUALITATEA ZEREKIN IDENTIFIKATZEN DEN, BILAKAERA (2000-2008)

«SEXU HITZA AIPATZEN BADIZUT, ZEINTZUK DIRA BURURA DATOZKIZUN LEHENENGO BI HITZ, ADJEKTIBO EDO ESAERAK?»*			
	2000	2004	2008
Bikotea	28	28	27
Desioa	11	16	20
Maitasuna	18	17	18
Dibertsioa	7	11	15
Ardura	19	17	14
Sexu-harremana	9	12	9
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.364	1.500	1.500

* Hiru neurketetan gehien aipatutako kontzeptuei buruzko datuak bakarrik alderatu dira.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*.

9.4. SEXUALITATEARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA FAMILIAN, LAGUNARTEAN ETA IRAKASLEEKIN

Gazte gehienek sexuaren inguruko auziei buruz (guztiei buruz ez bada, batzuei buruz behintzat bai) hitz egin dute bai gurasoekin bai irakasleekin eta, batez ere, lagunekin.

Sexuaren inguruko gaiak lagunartean ateratzen dira bereziki: gazteen %91k antisorgailuei buruz hitz egin dute lagunekin, %90ek maitasun-sentimenduei buruz, %87k sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunei buruz, %83k amodioa egiteko moduei buruz eta %80k umeak sortzeko

moduari buruz. Kontu horiek guztiak gehiago aipatzen dira lagunekin guraso eta irakasleekin baino.

Gaske gehienek gurasoekin ere hitz egin dute antisorgailuei buruz (%63), sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunei buruz (%62), umeak sortzeko moduari buruz (%57) eta baita maitasun-sentimenduei buruz ere (%52). Ordea, gutxiengoa dira (%18) amodioa egiteko moduei buruz gurasoekin hitz egiten dutenak.

Irakasle eta begiraleekin gurasoekin baino gehixeago hitz egiten da antisorgailuei buruz (%67), sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunei buruz (%71), umeak sortzeko moduari buruz (%64) eta amodioa egiteko moduei buruz (%28); azken kasu horretan, hala ere, gutxiengoa dira irakasleekin gai horretaz mintzatzen direnak. Maitasun-sentimenduak, aldiz, gehiago partekatzen dira gurasoekin (%52) irakasle eta begiraleekin baino (%24) —ikus 141. taula—.

141. taula

SEXUALITATEARI BURUZ HITZ EGITEA

«ESADAZU MESEDEZ ONDOKO GAIEI BURUZ HITZ EGITEN DUZUN EDO INOIZ HITZ EGIN DUZUN ZURE GURASOekin, LAGUNEkin EDO IRAKASLEekin»*			
	GURASOekin	LAGUNEkin	IRAKASLE/ BEGIRALEekin
Antisorgailuez	63	91	67
Amodioa egiteko moduz	18	83	28
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	62	87	71
Umeak sortzeko moduz	57	80	64
Maitasun-sentimenduez	52	90	24
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.500	1.500

* Gai bakoitzari buruz hitz egin dutenen portzentajea.

Oro har, neskek mutilek baino gehiago hitz egiten dute gai hauei buruz. Horri dagokionez, bi sexuen artean alderik nabari ez den gai bakarria amodioa egiteko modua da. Neskek eta mutilek hein berean hitz egiten dute horren inguruan (bai lagunekin bai guraso edo irakasleekin).

Adinaren arabera aldeak antzeman dira gai horiei buruz solaskideak aukeratzeko orduan. Gurasoekin sexualitatearen inguruan gehien hitz egiten dutenak 25 urtetik azpikoak dira, batez ere antisorgailuei edo sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunei buruz denean. Adinak behera egiten ahala, ohikoagoa da aipatu gai guztiei buruz irakasle edo begiraleekin hitz egitea. Bestalde,

20 urtetik aurrera lagunekin sarriago hitz egiten da gai horien inguruan (alderik handiena amodioa egiteko moduari edo moduei eta sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunei buruzko solasaldietan antzeman da) —ikus 142. taula—.

142. taula

SEXUALITATEARI BURUZ HITZ EGITEA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

«ESADAZU MESEDEZ ONDOKO GAIEI BURUZ HITZ EGITEN DUZUN EDO INOIZ HITZ EGIN DUZUN...»*						
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
Gurasoekin»						
Antisorgailuez	63	56	69	64	65	59
Amodioa egiteko moduz	18	17	18	19	18	16
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	62	56	67	63	65	57
Umeak sortzeko moduz	57	49	65	57	57	56
Maitasun-sentimenduez	52	45	60	53	53	51
Zure lagunekin»						
Antisorgailuez	91	89	94	90	92	91
Amodioa egiteko moduz	83	84	83	78	87	83
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	87	84	90	83	89	88
Umeak sortzeko moduz	80	74	86	78	81	81
Maitasun-sentimenduez	90	85	94	88	92	89
Zure irakasle edo begiraleekin»						
Antisorgailuez	67	66	67	74	67	60
Amodioa egiteko moduz	28	29	27	33	30	22
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	71	71	71	79	71	64
Umeak sortzeko moduz	64	60	68	67	65	60
Maitasun-sentimenduez	24	22	27	29	24	20
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	750	750	420	580	500

* Gai bakoitzari buruz hitz egin dutenen portzentajea.

2008an, gazteek adierazi dute duela lau urte baino gehiago hitz egin dutela gurasoekin eta batez ere irakasle edo begiraleekin sexu-kontuei buruz. Lagunekin gai horren inguruan izandako solasaldiak, aldiz, antzera mantendu dira, akaso apur bat ere jaitsiz. Edonola ere, oraindik ere ohikoagoa da gai horiei buruz lagunekin hitz egitea guraso eta irakasle edo begiraleekin hitz egitea baino (ikus 143. taula).

143. taula

SEXUALITATEARI BURUZ HITZ EGITEAREN BILAKAERA (2004-2008)

«ESADAZU MESEDEZ ONDOKO GAIEI BURUZ HITZ EGITEN DUZUN EDO INOIZ HITZ EGIN DUZUN...»*		
	2004	2008
Gurasoekin»		
Antisorgailuez	56	63
Amodioa egiteko moduz	17	18
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	57	62
Umeak sortzeko moduz	52	57
Maitasun-sentimenduez	47	52
Zure lagunekin»		
Antisorgailuez	94	91
Amodioa egiteko moduz	82	83
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	90	87
Umeak sortzeko moduz	80	80
Maitasun-sentimenduez	92	90
Zure irakasle edo begiraleekin»		
Antisorgailuez	56	67
Amodioa egiteko moduz	20	28
Sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez	63	71
Umeak sortzeko moduz	51	64
Maitasun-sentimenduez	16	24
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.500

* Gai bakoitzari buruz hitz egin dutenen portzentajea.

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*.

9.5. ONDORIOAK

Gazte gehien-gehienek iritziz, sexualitatea garrantzitsua da beraien bizitzan. Mutilek neskek baino garrantzi handiagoa atxikitzen diote.

Sexuaz pentsatzean, burura gehien datorkiena bikotea da (une horretan bikotea eduki ala ez), baina bat-bateko aipamenetan asko ageri dira, halaber, desioa, maitasuna, dibertsioa eta ardura.

Azken urteotako datuak alderatuta, badirudi gazteak sexuak berekin dituen arriskuez (gaixotasunak edo nahi gabeko haurduntzak) gutxiago kezkatzen direla orain, eta sexuaz pentsatzean alderdi jolasti eta haragizkora lerratzen direla (lehen baino gehiago aipatzen dituzte dibertsioa eta desioa).

Gazte gehien-gehienek lagunekin sexuaren inguruko gaiez hitz egiten dute edo hitz egin izan dute, hala nola antisorgailuez, sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez, umeak sortzeko moduz, amodioa egiteko moduz eta maitasun-sentimenduez. Gehiengo dira, halaber (hain handia ez bada ere), gurasoekin edo irakasleekin —azken horiekin gehiago— umeak sortzeaz, antisorgailuez eta sexuaren bidez kutsa daitezkeen gaixotasunez mintzatu direnak; hain zuzen ere, lau urtetik hona nabarmen igo da irakasle eta begiraleekin sexualitateari buruz mintzatu diren gazteen portzentajea. Maitasun-sentimenduei buruzko solasaldiak, aldiz, ohikoagoak dira gurasoekin irakasleekin baino.

Mutilek sexualitateari neskek baino garrantzi handiagoa ematen dioten arren, neskek kontu hauei buruz gehiago mintzatzen dira.

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

10. Ondorioak



10

Ondorioak

10.1. LAN-MUNDUA

Gazteen %3k bakarrik lortzen dute lehenengo lana enpleguko zerbitzu publikoen bitartez. Lana aurkitzeko modurik erabilienak enplegua norberak zuzenean bilatzea eta familiarteko, lagun edo ezagunen bitartekaritza dira.

Lan-eskarmentua duten (orain lanean aritu ala ez) hiru gaztetik batek inoiz ez dute urtebetetik gorako kontraturik izan, eta apenas herenek dute edo izan dute azken lanean kontratu mugagabe bat. Ezegonkortasuna aski hedatuagoa dago gazteen artean helduagoen artean baino: aldi baterako kontratua duen 45 urtetik gorako soldatapeko bakoitzeko kontratu mugagabea duten hamaika daude, eta gazteen artean, berriz, aldi baterako soldatapeko bakoitzeko mugagabeko kontratua duen beste bat dago.

Lanbide Heziketako ikasketak egindakoak dira gaur egun lan gehien egiten dutenak eta mugagabeko kontratu gehien sinatzen dituztenak, eta horiek dira, halaber, beren lana egonkortzat gehien jotzen dutenak; haatik, ez dira beren lanarekin satisfazio-mailarik handiena ageri dutenak.

Beren egungo lanarekin gusturago ageri direnak gazte autonomoak dira, kontratu mugagabea duten soldatapekoak baino are gehiago; hala ere, gazte gehienek ez dute lan-aukera hori baliatzerik pentsatu.

Bestalde, hamar gaztetik lau Euskaditik joateko prest egongo lirateke lan interesgarri bat lortuz gero.

Sexuen arteko ezberdintasuna agerikoa da lan-munduan: emakumeen artean gizonak baino gehiago dira sekula urtebetetik gorako lanik izan ez dutenak, kontraturik gabe lan egiten dutenak, lanaldi laburrean dihardutenak eta beren lana estresagarria eta gaizki ordaindua dela diotenak. Gainera, subjektiboki gehixeago dira (gutxiengoa izan arren) adinean, prestakuntzan eta esperientzian berdintasun-egoeran egonez gero gizonak errazago duela lanpostua lortzea uste dutenak, emakumeak errazago duela uste dutenak baino.

10.2. FAMILIA

Familiari begira, EAEko gazte baten ohiko profila honakoa da: ezkongabea, seme-alabarik ez duena eta gurasoekin bizi dena, etxetik atera nahiko lukeen arren. Gazteen esanetan, emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitzaren prezioa da. Gurasoen etxean bizi diren gazteen bi herenek adierazi dute familiarekin bizitzea erosoagoa ere badela.

15 eta 19 urte arteko gazte gehien-gehienek hilean 300 euro baino gutxiago eskuratzen dute, gehienbat familiaren diru-sarreretatik; 20 eta 24 urte artekoetan ohikoa hilean 60 eta 900 euro bitarte eskuratzea da (adin-tarte horretako bost gaztetik batek hilean 900 euro baino gehiago biltzen duen arren), norberak irabazitako dirutik, familiarenetik edo bietatik; 25 urtetik aurrera, gazte gehienek hilean 600 euro baino gehiago eskuratzen dute, eta jatorria batik bat diru-iturri propioak edota bikotekidearenak dira (kasu askotan familiak ere laguntzen duen arren).

Familiaren baitan ere sexuaren araberako ezberdintasunak antzeman daitezke: bikotekidearekin (ezkondata ala ez) bizi direnen artean, emakumezkoek gizonetzkoek baino etxeko lan gehiago egiten dute, eta egoera hori are larriagotzen da tartean seme-alabak daudenean. Edonola ere, aurreko urteekin alderatuta zereginak erdi bana egiten dituzten gazteen portzentajea zertxobait igo da.

10.3. AISIA ETA DENBORA LIBREA

Gazte gehienek adierazi dute batez beste hiru ordu libre edo gehiago dituztela lanegunetan. Denbora libre gutxien dutenak seme-alabak dituzten emakumeak dira.

Gazteen artean, lanegunetan aisialdiko jarduera ohikoenak telebista, bideoa edo DVDa ikustea, lagunekin edota bikotekidearekin egotea eta musika entzutea dira. Asteburu eta jaiegunetan, gazteak nagusiki denbora librean lagunekin edota bikotekidearekin egoten dira (astegunetan baino gehiago) eta tabernetan ibiltzen dira.

Bestalde, jarduera batzuk lanegunetan ohikoagoak dira (telebista ikustea, musika entzutea, ordenagailuarekin edo bideo-jokoen kontsolekin denbora-pasa aritzea eta irakurtzea), eta beste batzuk, aldiz, asteburuetan (taberna zein diskoteketara joatea, kultura- edo kirol-ikuskizunetara joatea, mendira joatea edo kalean edatea); horrek ez du esan nahi jarduera horiek gazteek gehien egiten dituztenak direnik.

Aisialdian (lanegunetan nahiz jaiegunetan) egiten diren jarduera-motetan gehien eragiten duen aldagaia seme-alabak izatea edo ez izatea da (sexuaren edo adinaren gainetik, horiek ere

alde nabarmenak markatzen dituzten arren). Seme-alabak dituzten gazteen artean, aisialdiko jarduera ohikoenak familiarekin egotea, telebista ikustea eta paseatu edo kalean egotea dira.

EAEko hamar gaztetik lau elkarteren bateko kide dira; gazteen artean, kide gehien biltzen dituztenak kirol-elkarteak dira, batez ere gizonzkoen eta 20 urtez azpikoen artean. EAEko gazteriaren asoziazionismo-maila Espainiako eta Europar Batasuneko gazteriarenaren batez bestekoa baino altuagoa da.

Gero eta gehiago dira etxean ordenagailua eta Internetarako sarbidea duten gazteak; zehazki, Euskadiko lau gaztetik hiru etxetik atera gabe sar daitezke Interneten. Horri lantoki edo ikasketa-zentrotik, ziberkafetatik eta abar konektatzeko aukera gehituz gero, ez da harrizkeoa gazteen %90ek Internetera inoiz edo askotan konektatu direla adieraztea, duela zortzi urteko portzentajeak bikoiztuz (2000n erdiak baino gutxiago ziren, zehazki %46, Internetara inoiz konektatu izandako gazteak). Internetera konektatzen diren gazteen kopurua ez ezik, konexio-orduak ere areagotu dira: Internet erabiltzen duten hiru gaztetik bat astean 7 orduz baino gehiagoz konektatzen dira.

10.4. EGOERAREN BALORAZIOA

Gazteria oro har bere egungo egoera pertsonalarekin pozik dago, eta adin berean gurasoek bizi zutena baino egoera hobean dagoela uste du. Gazteak pertsonalki gehien kezkatzen dituzten auziak etxebizitza eta lana dira. 20 urtetik azpikoen artean, ikasketak ere aurreko bi auziak adinako kezka-iturri dira.

Oro har, gazteen iritziz beraien egoera erdipurdikoa da, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra, eta erakunde publikoek (udalek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritza) egindako lanarekin kritiko ageri dira.

Hezkuntza-sistema aurreko urteetan baino gehiago estimatzen dute gazteek, eta hain zuzen ere ikasleak dira estimu handiengan dutenak. Ikasketen alorrean, nabarmentzekoa da neskek Lanbide Heziketako ikasketak egiteko joera txikiagoa dutela mutilek baino, eta, aldiz, goi-mailako ikasketak egiteko handiagoa. Bestalde, Lanbide Heziketak indar handiagoa du Gipuzkoan gainerako lurraldeetan baino.

10.5. POLITIKA

Euskadiko gazteak politikatik urrun sentitzen dira, ez zaie interesatzen, alderdi negatiboekin lotzen dute, ez dute auzi publikoetan parte hartu nahi eta ez dute uste alderdi politikoak gazteriatik hurbil daudenik. Politikatik hain urrun egonik, askok —ia erdiek— ez dute beren burua ez ezkerrekotzat ez eskuinekotzat definitzen, gehiago diren arren ezkertera lerratzen direnak eskuinera edo zentrorra jotzen dutenak baino. Identitateari dagokionez, batez ere euskal herritar sentitzen dira, eta, gehiengoan izan gabe ere, gero eta gehiago dira europar sentitzen diren gazteak.

10.6. ERLIJOZALETASUNA

Gazteak duela hamar urte baino epelago ageri dira erlijioaren alorrean. Orain gutxiago dira beren burua katolikotzat dutenak (mezetara joaten direnak nahiz joaten ez direnak), eta ateo definitzen direnen kopuruak, berriz, gora egin du. Aldi berean, fededun gisa definitzen diren gazteen artean erlijio-zerbitzuetara joaten direnen kopurua jaitsi egin da.

Izan ere, oro har gazteria erlijioei buruz eszeptiko ageri da. Gazteen ia erdien iritziz, edozein erlijioaren baitan egia gutxi dago oso. Bestalde, hamar gaztetik bakar batek adierazi du Jainkoarengan inolako zalantzarik gabe sinesten duenik.

10.7. GIZARTE-BALIOAK ETA JOKAERAK

Gazteen gehiengoak begi onez ikusten du sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, legezko sexu-aldaketa, eutanasia, abortu libre eta borondatezkoa eta etxebizitza hutsen okupazioa. Aldiz, gehienak heriotza-zigorraren, suizidioaren eta ideia politiko eta erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen aurka ageri dira. Droga bigunen kontsumoa eta eskoletan erlijioa irakastea gazteen artean askotariko iritziak eragiten dituzten gaiak dira.

Gazte gehienek uste dute inguruko gazterian orokortua dagoela legezko drogak (alkohola edo tabakoa) zein legez kanpokoak kontsumitzea, elikadura desorekatua eta egoneko bizimodua. Erdien baino gehiagoren iritziz, halaber, gazteen artean hedatuta daude depresioak edo estresa bezalako arazo psikologikoak nahiz babesik gabeko sexu-harremanak.

Jokabide pertsonalei erreparatuz, 2008an jaitsi egin da, 2004aren aldean, azken urtean jokabide edo ohitura arriskutsu hauek burutu izana adierazi duten gazteen portzentajea: gehiegi edatea (hala ere, gazteen ia erdiek hori egin izana aitortu dute), legez kanpoko drogaren bat

kontsumitzea edo zirkulazio-arauak errespetatu gabe gidatzea (azken bi kasuotan, bost gaztetik batek aitortu du horrelakorik).

Gazteak nagusiki oinez ibiltzen dira batetik bestera, baina ia herenek autoa ia egunero erabiltzen dute, eta bostetik batek autobusa egunero edo ia egunero hartzen du. Bizkaian, lau gaztetik bat metroan ibiltzen da egunero.

EAEko gazteriak gehien arbuiatzen duen kolektiboa neonazi edo eskuin muturrekoena da. Talde hori gehiago arbuiatua da orain duela hogeitun urte baino. Aitzitik, orduetik hona militar eta homosexualenganako tolerantzia areagotu egin da.

Gazteen %15ek ez lukete auzokide gisa etorkin atzerritarrik izan nahi. Arbuio hori areagotu egin da azken urteotan, eta Euskadin etorkin gehiegi dagoen pertzepzioarekin loturik doa. Etorkin atzerritarrengan pentsatzeko orduan, gazteei batik bat latinoamerikarrak (hain zuzen ere gaurko egunean EAEn biztanle gehieneko etorkin-taldea) eta iparrafrikarrak (baita arabiar edo musulmanak ere) datozkie burura. Gazte gehienek atzerriko immigrazioari buruz duten jarrera lan-kontratua duten etorkinei bakarrik sartzen uztearena da. Politika horrek gero eta jarraitzaile gehiago bildu ditu azken urteotan, sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldeko aukeraren kaltetan.

10.8. EUSKARA

EAEko hiru lurraldeetan gazte gehienek adierazi dute euskara ongi edo nahikoa ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten dutela, baina Gipuzkoako gazteen artean euskararen ezagutza, maila guztietan, Araba edo Bizkaikoen artean baino dezente altuagoa da. Dena den, 2004tik 2008ra Arabako gazteen artean nabarmen igo da euskararen ezagutza-maila.

Gainera, adinak behera egin ahala hizkuntza-gaitasunak gora egiten du, neurri handi batean azken urteotan hezkuntza-sisteman D ereduko matrikulazioak izan duen hazkundeari esker.

Euskararen ezagutzak, hala ere, ez du euskara nagusiki edo gaztelaniaren antzera erabiliko denik bermatzen: euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutenen artean erdiek baino gehiagok diote etxean eta lagunartean gaztelaniaz euskaraz baino gehiago hitz egiten dutela, bai hala erabaki dutelako bai ingurunearen eraginez. Euskaraz hitz egiten dutela gehien dioten lurraldea Gipuzkoa da.

Euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzeko gai direla adierazi duten gazteen artean ere, gehienek gaztelaniaz irakurtzen dute.

Euskarazko hizkuntza-gaitasuna edozein delarik ere, gazte gehienak herri-administrazioak hizkuntza hori sustatzeko orain bezainbat diru edo gehiago gastatzearen alde daude.

10.9. SEXUALITATEA

Gazte gehienek iritziz, sexualitatea garrantzitsua da beraien bizitzan. Mutilek neskek baino garrantzi handiagoa atxikitzen diote.

Sexuaz hitz egitean, gazteriari bat-batean burura etortzen zaizkionak bikotea (mutil-lagun edo neska-laguna, mutil edo neskaren bat...), desioa, maitasuna, dibertsioa eta sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunen zein nahi gabeko haurduntzen aurreko ardura bezalako kontzeptuak dira. Aurreko urteekin alderatuta, orain gehiago dira sexualitatea desioarekin eta dibertsioarekin lotzen duten gazteak, eta aldi berean batik bat arduraz pentsatzen dutenen portzentajea jaitsi da.

Gazte gehienek sexuaren inguruko auziei buruz hitz egin dute gurasoekin, irakasle edo begiraleekin eta, batez ere, lagunekin. Amodioa egiteko moduari edo moduei buruz lagunekin hitz egiten dute, baina ez gurasoekin edo irakasleekin. Maitasun-sentimenduak ere ez dira irakasleekin partekatzen. Oro har, neskak mutilak baino irekiagoak dira gai hauei buruz hitz egiterakoan, amodioa egiteko moduari buruz izan ezik (gai horretan ez da nesken eta mutilen artean alderik nabari).

KGk

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

11. Metodologia



11

Metodologia

Azterlan honen sarreran adierazi den moduan, iritziak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) lurralde historiko bakoitzeko 15 eta 29 urte arteko gazteriaren lagin adierazgarri bati egindako inkesta baten bidez bildu dira.

Inkesta galdesorta egituratu batean oinarritu da; gehienetan erantzunak itxiak ziren, baina bat-batean eta elkarrizketagileek aukerarik eskaini gabe erantzun beharreko galdera irekiak ere egin ziren. Gerora, bat-bateko erantzun horiek kategoriatan ezberdinetan multzokatu ziren; kategoriok jarraian zehaztuko dira, galdera irekien birkodetzeari dagokion atalean. Erabilitako galdesorta ere atzealdeko eranskinean jaso da.

Ikerketaren diseinua Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzaren mendeko Gazteen Euskal Behatokiak eta Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean taxutu dute. Landa-lana, berriz, berriaz horretarako kontratatutako kanpoko enpresa batek burutu du.

Fitxategien arazketa, emaitzen analisia eta txostenaren idazketa aipatu Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egin du.

11.1. LAGINA

Lagina, 15 eta 29 urte arteko biztanleria-segmentuari zuzendua, sexu- eta adin-kuoten arabera (15-19 urte, 20-24 urte eta 25-29 urte) hautatutako 1.500 gaztek osatu dute, lurraldeka honela banatuak: Araban 402 gazte elkarrizketatu dira, Bizkaian 600 eta Gipuzkoan 498.

